


# DBH-BATXILERGOA 2016

# XV. IDAZLAN KUADERNOA



Argitaratzailea:

**Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua eta Hezkuntza Saila**

Laguntzaileak:

**Barrutialde Institutua**

**Gernika-Lumoko Institutua**

**Mertzede Ikastetxea**

**San Fidel Ikastola**

**Seber Altube Ikastola**

Portadaren egilea:

**Asier Ortuzar Andres**

(DBH4. mailako ikaslea)

Babesleak:

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)**

**Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila**

(Euskara Zuzendaritza)

Inprimaketa:

**LIZASO GRAFIKAK (Zornotza)**

**2016ko edizioa.**

# HITZAURREA

Hamabost urte bete dira eta **Idazlan Koadernoan ekimena** nerabezaroan daukagu. Nerabezaroa, familia giroan adin aproposa ohiturak errotzeko eta, zer esanik ez, hizkuntzari dagokionean ere bai. Denboraren poderioz, 2002an lehenengo idatziak kaleratu zituzten ikasleetako batzuk guraso bihurtu dira eta, orain, hauen seme-alabak dira kateari jarraipena ematen diotenak.

Euskararen transmisiorako eskola mundua dugu erreferente nagusitzat eta bikain betetzen du paper hori. Baina ahaztu egiten zaigu euskararen katea indartzeko eta bere erabilera etxera eta kalera zabaltzeko familia dela inportanteena, bertan errotzen direlako hizkuntza ohiturak. Hor dago familiakideen (gurasoen, aittitte-amumen,...) papera, eragina eta konpromisoa.

## **Idazlan Koaderno hauek lagungarri izan gura dute horretarako.**


Batetik, gaztetxoengan harrotasun sentimendu positiboa sortu eta bizitza osorako euskararen “esperientzia” eta txertoa aldean eraman dezaten. Bestetik, gurasoei harrotasun hori kontagiatu eta euskarari familia giroan balio erantsia eman izan dakion.

Ikasle hori!

Hartu liburu hau eta erakutsiezu zeure gurasoei zer egiteko kapaz zaren.

Guraso hori!

Eseri seme-alabaren ondoan eta, bere aurpegi liluratuaz gozatuz, eraman euskara ahora.



**Marisa Aldamizetxebarria**  
EUSKARA ZINEGOTZIA

2016ko apirilean

# AURKIBIDEA

IZENA	maila	IDAZLANA	orr.
Izaro Ezkurdia Beaskoetxea	DBH 1.	BARRE EGITEAK BIZITZA LUZATZEN DU	1
Joane Ibarretxe Barranco	DBH 1.	MADLINE WATERSONEN UDA	4
Izei Carbó Basterretxea	DBH 1.	ASTEROIDE ERRALDOIA	7
Maren Alonso Berzosa	DBH 2.	NOAH ETA BERE AMETSAREN BIDEA	9
Ane Aldana Gainza	DBH 2.	EZINA, EKINEZ EGINA	13
Amaia Zarrabeitia Elorriaga	DBH 2.	BENETAKO AMETSAK	16
Jomara Undabarrena Loizaga	DBH 2.	ZERGATIK GURI?	19
June Otxandio Basterretxea	DBH 2.	ZURE AMETSEN JABE ZARA	23
Lander Rodríguez Eguren	DBH 2.	AUPA ZUGATIK EDURNE	26
Nerea Lejarzegi Zuzaeta	DBH 2.	DENBORA	29
Maria Amezaga Velez	DBH 3.	EGURREZKO KAXA	33
Gaduk Alexander Yang	DBH 3.	ALTXOR SUSMAGARRIA	37
Maddi Gerrikabeitia Uribarri	DBH 3.	ZER EGINGO DUT? HIL ARTE BIZI	41
Oihane Antxustegi Aiestaran	DBH 3.	HERIOTZAREN BAKEA	45
Garazi Foruria Naberan	DBH 4.	SAM	48
Jon Santa Maria Amurrio Fernandez	DBH 4.	ADISKIDEA	52
Marina Alves Ortega	DBH 4.	AMAREN ATSEKABEA	59
Ziortza Barruetabeña Erdaide	DBH 4.	AMONA	63
Izaskun Izagirre Urizar	DBH 4.	IZAN GARENA BETI IZANGO GARA	65
Julen Diez Azkarate	DBH 4.	ATERKI BERAREN AZPIAN	68
Amaia Bilbao Intxausti	BATX.1	AMETSETAKO ABENTURA	70
Beñat Bilbao Landa	BATX.1	BETI BERDIN	74
Xabier Zarrabeitia de la Fuente	BATX.1	IKASKETEN GORA-BEHERAK	77
Maddalen Omaetxebarria Landa	BATX.2	FIKZIO KONPARTITUA	84
Itsaso Gabiola Foruria	BATX.2	BARNE GOGOETAK	88
Igor Makazaga Conde	BATX.2	DENA HASTEN DA BERRIRO	92
Iranzu Barandika Urrutia	BATX.2	BURDINAK	95
Xabier Ojanguren	BATX.2	IZARREK ERE HEGAN EGITEN DUTE	99
Julen Oleaga Azketa	BATX.2	HAN URRUNEAN	104
Irati Ramos Etxeandia	BATX.2	UDABERRIA HELDU ARTE	107

**2016**

**DBH-BATXILERGOA**

**XV. IDAZLAN  
KOADERNOA  
GERNIKA-LUMO**





**Izaro Ezkurdia Beaskoetxea**  
**DBH 1.maila**

*"Trikitixa jotzea, eta nire txakurrekin ibiltzea atsegin dut..  
Alaiak diren pertsonekin ondo pasatzen dut."*

## **BARRE EGITEAK BIZITZA LUZATZEN DU**

Esaldi hori txikitan behin entzun zuen neskatoak; berehala ulertu zuen bere esanahia: pozik zaudela adieraztea ona da; eta ona bada, osasuntsua da; eta osasuntsua bada, gehiago eta hobeto bizitzeko balioko du.

Ahal zuen guztietan, batez ere barre algaraka hasten zenean, esaldia errepikatzen zuen, eta bere ingurukoek ere, arrazoia zuelako, aurpegi irribarretsua jartzen zuten.

Nagusituz joan ahala, konturatzen joan zen aurpegian irribarre bat duen jendea atseginagoa dela; eta bera ere saiitzen zenean begirada alai bat jartzen, jendeak beste keinu alai batekin erantzuten ziola. Hori oso erraz frogatzen zuen ume txikien irribarre eta barreekin. Eta, horregatik, ikasketak amaitu ondoren, pailazoa izango zela erabaki zuen.

Berehala konturatu zen ez zela erreza izango jendeak galdetzen zuenean "eta zer nahi duzu izan? Ba, nik pailazoa". Gainera, kalean, ikastetxean, telebistan "pailazoa" esaten zioten beti "tontoari" edo "tontakeriak egiten zituenari". Eta berarentzat pailazoa izatea oso zaila zen, zelan lortu besteen barreak hainbat arazo dituztenenean beraien bizitzan? Ia ezinezkoa iruditzen zitzaion.

Entzunda zuen komenigarria zela koaderno txiki bat eramatea soinean, burura etortzen diren ideiak apuntatzeko. Hartu zuen horrelako bat bere gelako apalategitik eta berak zer egoeratan egiten zuen barre idazten hasi zen: bere aitita-amamak ikustean, bere txakurraren aurpegia ikustean, bazkaltzeko bere janari gogokoena zegoela jakitean, poztasunezko barrea izaten zen; baten bati susto bat eman ondoren, itxura bereziko pertsonaiak imitatzean, txiste on bat entzutean, umorezko barrea izaten zen; maite zutenek berataz gauza onak esatean, azterketa baten emaitza bikaina zenean, aita eta ama elkarri musu bat ematen ikustean, harrotasunezko barrea izaten zen.

Konturatu zen barre mota asko zegoela eta, horren arabera, jende mota ezberdin asko barrea sortarazteko orduan. Pailazo on bat izatea, beraz, berak pentsatzen zuen moduan, oso gaitza izan beharko zen.

Gaitza bai, baina ez ezinezkoa.

Txikitan ikusten zituen pailazoak *Pirritx eta Porrotx* eta *Patxin eta Potxin* izaten ziren. Lehenengoek kanten bitartez umeak alaiago bizitzeko istorioak kontatzen zituzten, bigarrenek abilitadeak erakutsiz (bata mutua, baina oso trebea; bestea berritsua, baina traketsagoa) ondo pasarazten zituzten ikusleak. Behin, hamar bat urterekin, zirkuan pailazoak ikusi zituen, "azkarra eta tontoa" bikotearen ikuskizuna zen; eta itxuraz tontoa zena itxuraz azkarra zena baino askoz ere azkarragoa zen.

Konturatu zen badaudela ere pailazo motak, eta bakoitzak bere nortasuna duela; beraz hori ere erabaki beharko zuen: musikarekin ala musikarik gabe, hitz eginez ala keinuen bitartez, abilitadeak erakutsiz ala erakutsi barik? "*Ez da erreza izango*" pentsatu zuen, "*gainera ni neu naiz bakarrik, momentuz, eta ez dut ezagutzen bakarka dabilen pailazorik.*"

Erraza ez da, baina ezinezkoa ere ez.

Berari mozorrotzea asko gustatzen zitzaionez, ezagutzen zituen pailazoek zer itxura eramaten zuten aztertzen hasi zen: guztiek peluka eramaten dute, kolore bizidun arropak ere bai eta sudur gorria, jakina. Besteek hori egiten bazuten eta lortzen bazuten barre eragitea, agian eredu hori jarraitu behar zuen. Baina eredia apurtzen bazuen eta beste itxura batekin agertzen bazen? Agian barre gehiago sortuko zuen desberdina izateagatik. Honetan ere bazuen zer erabaki, baina errazagoa iruditzen zitzaion. Gauza bat argi zeukan: sudur gorria eraman nahi zuen. Txiki-txikia zenean, bideoan gehien ikusten zituen pailazoek sudurraren inguruko kanta polit bat abesten zuten, eta berari asko gustatzen zitzaion, hunkigarria zelako. Horrela zioen:

Sudurra gorri-gorria  
Botoia borobila  
Zapatak handi-handiak  
Zatoz laguna zaitugu (Bis)

Pailazoak zure lagunak  
Gaituzu beti prest  
Eta triste baldin bazaude  
Zatoz laguna zaitugu (Bis)

Beno, gutxienez zerbait erabakita zegoen.

Behin etxean amari entzun zion bazela pailazo bat oso ona, Virginia Imaz izenekoa, feminista zena, eta martxoaren 8ko ospakizunetako batean egon zela eta emakumeen aurkako bidegabekeriak salatzen zituela. Oso garrantzitsua iruditzen zitzaion; nori barre eragitea eta zertarako erabakitzea. Eta hau



benetan, zaila izan arren, sudur gorriarena baino argiagoa zeukan: munduan zeuden injustizia guztiak salatzeko pailazo sudur-gorria izango zen.

Bere pailazo izena ere erabaki beharko zuen. Honi buelta asko eman beharko, izenak lehenengo sentipena islatzen duelako. Baina momentuz bada gustukoena duena: *BARRE GORRI*.

Ea laster mundua barrez leherrarazten ikusten dugun!





**Joane Ibarretxe Barranco**

**DBH 1. maila**

*"Munduko gauzarik hobereena  
lagunekin denbora pasatzea da"*

## **MADLINE WATERSONEN UDA**

Bakarrik euria entzuten zen nire leihoaren kontra talka egiten. Beldurtuta nengoen. Bat-batean, nire amaren hotsa entzun nuen nire izena errepikatzen, zerbait esan nahi balit bezala. Berehala irten nintzen manta azpitik, eskailerak jeitsi eta oso gogor besarkatu nuen oso sakon arnastuz. Tristura aurpegiz begiratu zidan jesartzeko aginduz. Berehala eseri nintzen, eta esan zidan:

- Madeline, badakit gustuko duzula gurekin uda igarotzea baina oraingoan...

- Oraingoan zer? -erantzun nion oso kezkatuta.

- Oraingoan... ezingo da horrela izan. Uda honetan aita eta biok lana dugu. Saiatu gara zerbait egiten baina alferrik!

- Eta orduan zer ... Zer egingo dut nik uda osoan, etxean bakarrik geratu?

- Ez laztana -erantzun zidan-. Leku harrigarri batera joango zara. Bertan lagun asko egingo dituzu eta uda izugarria igaroko duzu Jasker aterpetxean. Leku zoragarria da eta bertan milaka lagun egingo dituzu, benetan.

- Orduan leku berri bat? Ederto! Eta noiz noa? Non dago? Nola noa?

- Ondo hartu duzu orduan?

- Bai noski! -erantzun nion.

- Ondo orduan! Udako lehenengo egunean autobus geltokian autobus bat egongo da aterpetxera zoazten guztiak hartzeko.

- Orduan... Aste bi barru!!! Banoa maleta prestatzera.

Korrikan irten nintzen egongelatik nire gelara, baina bost eskailera igo baino lehen, atzera bueltatu nintzen korrikan; amari besarkada eta musu potolo bat eman nizkion. "Maite zaitut" xuxurlatu nion oso baxu belarrira. Barretxo bat jarri zitzaion aurpegian; ni ere pozez bete nintzen.

- Egun on!!! -Esan zidan amak.

- Hamabost minutu gehiago...

- Baina Madeline, gaur da eguna.

Konturatu nintzenerako bost minutu igaro ziren eta ohetik hegaz irten nintzen. Jantzi eta gosaltzera jaitsi nintzen. Ama nire zain zegoen. Janaria ahoan nuela etxetik irten ginen; autobus geltokirantz gindoazen. Bertan zeuden lau neska talde batean eta hiru mutil beste batean. Ondo begiratu nuen. Neska bat bera bakarrik zegoen. Berarengana hurbildu nintzen eta esan nion:

- Zu Jaskerrera zatoz, ezta?

- Bai -erantzun zidan lotsatuta.

- Ni Madeline naiz. Eta zu?

- Ni Wendoline.

Eskua eman nion eta nirekin eraman nuen autobusera. Amari musu bat eman nion eta eskerrak eman nizkion. Bidai osoa nindoan Wendolinekin berba egiten. Nire laguna izatea nahi nuen. Galdetu egin nion eta baietz esan zidan. Jaskerrera heldu ginenean, Wendolinekin gure gela hartzera joan nintzen. Hiru.egunetan kanoekin joan ginen erre kara, altxorraren jokoa egin genuen, antzerkiak egin genituen eta gauean, istorioak kontatu genituen. Wendolinek eta nik beldurra genuen baina bata bestearen ondoan egonda, beldurra joan egin zitzaigun.

- Uda ezin hobea izan da! -Ezan nion Wendolineri.

- Noski baietz! Eta hoberena zu ezagutu egin zaitudala izan da.

Agurtzeko ordua zen. Etxera bueltatzeko ordua zen. Zin egin zuten elkar ikusiko zutela eta bitartean gutunak, e-mailak, postalak.. elkarri bidaltzea. Malko batzuen ondoren autobusa heldu zen. Madeline oso triste zegoen, baina pozik ere, bere gurasoak ikusteko gogo baitzuen. Biak autobus desberdinetan joan behar izan zuten etxera. Lehenik Wendoline joan zen eta zihoan bitartean Madolineri leihotik begiratzen geratu zen, masailetik malko pare bat erortzen zitzaion bitartean. Madelinek ere beste kideak agurtu zituen eta autobusera igo zen. Etxerako bidean, Wendolinekin bizitako momentuak gogoratzen zituen.


Madelinek etxera  
heltzean ama besarkatu zuen  
eta amak esan zion:

- Zelan laztana???

- Ama!!! Ederto!!! Nire  
bizitzako udarik onena!!!

- Eta zer, hurrengo  
urtean berriro???

- Ez dakit... Nahiz eta uda  
zoragarria izan, nahiago dut uda  
zuekin igaro. Maite zaituztet!!!





**Izei Carbó Basterretxea**  
**DBH 1. Maila**

*"Niri igeri egitea eta tronpeta jotzea gustatzen zait"*

## **ASTEROIDE ERRALDOIA**

Kaixo, James da nire izena eta lurra zulatzen egiten dugu lan. Hilabete batean gertatutakoa kontatuko dizuet.

Beti bezala lanean geunden Ameriketako Estatu Batuetako herrixka txiki batean.

Bat-batean NASA-ko agintari batzuk etorri ziren. Gure lantokiko ugazabarekin egin zuten hitz eta hark esan zigun maletak egiteko, hurrengo egunean NASA-ko zentroan egon behar ginela asteroide erraldoi bat Lurrerantz zetorrelako.

Hurrengo egunean zazpi langileok NASA-ko zentroan geunden. Pila bat denbora egon ginen entrenatzen espaziora joateko.

Azkenean heldu zen eguna espaziora joateko. Asteroide erraldoi hori apurtu behar genuen Lurraren atmosferan sartu baino lehenago, asteroide zatiak horrela ez zuen Lurra joko eta mundu guztia bizirik geratuko zen.

Espaziontzia martxan jarri zen eta joan ginen espaziora, Lurretik 400km igo ginen, hortxe dagoen espazioko estazio errusiarrera.

Hantxe aurkitu genuen urte betez espazioko estazioan egon zen astronauta errusiar bat.

Astronauta errusiarrek esan zidan gela txiki batera jaitsi behar nintzela bi espazio ontziei erregaia botatzeko. Erregaia betetzen ari nintzela zerbait hautsi egin zen eta sutan hasi zen gela.

Ez dakit nola, baina irten egin nintzen eta espazio ontzi batean sartu. Espazioko estazioa hautsi egin zen, baina guk lortu genuen handik irtetea. Ordu pare bat beranduago ikusi genuen asteroide erraldoi hori, ilargiaren tamaina zuen. Hurbiltzen ari ginela asteroide zatiek gure espazio ontzia jo zuten eta hautsi egin zitzaigun. Zulatu behar genuen tokiaren beste aldean erori ginen. Hiru pertsona eta gidaria erori ginen eta gidaria eta lankide bat hil egin ziren.

Ez geneukan ezer leku hartatik mugitzeko, soilik espazioko kotxe bat erregairik gabe, edo hori uste genuen hasieran. Kotxera igo ginen eta ikusi genuenean bazeukala erregaia martxan jarri genuen.

Ordu erdira besteekin geunden, baina arazo batekin. Asteroidearen materiala oso gogorra zenez Lurrakoarekin alderatuta, ezin genuen zulatu. Ordu betean 60cm genituen zulatuta eta bi ordutan 30m zulatu behar genituen. Topera hasi ginen lanean eta lortu genuen. Gero bonba nuklearra sartu behar genuen zulora.

Ohartu ginen bonba nuklearraren urrutiko kontrola ez zebilela. Zotzetara egin genuen eta niri tokatu zitzaidan bonba eskuz aktibatzea. Nire ugazabarekin jaitsi nintzen behera, laguntzen etorri zen, baina nire trajeko zati bat kendu zidan eta oxigeno gabe geratu nintzenez, ontzira bota ninduen. Esan zidan ni berarentzat seme bat bezala izan nintzela eta berak aktibatuko zuela. Guk Lurrerako bidea hartu genuen eta asteroidea gure atmosferan sartzeko segundo bat falta zela aktibatu zuen bonba eta Lur planeta guztia salbatu zuen.

Lurrera heldu ginenean, NASA-ko zientzialariek aztertu gintuzten eta nigan ikusi zuten alienigena zati bat nuela.

Kapsula batean sartu ninduten ez egoteko inor ere nigandik hurbil, bestela hil egingo nukeen eta hiltzen nuenean nirelako beste bat irtengo zen. Milaka proba egin zituzten nirekin eta ikusi zuten nirelako beste bat zegoela, astronauta errusiarra.

Jende asko hil zuen jada errusiarrak eta ni nintzen gelditu ahal zuen bakarra.

Berarekin joan nintzen egun batean eta nitrogenozko pistola batekin atzetik eraso egin nion.

Hil egin zen.

Hauxe da nire historia. AGUR!



**Maren Alonso Berzosa**

**DBH 2. maila**

*"Abestea maite dut"*

## **NOAH ETA BERE AMETSAREN BIDEA**

Huuuusshhhhh...Brummmm!!! Olatuak entzuten nituen goiz hartan nire logelatik. Nire azken eguna zen Pismonen. Aurreko astean Pink Floyd entzuten nengoen eta bat-batean mezu bat heldu zitzaidan nire e-mail helbidera. New Yorkeko antzezle gazteentzako ikastolako zuzendari bat zen eta onartuta nengoela esan zidan. Nire ama, Adele, eta nire neba, Lukas, egongelan zeuden eta korrika joan nintzen gertatutakoa esateko. Ama ados zegoen eta jarraian etxe bizitza bat bilatu genuen Googlen. Nire azken eguna zen; faltan botako nuen Pismo baina nire ametsa egia bihurtuko zen!

Noah deitzen naiz eta 14 urte ditud, ile marroia dut eta begi berdeak. Amaren furgoneta zaharrea igo ginen, disko zahar bat jarri genuen eta bidaiari ekin genion. Zortzi ordu genituen aurretik. Nire aitak Alemanian egiten zuen lan eta urtean hiru aldiz ikusten ginen soilik, baina bere buruzagiak New Yorkera bidaliko zuen batzar batera gu joaten ginen astean. Heltzeko gogoak nituen aita ikusteko behingoz. Arizonan geunden eta kotxea bat-batean gelditu egin zen, ez zen mugitzen! Bertan gelditu ginen basamortua zirudien errepide batean. Aurreko aldea zabaldu zuen amak eta kea ateratzen hasi zen.

- Auto honek arazoak besterik ez ditu ematen! -esan zuen Lukasek haserre.

- Beste bat erosiko nuen baina nire aurrezkiak xahutu zenituen gidabaimena edukitzeko behar izan zenituen aukera guzti haietan. Azkarragoa izango bazina...

Egoera horren aurrean lurrean jesartzea erabaki nuen. Nire telefonoa jotzen hasi zen, aita zen. Hitz egiten hasi zen:

- Noah, barkatu baina lan berri bat daukat eta Txinara joango naiz lan egitera. Beraz aurten ez gara ikusiko; barkatu benetan, geroago egingo dugu berba batzar bat dut orain.

Malkoak sentitzen nituen nire aurpegian. Beti gertatzen zitzaidan berdina beti zin egiten zidan bueltatuko zela baina ez zen inoiz etortzen.

Garabia heldu zen eta kotxea ordu batera zegoen tailer batera eraman genuen. Kafetegi batean itxaron genuen eta han geundela amari esan nion:

- Etxera joan nahi dut.
- Gutxi geratzen da New Yorkera heltzeko lasai.
- Ez Pismora bueltatu nahi dut.

- Ez, ez gara bueltatuko zure aita ez etortzeagatik. Beti egiten du berdina eta badakizu, beraz zure ametsa egi bihurtzeko bidea jarraituko dugu.

Bere hitzek irribarre bat margotu zidaten, nigan sinesten zuen. Kotxean igo ginen berriro eta jarraitu genuen. Burua atera nuen leihotik eta Pismoko hondartzako iluntzeak gogoratu nituen, zeru gorri-arrosa, aire beroa... faltan botako nituen. Pentsatzen jarraitu nuen eta nire aita eta nire nebaren arteko erlazioaz gogoratu nintzen. Gurasoak banatu zirenean berak hamar urte zituen eta momentu hartatik aurrera ez zuen berarekin inoiz ere berriro hitz egin, berak ez zuelako nahi. Pena sentitzen nuen Lukasengan.

Gauean heldu ginen gure etxe berrira. Nire logelak leiho handi batzuk zituen eta Central Park ikusten zen bertatik. Nekatuta nengoen eta hurrengo egunean ikastola berrian hasiko nintzen.

Pipi...pipi! Nire iratzargailuak zortzietan jo zuen hurrengo goizean eta arin-arin jantzi egin nintzen. Geroago metroa hartu nuen eta ikastolara heldu nintzen. Atea zabaldu nuen eta jende piloa ikusi nuen korridorean, galduta nengoen. Bi neska eta mutil bat ikusi nituen niri begira, neska batek ile marroia zuen eta nabarmenak ziren begi urdin batzuk. Beste neska ile gorria zen, azal oso argikoa eta mutilak ile marroi nahiko luzea zuen. Bat-batean hurbildu egin ziren.

- Zu zara neska berria ezta? Ni Taylor naiz. - esan zuen begi urdinak zituen neskak.

- Bai, nahiko galduta nabil. - esan nuen barre artean.

- Hauek Lisa eta James dira eta hirurak zure lagun berriak gara. - esan zuen Taylorrek irribarretsu.

Ostiralean ikastolatik atera eta gero metrorantz nindoala Lisak esan zidan:

-Gurekin etorri nahi duzu?



Baietz esan nuen noski eta haiekin zinemara joan nintzen. Gure aurrean ikastolako neska famatuenak jesarri ziren. Taylorren aurpegian ikusi nuen ez zela ondo konpontzen neska haiekin. Brittany biratu egin zen eta zera esan zuen:

- Begiratu nortzuk dauden hemen, gure "frikiak" - barre egin zuen eta bere lagunak jarraitu egin zioten.

Jamesek isiltzeko esan zion, baina ez zuen kasurik egin eta guri zirikatzen jarraitu zuen.

- Ah! eta ez pentsatu paper bat lortuko duzuenik Broadwayeko gazte asteko antzezlanean. - esan zuen barre artean.

Taylorri begiratu nion eta bere freskagarria pixkanaka-pixkanaka Brittanyren burura hurbiltzen ikusi nuen.

- 3,2,1,0! - hori esanez freskagarria burutik bota zion.

Haserretu eta joan egin ziren guk barre egiten genuen bitartean. Zerbait afaltzeko esperantzaz "McDonadls" batera sartu ginen. Jesarrita geundela James entzun genuen oihuka. Begiratu genuen eta freskagarriak izurtzen zituen makinan zegoen ezin gelditurik. Txorrota bat izango bazen moduan hasi zen edaten eta bat-batean hango langile bat etorri zen guregana eta korrikan atera ginen barre egiten genuen bitartean. Metroan geundela Lisari galdetu nion:

- Zer da Broadwayeko gazte aste hori?

- Antzezlan bat da, gure adineko New Yorkeko gazteek antzezten dute aste horretan eta zine zuzendari garrantzitsu askok ikusten dute. Gustukoa badute hurrengo astean mezu bat aurkituko duzu zure e-mail helbidean. Baina bertan antzezteko aukeratua izan behar duzu. Hurrengo astean "casting"-a da.

Ez nuen lorik egin, gazte astean egon nintzen pentsatzen. Hartzen baninduten? Edo, gustukoa ba zuten? Baina agian Brittanyk arrazoia zuen eta ez ninduten hartuko, pentsatu nuen. Hurrengo astean frogatu egin nuen eta ez nekien zer gertatuko zen, urduri nengoen.

Hurrengo hilean ikastolako sarreran antzezlanaren pertsonaiak nortzuk antzeztuko zituzten izenen zerrenda jarri zuten. Urduri nengoen, hurbildu egin nintzen eta nire izena lehena zegoen! Protagonista nintzen!

Aitak deitu egin zuen eta etorriko zela esan zidan astea libre zuelako, egia esan banekien ez zela etorriko, baina itxaropen apur bat nuen.

Hurrengo astean Brittany etorri zen nigana eta zera esan zidan:

- Zortea izan duzu ezer gehiago. - eta hori esanda joan egin zen.

Hori ikusi eta gero Taylor zetorren, poz-pezik zegoen bera ere aukeratuta zegoelako. James eta Lisak ez zuten hainbesteko zortea izan baina haiek jantzien arduradunak ziren.

Entseguak bikain zihoazen eta gustuko nuen nire papera. New Yorkera zihoan neska batena zen, eta nik banekien nolakoa zen hori. Pozik nengoen.

Hilabete bi igaro ondoren han nengoen, Broadwayen. Antzezlanak bikain joan zen eta ez genuen arazorik izan. Atera nintzenez aita bilatzen hasi nintzen jende artean baina ez zegoen betiko moduan. Telefonoa hartu nuen deitzeko intentzioarekin eta mezu bat aurkitu nuen: "Barkatu Noah, ezin izan dut hegazkina hartu, galdu egin dut eta gainera biharko lana jarri didate, barkatu." Betiko istorioa zen.

Norbait nire bizkarra ukitu zuen eta arineketan malkoak kendu nituen aurpegitik. Buelta eman nuen eta Lukas zen.

- Trankil egon.- esan zuen irribarre goibel batekin aurpegian.

Taylor etorri zen. Oraindik antzezlaneko jantzia jarrita zuen.

Pentsatzen hasi nintzen, pozik nengoen, berdin zitzaidan zuzendari haietako batek deitzea ala ez, pozik nengoen eta hori zen garrantzitsuena.

Hurrengo astean nire familiarekin nengoen egongelan afaltzen eta bat-batean nire e-mailaren sarrera ontzian mezu bat nuen. Steven Spielbergekin lan egiten zuen zuzendari bat zen eta haiekin "Los Miserables" musikalaren bertsio berria egitea proposatu zidan, abestu behar nuen eta gustukoa nuen ere. Beraz, baietz esan nion. Aita Txinan geratu zen lan egiten betirako eta ez nuen inoiz gehiago hitz egin berarekin. Momentu hartatik aurrera dena ondo joan zen, dena bideratuta zegoen, pozik nengoen.



**Ane ALDANA GAINZA**  
**DBH 2. maila**

*"Izan zirelako gara, garelako izango dira"*

## **EZINA, EKINEZ EGINA**

Mikel naiz, 12 urte ditut eta Muxikan bizi naiz nire familiarekin. Begi urdinak ditut itsasoko ura bezalakoak eta ile marroia dut txokolatea bezalakoak. Baxua eta argala naiz, baita alaia ere eta bertsoak asko gustatzen zaizkit. Handitan bertsolaria izan nahi nuke.

Seber Altube ikastolan ikasten dut eta DBH1 mailan nago. Gaur goizean euskarako irakaslea etorri zaigu bertsolaritzako klaseak egongo direla esanez eta nahi zuenak izena eman ahal zuela, beraz, aukera aprobetxatu dut eta nire lagun onenarekin, Aitorrekin batera bertsolaritzara apuntatu naiz. Aitor mutil alaia eta barregarria da, baita altua eta makila bat bezain argala ere; begi berdeak ditu belarra bezalakoak eta ilehoria da. Irakasleak lehenengo klasea irailaren 15ean, ostegunean, eguerdiko jolastorduan izango dela esan digu eta kurtso osoan zehar ere horrela izango direla. Klaseak amaitzean etxera joan naiz autobusez eta gurasoei bertsolaritzan izena eman dudala komentatu diet eta hauek asko poztu dira euskal kultura bultzatzen ari naizelako.

Bertsolaritzako lehenengo eguna da eta urduri nago ea zein ikasle eta irakasle izango ditudan. Klasean guztira zazpi ikasle gara: ni, Aitor, Miren, Eneko, Irati, Amaia eta Nerea, guztiak oso atseginak. Irakaslea Xabier deitzen da eta oso atsegina da, bertsolari ezaguna da, hainbat lehiaketa irabazi dituelako. Bertso bat egiteko esan digu eta ez zait batere erraza egin bertsoa egitea, baina ondo pasatu dudanez jarraitzea erabaki dut.

Hurrengo hilabeteetan ere bertsoak egiten jardun dugu eta irakasleari komentatu diot ez zaidala batere erraza egiten bertsoak egitea, baina irakasleak esan dit ahalegin handia egin behar dela bertsolaria izateko eta ahaleginarekin egunen batean bertsolari ona izateko aukera izango dudala. Animatzeko esaldi hau esan dit "Ezina, ekinez egina". Nik orduan, ez dudala etsiko zin egin diot nire buruari eta ahal dudan guztia egingo dudala bertso onak egiteko eta lehiaketetan parte hartu ahal izateko.

Martxoaren 14a da eta nire lehenengo bertsolari txapelketan parte hartuko dut, Mendatan. Bertsoa egiteko gaia "eskola" izan da eta asko kostatu zait bertsoa egitea, oso urduri egon naizelako eta ez zitzaizkidalako errimadun hitzak bururatzen. Baina modu batera edo bestera azkenean bertsoa egitea lortu dut. Aipamen bereziak, hirugarren eta bigarren sariak emanda dituzte jada baina ez dut uste irabaziko dudarik. Orduan, lehenengo saria aipatzerakoan nire izena esan dute eta asko poztu naiz ez nuelako uste txapelketa irabaziko nuenik. Saria, txapela eta gutun bat hogeiei euroekin izan dira.

Kurtso amaiera da eta Xabierri hurrengo urtean ere bertsolaritzan jarraituko dudala esan diot, baina nire lagun Aitorrek uztea erabaki du ez zaiolako asko gustatu. Horrela jarraitu dut hainbat urtez eta gero eta errazagoa egiten zait bertsoak egitea, gainera bat- batekoak egiten ditut, ez idatzizkoak. Errimadun hitzak ere oso erraz bururatzen zaizkit eta ahotsa ere hobetuz joan zait; gainera doinu asko ikasi ditut. Inoiz ez dudalako amore eman lortu dut hau guztia, nahiz eta lehiaketa guztiak ez irabazi baina horrela galtzen eta irabazten ikasi dut. Ahalegin handia egin dut nire ametsa bete dadin eta horretaz oso harro nago.

Urteak joan ahala gero eta ospetsuagoa egin naiz herri mailan eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketan parte hartzea erabaki dut, txapelketa hau irabaziz gero Euskal Herriko Bertsolari Txapelketarako sailkatuko naiz eta Euskal herriko txapelduna izateko aukera izango dut. Txapelketa gogorra egin zait baina bertso onak bota ditudanez, finalerako sailkatu naiz, nahiz eta Bizkaiko bertsolari onenen artean egon, horien artean Onintza Enbeita eta nire irakasle izandako Xabier. Finalean nago eta nire ondoan Bizkaiko bertsolari onenak daude; esate baterako, Miren Amuriza eta Jone Uria. Bertsoa botatzeko gaia "kutsadura handia dago" izan da eta nire ustez oso ondo atera zait bertsoa eta aukerak dauzkat txapelketa irabazteko. Lehenengo gelditu naiz, beraz Bizkaiko txapelduna naiz eta Euskal Herriko txapelketarako sailkatu naiz. Azken bertsoa nire gurasoei eskaini diet eta asko hunkitu gara denok. Nire bizitzako unerik hoberena da!



Hiru hilabete geroago Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa hasi da eta ni zoritxarrez ez naiz laugarren saiorako sailkatu. Txapelketan hamargarren gelditu naiz baina lau urte barru berriro ahaleginduko naiz txapelketan parte hartzen. Bertsoa ez zait behar bezala atera eta gainera oso urduri nengoen. Txapelketako irabazlea Amets Arzallus izan da eta merezita izan du txapela bertsolari aparta delako. Baina honaino heltzea oso garrantzitsua da niretzat eta nire familia ere oso pozik dago nirekin heldu naizen lekuraino helduta.

Ospetsua egin naiz eta Muxikara bueltatzean bertso eskola bat sortzea bururatu zait umeak bertsoak egitera bultzatzeko, beraz, Gernikan bertso eskola bat sortu dut eta egia esan ume askok eman dute izena. Oso pozik nago gaur egun ume gutxi daudelako bertsolaritzan interesatuta eta ume horiei esaldi hau esaten diet " Ezina, ekinez egina" beraiek ere esaldi hori buruan sartu eta beraien ametsa bete dezaten nik bete dudan moduan.



**Amaia Zarrabeitia Elorriaga**  
**DBH. 2. Maila**  
*"Ezina, ekinez egina"*

## **BENETAKO AMETSAK**

2014. urtean Naia izeneko neska bat jaio zen Abadiñon. Baserri batean bizi zen bere familiarekin.

Eskolakoaz gain, abereak zaintzen zituen egunero. Neskatilak aintzat hartzen zuen bere gurasoen iritzia.

Oso gustuko zuen hondartza ,baina gutxitan joaten ziren , udan behin edo birritan. Ikasle aparta zen Natur Zientzietan.

12 urte zituela, ohartu zen nagusitan itsas biologoa izan nahi zuela, itsaso guztia eta bertako animaliak aztertu nahi zituen eta. Pentsatu zuen lan ona izango zela itsasoko %10 baino ez zegoelako aztertuta. Interes hori sortu zitzaion marrazoen dokumental bat ikusi zuenean. Pentsatu zuen ea zergatik ez dagoen itsasoa aztertuta; eta horren zergatia itsasoa oso sakona delako ohartu zen, inor ezin zen itsaso sakonera joan presio hidrostatiakoagatik, gizakientzat arriskutsua baitzen.

Buruari bueltak emanaz, pentsatu zuen pilota handi bat egitea itsaso sakonera heltzeko. Pilota hori plano batean marraztu zuen, haren materialak eta neurriak adieraziz. Bere gurasoei azaldu zien nagusitan itsas biologoa izan nahi zuela eta pilotaren planoak erakutsi zien. Haren gurasoek ez zuten nahi neskatzaren sentimenduak mindu, horregatik esan zioten:

*- Txiki, ezinezkoa da hori egitea, eta, gainera, ziur aski oraingoz egingo zuten proba.*

Naiaren erantzuna ez zen izan haren gurasoek espero zutena:  
*- Ziur? Hori zuek pentsatzen duzuen da. Ez dit ardura, eta, gainera, eginda badago ere nik hobetuko dut! Eta zuen gustukoa izan ala ez nire ametsa da, eta lan hori egiteko leku tropikal batera joango naiz bizitzera, ziur aski Hawaiiara.*

Hori esan ondoren, bere lo gelara joan zen.

14 urterekin ahaztuta zeukan amets hura, baina egun batean berriro ere gogoratu zen, eta ohartu zen grafeno izeneko material berri bat zegoela; material horren ezaugarriak bikainak ziren: altzairua baino 200 aldiz gogorragoa, 5 aldiz meheagoa, oso malgua, gardena, beroaren eta elektrizitatearen eroale ona, arina, gutxiago berotzen zen elektroiak igarotzean eta beroak jotzean elektrizitatea sortzen du.

Ezaugarri guztiak kontuan izanda, Naiak erabaki zuen grafenoa izango zela materialik hobereana; forma ere aldatu nahi zion. Azkenean erabaki zuen gorputzaren forma ematea eta grafenoz egindako gorputz formako jantzi ugari jartzea; bata bestearen gainean; horrela, kanpoko grafenozko geruza apurtuz gero, uretan gora egingo zuen.

Naiak inoiz ez zuen ahaztu amets hura; eta 17 urte zituela heldu zitzaion ordua erabakitzeko zein ikasketak egingo zituen. Berriro ere bere gurasoekin batzartu zen horri buruz hitz egiteko.

Oraingoan elkarrizketa ez zen berdina izan:

- *Ama, aita, badakizue nire ikasketak aukeratu behar ditudala, eta badakizue zein dudan gustukoen. Zer deritzozue hori aukeratzen badut?-* esan zuen Naiak, urduri, pentsatzen zer esango zuten bere gurasoek.

- *Badakizu, guk zu pozik bizitzea nahi dugula, baina lan hori oso arriskutsua da, edozer gerta dakizuke, marrazo batek zu erasotzea, jantziak ez funtzionatzea... mila gauza!!*

- *Badakit lan hori ez dela erraza, ezta arrisku gabea; baina nik jantzia jarri aurretik frogak egingo nituzke!*

- *Beste gauza bat da nora joan beharko duzun bizitzera lan hori egiteko.*

- *Lasaitu, ez dut emango nire bizitza osoa etxetik kanpo. Urte batzuk bakarrik, lehenengoak, 10 urte gehien jota, eta gero etxera itzuliko naiz. Urtero Gabonak pasatzera etxera itzuliko naiz.*

- *Eta 10 urte pasatuta etxera itzultzen bazara, ze lan egingo duzu Abadiñon?*

- *Hondartza etxetik 30 minututara dago.*

- *Eta zer egingo duzu, egunero joan eta etorri hondartzara?*

- *Egunero ez.*

- *Horrela bada, itsas biologoa izan ahalko duzu.*

Neskatila pozik, abereak zaintzera joan zen. Unibertsitatean hasi zen. Han marrazo erraldoi bati buruz hitz egiten entzun zuenean, Naiaren interesa handitu egin zen.

Unibertsitatea amaituta, Hegoafrikara joan zen bizitzera bere jantzia frogatzeko. Eta marrazo erraldoi hura existitzen zela frogatzeko, ezinbestekoa zen jantzia eratzea. Urte eta erdi zeraman bertan eta jantziaren maketa bat egitea lortu zuen. Arratoi bat sartu zuen bertan frogatzeko.

Arratoia 2.500 metroko sakonerara heldu zen. Itzultzean ez zeukan urratu bat ere ez. Hori jakinda, bere tamainako jantzia eratzen hasi zen.

Gabonak heldu eta etxera itzuli zen bere familiarekin. Bertan azaldu zien froga nola joan zen, eta berarentzako jantzia eratzen hasi zela. Familia guztia harrিতuta gelditu zen Naiaren trebeziatz.

Gabonak pasa ziren eta Hegoafrikara itzuli zen. Bere tamainako jantzia eratu zuen; lan gogorra egin ondoren, azkenean, jantzia prest zegoen.

Abuztua zen eta benetako froga egiteko ordua iritsi zen. Egun bi arinago Naiaren familia guztia Hegoafrikara joan zen. Heldu zen eguna, denak urduri zeuden, Naiak jantzia jarri eta uretara sartu zen. 1.000 metrotara heldu zen... 2.000 metrotara ere... 3.000 metrotara zegoenean... animalia arraroak ikusten hasi zen: arrain bat bonbila antzerakoarekin buruan, marrazo erraldoia... Bere argazki makinarekin argazki pila atera zituen. 3.500 metrotara zegoenean, jantziaren lehenengo geruza hautsi zen eta gorantza joaten hasi zen. Itsasontzira igo zen, eta hau esan zien han zeudenei:

*- Animalia arraro pila bat ikusi ditut!! Eta argazkiak atera dizkiet!!*

Jantziari beste bost geruza jarri zizkion eta berriro ere uretara sartu zen. 3.750 metrora zegoen... eta lehenengo geruza apurtu zen. 4.000 metrotan zegoenean, bigarren geruza hautsi zen; bost geruza gehiago zituen. 4.750 metrora beste geruza bat apurtu zitzaion, eta bertan 100 metroko marrazo bat ikusi zuen. Erabaki zuen itsasontzirantz igotzea, lau geruza bakarrik geratzen zitzaizkion eta.

Itsasontzira heldu zenean, neka-neka eginda zegoen. Ekintza gogoangarri hori kontatu zuenean, itsasontziko guztiak harrিতuta geratu ziren.

Abadiñoko neskak erabaki zuen lan bat prestatzea bizipen hura kontatzeko. Horri esker, Naia itsas biologo famatua egin zen. Bost urte bakarrik behar izan zituen bere asmakizuna frogatzeko.

Etxera itzuli zen familiarekin, eta gaur egun Izaro uhartetik hurbil egiten du lan.





**Jomara Undabarrena Loizaga**  
**DBH 2. maila**

*"Bizitza, irribarre eginez aurrera jarraitzea besterik ez da"*

## **ZERGATIK GURI?**

Orain ospitalean nago, 2012ko otsailaren 5a. Nire aitaren azken egunak izan litezke hauek. Oso gaizki dago, gero eta bizitza gutxiago geratzen zaiola antzematen dut. Ebakuntza larri bat pasa ondoren hemen gaude, ama, amama, Paule eta ni, aitak begiak noiz irekiko zain.

Beno, nire burua aurkeztea ahaztu zait. Kaixo, ni Lea naiz, 14 urte ditut eta Andoainen bizi naiz, ama, aita, ahizpa Paule eta amama Mariarekin. Ile beltz luzea dut, begi berdeak ditut eta bizitzan ausarta izan eta arriskatu egin behar dela erakutsi didate gurasoek, beraiek egin duten bezala, bizi bakar bat dagoela erakutsi didate, behin hiltzerakoan ez dagoela atzera bueltarik.

Orain dela bi urtera arte bizitza oso gogorra izan dudan arren, denari aurre egin eta bizitzarekin jarraitu dut, baina 2010eko apirilaren 17an gauzak konplikatu egin ziren.

Hamabi urte nituela aita ospitalera joan zen ebakuntza arraro bat egitera, orduan, gorputzeko organo guztiak begiratu zizkieten, baita kolesterola eta gorputzeko azukre kantitatea ere. Bertan ebakuntza ez dela horren garrantzitsua esan eta lehenengo beste arazo batzuk konpondu behar zirela aipatu ziguten. Oso-oso urduri geunden, ez genuen tutik ere ulertzen, aste batzuk lehenago dena bikain zihoala esan ziguten medikuek eta ebakuntza ahalik azkarren egitea hoberena zela.

Ospitaleko saloian itxaroten geunden bitartean, medikua irten zen eta aitaren izena oihukatu zuen. Ama eta aita barrura joan ziren, pertsona bakarra sartzen uzten baitzuten aitarekin. Paule eta ni kanpoan geunden, aitari zer gertatzen zaion jakiteko irrikaz. Hipotesiak egin genituen bion artean, agian

kolesterol altuegia zuela esan nuen eta beharbada pisua jaitsi behar zuela erantzun zidan. Baina, hamar minutu itxoiten egon ostean, atea ireki zuten, aita eta ama kanpora irten ziren, biak aurpegi oso-oso tristeekin. Paule eta ni ea zer esan zien galdetzera joan ginenean, amari malkoak irten zitzaizkion begietatik. Aitak ez kezkatzeko esan zion, bizitza horrelakoa dela, batzuetan gauza onak eskaintzen dizkizula eta besteetan txarrak.

Ezin nuen gehiago, zer gertatzen zen jakin nahi nuen. Ama horrela ikustean inoiz baino urduriago jarri nintzen, bihotzak lekutik irten behar zidala sentitzen nuen.

- Zuek badakizue gauzei aurre egin behar zaiela ezta?-hasi zen aita-, ba, oraingo honetan aurre egiteko erronka berri bat jarri digu Jainkoak, ez dakit zergatik guri, ez dakit zer egin dugun gaizki, baina horrela egokitu da. Ebakuntza egitera zihoazela odola nola dudan begiratu didate, zerbait arraroa nabaritu dute eta ebakuntza-gelatik atera naute. Orain, odoleko arazoa zein den begiratzen zeudela, leuzemia dudala jakinarazi didate.

Negarrez hasi nintzen, aita besarkatu nuen, Paulek ere aita besarkatu zuen. Ama negarrez zegoen, jadanik.

Etxera bidean ez genuen ia hitzik ere egin, bakoitza gertaturikoa barneratzen zetorren, autoan irratia piztuta genekarren, musika lasaia jarrita. Etxera iristerakoan, aita eta ama beraien logelara zuzendu ziren arropak aldatzera, Paule bere logelara eta ni nirera, arropak aldatu eta logelatik irteterakoan Paule eta ni bakoitza bere gelako atea ixten aurkitu ginen eta negarra ezin eutsiz bere besoetara egin nuen salto. Bere logelan sartu ginen eta hitz egiten hasi zitzaidan:

- Badakit hau oso gogorra dela, baina, aitaren aurrean negarrez hasi beharrean animoak eman behar genizkioke, dena ondo irtengo dela esan behar genioke, ez garela inor kezkatu behar, eta bere aurrean negarrari eutsi, esperantza dugula erakutsi behar genioke.

Arrazoi zuen, negar egiten badugu indarra kenduko diogu, dena ondo irtengo dela esaten badiogu, ordez, indar gehiago emango diogu.

Hortik aurrera horixe egin nuen, aitarekin nengoen memento guztietan irribarre batekin erantzuten saiatzen nintzen eta ospitalera laguntzen nion ahal nuen guztietan. 2010eko maiatzaren 14an kimioa hartzen hasi zen, ile gabe geratu zen baina, halere, irribarre batekin jarraitzen genuen guztiok.

Egun batean, ospitalean aita gela barrura sartu eta tratamendua nola doan ikusi zioten. Amaitutakoan, Paule ama eta niregana zuzendu zen.

- Kimioa bere lana egiten ari da, tratamendua aurrera doa, baina, ez da nahikoa kimioarekin, gorputza azkarregi usteltzen daukat eta ingresatu egin beharko nautela esan didate.

- Berriz ere berri txarrak, baina zer da hau? Zergatik guri? Zergatik? Zerbait gaizki egin al dugu? - oihuka hasi nintzen. Ezin nuen neure burua kontrolatu baina, memento horretan Paulek begiratu zidan. Etxean esan zidanarekin gogoratu nintzen eta bat-batean isildu nintzen. Neure burua kontrolatzen saiatu nintzen eta lortu nuen.

Aitaren arropen bila joan ginen etxera ondoren, ekarri genizkion eta gela batean sartu gintuzten. Aita ohean etzan zen, nekez, ostean lo egin zuen. Oso nekatuta zegoen, gaixotasunak aita ahuldu egiten zuen eta nonbaiten etzaten bazen lo hartzen zuen. Ulertzekoa zen, noski.

Aitari ospitalera bisita egiten nion egunero, eskolako amaitutakoan bostetako trena hartu eta bertara joaten nintzen, han egunean zer egin zuen kontatzen zidan. Nik eskolan eta etxean nola moldatzen naizen kontatzen nion, norbaitekin zerbait gertatu bazitzaidan ere kontatzen nion, egia esanda, dena kontatzen nion. Ez zegoen sekreturik gure artean, konfiantza asko geneukan, banekien nire gauzak ez zizkiola inori kontatuko eta berarentzat gordeko zituela. Indar asko ere ematen nion eta geroz eta hobeto ikusten nuen; gutxienez oinez egiteko indarrak zituela ikusten hasi nintzen.

Arratsalde batean, berarekin hizketan nengoela, mediku bat sartu zen barrura eta tratamendua nola doan ikusteko deitu ziotela esan zigun. Gela barrura sartu zen aita, nik kanpoan itxaron nion eta ordu erdi beranduago han irten zen, belarritik belarrirainoko irribarre batekin. Hirutik batean berri onak izan behar zirela susmatzen nuen eta hala izan zen.

- Lea !! -oihukatu zuen - alta eman didaten arren, kimioa hartzen jarraitzeko esan didate. Gaixotasuna ia joan egin da eta neure onera etorriko naizela esan didate.

Pozez besarkatu eta etxera itzuli ginen autobusez. Amari, Pauleri eta amamari berri hura kontatzerakoan pozez txoratzen jarri ziren.

2012ko otsailaren 3a, etxean geundela aitari sukarraldi batek eman zion, bazkaltzen geundela ura edan ostean eztulka hasi eta lurrera erori zen, anbulantziari deitu zion amamak eta bi minututan etxean zen.

Ospitalera eraman zuten ahalik eta azkarren eta bertan, inoiz baino gaizkiago zegoela esan ziguten, berriro ere ingresatu beharko zutela.

Lehen esan dudan bezalaxe, hemen nago orain, otsailaren 5a, aita hilzorian dago, esperantza txiki bat geratzen zait oraindik, aita gizon gogorra da, gaixotasun honi aurre egingo diola pentsatu nahi dudan arren, ezin dut, ez dut leuzemiari aurre egin dion inor ezagutzen, baina beharbada aita da lehenengoa. Ez dakit zer pentsatu, burua korapilo bat eginda daukat, eta behin eta berriz etortzen zait galdera bera burura, zergatik guri?

Otsailaren 7an aita hil egin da. Atzo, goizeko hamarretan ezin zituen begiak ireki baina, arnasa hartzen zuen, organo gehienak ez zebilzkion arren,

pultsua bazuen. Gaur goizaldeko bostak eta hamazazpian, aldiz, arnasa hartzeari utzi dio, pultsu gabe geratu da eta bizitza bukatu zaio.

Negarrez nago, egun batzuk horrela igarotzeko esperantzarekin gainera, badakit hau pasatuko dela, bizitzak aurrera jarraituko duela, baina momentu honetan zer? Memento honetan horrela nago, etxeko logelan argi guztiak itzalita negar batean. Bat-batean ahizpa gelara sartu zait, berak ere begiak urtsu zituen, baina nirekin egotera etorri da, bazekien gaizki nengoela.

- Lea, gauza bat, memento onak eta txarrak daude. Hau, une oso txar horietako bat da, badakit hau guztia soberan dakizula, neska gogorra zarela eta aste batzuk barru agian ez, baina hilabete batzuen buruan, honi ere aurre egingo diozula, beraz, garai hori iristerakoan disfruta ezazu.

Amaitutakoan nire indar guztiekin besarkatu dut.

2012ko abuztuaren 29a, iritsi da unea, aitarena bizitza osoan barnean daramadan arren, bizitzaz gozatuko dut, berak eginiko gauza berberak egingo ditut, bizitza arriskatuko dut eta topera disfrutatuko dut.

Teoria txikitatik dakit, gurasoek erakutsi zidaten eta. Orain teoria hori praktikan jartzeko unea dela uste dut.



**June Otxandio Basterretxea**  
**DBH 2. maila**

*"Bihotz handi bat, gutxirekin betetzen da."*

## **ZURE AMETSEN JABE ZARA**

Zihara deituriko 13 urteko neskatxa bat naiz, eta orain dela aste batzuk, etxez aldatu nuen. Etxe berri hura, Zumarragan zegoen, eta, arinago beste familia bat bizi ohi zen bertan, Aramendiatarrak. Auzokoek, alaiak eta zintzoak zirela esan zidaten, baina egun batean haien semea, Mikel, bere gurasoekin haserretu zen:

- *Zer uste duzu? Bizitza hau joko bat dela? Ez zaizu ezer axola-* esan zion aitak Mikeli.

- *Nik amets bat dut, margolaria izan nahi dut eta nire helmugara iritsiko naiz inongo arazorik gabe, entzun? Zuk nahi duzuna da zure karrera berdina egitea, gustuko duzulako zure lana. Baina nik ez.*- esan zuen Mikelek tonu txarrean.

- *Egon zaitetz isilik! Ez duzu ideiarik ere. Zelako arazoak ekartzen dizkidazun! Zerbaitengatik barre egiten dizute ikastolan-* hura esanez zaplastako bat eman zion semeari, gero damu aurpegia jarriz.

Mikel bere logelara bueltatu zen korrika batean, ezin zuen gehiago. Inork ez zuela maite, inork ez ziola laguntzen, denak bere aurka zeudela... sentitzen zuen. Egun hartan, bere buruari galdetu zion zergatik zegoen oraindik bizitza horretan, horregatik, komunera joan zen eta armairu guztiak miatu zituen behar zuenarekin topo egin arte. Baten baino gehiagotan pentsatu zuen bere buruz beste egitea, baina inoiz ez zen ausartu pilula hura irensten eta egin beharrekoa egiten uzten. Momentu horretan, bi aldiz pentsatu gabe pilula sartu zuen, baina arinago orri batean esaldi hau idatzi zuen: "Amestu dezagun, gu garela gure pentsamenduen jabe esaten dute, baina ni puntu honetara iritsi naiz ..." 15 minutu pasatu ondoren, Mikelek betiko hartu zuen atsedena. Hain izan zen

gurasoen pena, etxea saldu zutela eta beste herri batera joan zirela bizi berri bat hasteko. Hortik aurrera, ez zen gehiago jakin Aramendiarrei buruz.

Istorio hura entzun ondoren, hotzikara batek nire gorputz osoa astindu zuen. Bizilekua aldatu genuen egun berdinean, etxe guztia aztertu nuen goitik behera, oso zabala zen, baina zaharra ere bai. Ustekabean, hots batzuk entzuten hasi nintzen, baina ez zen ulertzen esaten zutena. Minutu batzuk pasatu ondoren hotsak desagertu egin ziren eta nire irudimena zela pentsatu nuen, gau hartan ez nuen lo askorik egin-eta.

Hurrengo egunean, Amaia nire 8 urteko ahizparekin joan nintzen buelta bat ematera herritik. Nahiko polita zen, pentsatu nuena baino politagoa eta gainera jendea oso atsegina zen. Bi lagun egin nituen: Agate eta Ager nebarrebak. Haien artean ez ziren oso ondo konpontzen baina, elkar maite zutela nabaria zen.

- *Bihar goizean animatuko zinateke mendi martxa bat egitera?*- esan zidan Agerrek. Amaiak mutilaren hitzak entzuterakoan aingeru aurpegia jarri zidan, eta hau erantzun nion:

- *Amaia zu ezin izango zara etorri, laztana, baina arratsaldean zerbait egingo dugu biok batera. Beno ... orduan ze orduan ikusiko dugu elkar bihar goizean?*

- *9:30ean Agate eta biok zure etxe aurrean izango gara.*- esan zidan Agerrek keinu atsegin bat eginez.



Etixerako bidea hartu nuen biharamunerako behar nuena prestatzeko. Oso pozik nengoen, lagun berriak egin nituen bigarren egunean! Etxeko atea ireki nuenean, itzal arin bat ikusi nuen, eta ez zegoen inor etxean. Amak ohar bat utzi zuen mahai gainean, aita eta bera herria ezagutzen joan zirela eta berandu helduko zirela jarriz. Amaiak itzala ikusi zuenean, asko beldurtu zen:

- *Mikelen arima mamu bihurtu dela uste dut, eta bere etxea inbaditu dugulako zerbait nahi du, izututa nago Zihara ...* - esan zidan ahizpak beldurturik.

- *Egon zaitetz lasai, ez da ezer gertatuko, mamuak ez dira existitzen* - esan nion irribarre batekin. Amaiak imajinazio asko zuen, gehiegi, eta batzuetan, ondorio txarrak ekartzen zizkion. Baina une horretan, berak esandakoak zerbait berezia zuela uste nuen. Esaten zituen gauzak ez zituen tonu hain beldurgarrian esaten, batzuetan ez zituen esandako hitzak sinesten, baina, nik ere errealismo apurtxo bat ikusi nuen bere hitzetan.

Gertatutakoari paso egin nion eta afarria prestatu nuen. Ez zegoen janari askorik hozkailuan, baina urdaiazpiko bokadiloak egitea lortu nuen. Jan ondoren, segidan joan ginen ohera. Logelan sartzerakoan, nire ohe gainean koaderno bat zegoela ikusi nuen, marrazketako koaderno bat zen, eta zaharkiturik zegoen. Nire eskuetan hartu nuen ikara apur batez eta ireki

nuenean dena marrazkiz osaturik zegoela ikus zitekeen. Marrazkiak liluragarriak eta bikainak ziren, tristura adierazten zuten irudiek eta haietako baten, Mikel Aramendiaren izena idatzirik zegoen. Amaiak esandakoa hausnartu nuen eta arrazoi guztia zuela pentsatu nuen: Mikelek zerbait nahi zuen.

Hurrengo goizean, euria egiten hasi zenez, ezin izan ginen mendira joan, eta bi neba-arrebei deitu nien etxera etortzeko hitz egitera eta egoitza miatzera. Baina, bat batean, argia joan zen eta unada batean egon ginen ezer ikusi gabe. Argia bueltatu zenean, horman, gorri koloreko klariona batekin esaldi bat idatzita zegoela ikusi genuen *"zurekin hitz egin beharra daukat"* jartzen zuen. Gorantz markatzen zuen seinale bat zuen. Gora igo nintzen, baina ez zegoen inor; seinale bat eginda zeukan ate batetik sartu nintzen, mahai gainean orri bat eta bolaluma bat zeuden. Bolaluma bakarrik idazten hasi zen, *"Kaixo, ez beldurtu, Mikelen arima naiz, baina ez zaitut zaurituko. Nire helburua gizaki askori eragitea izan da, baina eragin ona, horretarako zure laguntza behar dut. Zuk nire istorioaren berri jakin duzu orain dela gutxi, eta badakit, ikaratuta zaudela, etxe honetan dena kontrolatzen baitut. Beno, gauza da, nik nire ametsaren bidea ebaki nuela besteen eraginez, bizitza gogorra izan ohi nuen, egia esan, ez nengoen oso ondo burutik, edozein esaldik min handia ematen zidan, eta ikastolan, etxean ... esaten zidatena gehiegi zen niretzat. Horregatik, mezu bat dut oraingokoentzat eta gerokoentzat: ez utzi inori zure ametsak lapurtzen. Hauen katea jarraitu behar duzu bukatu arte, izan ere ametsak bizitzak dituen gauzarik politenetarikoak dira. Helburuak badituzu segi haiekin topo egin arte, eta mesedez, egin kasu zuen bihotzari, beti hor egongo den bakarra izango da- eta ..."*

Hura irakurtzerakoan malko bat nire aurpegitik bide bat egiten zihoala igarri nuen, eta bolalumak idazten jarraitu zuen *"Esan dudana zabaldu egin behar duzu, bestela etxe honetan jarraitu beharko dut ezkutuan. Nire helburua lortzekotan, zerura joango naiz lasai, eskerrak eman ez. Agur bero bat."* Irakurketa amaitzerakoan, orria eramanez nuen eskaileran behera, eta nire bi lagunei erakutsi nien Mikelen arimak idatzitakoa.

Hirurok elkarrekin mezua zabaltzen hasi ginen. Herrikoak lehenak izan ziren istorioaren berri izaten: batzuek ez zuten sinetsi, beste batzuek lilura aurpegia jartzen zuten mezua irakurtzerakoan, eta hainbatek ez zuten ezer esaten, baina nik uste dut mezua denon bihotzetara heldu zela arazo gabe, bide garbi batetik.

Mezua zabaltzen eta zabaltzen hasi zen herrialde guztitik eta telebistan agertu zen. Nire gurasoek errieta egin zidaten ezer ez kontatzeagatik, baina haien begiradan poztasun sentimendua aurkitzen nuen, hitz bakoitza esaten zuten bitartean. Berba egiten bukatu zutenean, besarkada bat eman nien indar guztiekin eta Amaia ere sartu zen multzoan. Urte horretan, bizitzako une bakoitza gozatu behar zela pentsatu nuen, pertsona askok (Mikel bezalakoek), ez dute maite haien burua eta bizitzak ematen digun minutu bakoitza urte gorria izango balitz bezala hartu beharko genuela uste dut, batzuetan gaizki pasatu arren.



**Lander Rodríguez Eguren**  
**DBH 2 maila**

*"Lagunekin nagoenean, futbolera jolastea gustatzen zait!"*

## **AUPA ZUGATIK EDURNE**

Bazen behin Edurne Garcia izeneko neskatxa bat. Hamahiru baino ez zituen. Euskalduna zen, bere aita erdalduna izan arren. Edurne oso neska jatorra zen, alaia, eskuzabala... baina Edurne ez zen bestelakoak bezala, ezberdina zen; edozein kirol gustatzen zitzaion: futbola, tenisa, saskibaloia, hockey-a... baina gehien gustatzen zitzaion kirola, autoak gidatzea zen. Sekretuan gorde zuen, ez zion inori ezer esan, bere osabari izan ezik; harekin entrenatzen baitzuen. Edurneren osaba, auto gidari aparta zen. Lasterketa asko irabazi zituen, eta Munduko txapeldun izan zen bere garaian. Edurneren osabak autoekin entrenatzeko pista bat zuen, auto mordoarekin. Edurne bertara joaten zen asteburuetan isiltasunean inor ohartu gabe. Oso ondo ematen zitzaion Formula 1eko autoekin lastertzea. Egun batean bere osabak galdera garrantzitsu bat egin zion:

- Edurne, begira galdera bat egingo dizut: Zuk zer gura duzu izan nagusitan?

- Ba nik... -erantzun zion Edurnek.

- Zer? Zer? -osabak.

- Zera, auto gidari aparta, zeu izan zinen bezala. -erantzun.

- Bai! Ederto nik entrenatuko zaitut hobe izateko -berriro ere osabak.

- Benetan osaba! Eskerrik asko, maite zaitut! -erantzun zion Edurnek.



Hurrengo goizean Edurne oso pozik zebilen, eta eskolara heltzerakoan haren lagunei galdetu zien ea zer izan nahi zuten, eta hau erantzun zioten: batak, mediku izan nahi zuela; besteak, futbolari; hirugarrenak, suhiltzaile... eta azkenik Edurnek esan zuen Formula 1eko gidaria izan nahi zuela. Lagun guztiak harrituta geratu ziren, eta horietako batek esan zuen:

- Zuuu... neska zara eta kirol hori mutilena baino ez da eta!
- Beno eta... neska batek ezin du parte hartu ala? -erantzun Edurnek.

Lagun guztiak isilik geratu ziren momentu batez... eta bat-batean klasera sartzeko txirrinak jo zuen. Edurne pixka batt kezkatuta zegoen lagunek esan ziotenagatik, beraz, bere osabari esatea bururatu zitzaion. Hurrengo goizean osabarengana joan zen eta gertatutakoa esan zion. Bere osabak ez kezkatzeko esan zion Edurneri, hori ez zela arazo bat izango.

Denboratxo bat igaro eta gero, Edurne lasterketan hasi zen parte hartzen eta beti gelditzen zen lehen hiruren artean. Neska bakarra zen baina berari bost, eta oso ondo pasatzen zuen. Hauxe esan zioten:

- Zergatik ez diguzu ezer esan?
- Ez dakit, pentsatzen nuen haserretu egingo zinetela jakiten bazenuten.
- Denbora guzti honetan egon zara hau ezkututzen?
- Bai. -Erantzun zuen Edurnek.
- Eta zergatik nahi duzu kirol hau? Neska bakarra zara, gainera mutilentzako kirola da.
- Begira niri kirol hau gustatzen zait, eta bost axola neska bakarra banaiz, eta kirol hau zergatik ezin da izan neskena ere? Ez badugu aurre egiten, ez dugu ezberdintasun hau gaudituko -erantzun Edurnek amorruez.
- Alaba sentitzen dugu baina ez duzu kirol hori gehiagotan egingo -erantzun zioten gurasoek.

Edurne haserretuta sartu zen bere logelan negarrari eutsi ezinik. Hurrengo goizean bere osabari deitu zion gertatutakoa azaltzeko, orduan bere osabak bere gurasoei:

- Etor zaitzete asteburu batean Edurne ikustera, eta ikusi ondoren, zeuk ikusi zer egin.
- Beno ba... ikusiko dugu.

Asteburua heldu zenean Edurne pozik zegoen, bere gurasoak bertan ikusteaz, lasterketa hasi zenean Edurne lekuak irabazten joan



zen eta azkenean garaipena lortu zuen. Bere gurasoak poz-pezik jarri ziren haien alaba hain pozik ikustean.

Etxera heldu zirenean gurasoak eta Edurnek serioki hitz egin zuten.

- Edurne, zeuri kirol hau gustatzen zaizu? -galdetu zioten gurasoek.

- Bai, noski baietz -erantzun Edurnek segurtasun osoarekin.

- Beno... ba... amak eta biok ondo pentsatu ondoren, onartu dugu eta barkamena eskatu nahi dizugu -gurasoak errukiz.

Edurne gero eta hobea egin zen formula 1ean eta esfortzu eta gogo askorekin munduko lehen neska izan zen.

Espero dut ipuin honekin, neskok, zuek bultzatzea nahi duzuen egitera eta ez izatea beldurrik ezeri. Nahiz eta gizarteak kontrakoa esan eta, ondorioz, neskek lan gehiago egin behar berdinean izatera heltzeko, ni eta mutil asko zuon alde gaude denok berdinean izan gaitzen. AUPA NESKAK LORTUKO DUGU ETA!!!



**Nerea Lejarzegi Zuzeta**

**DBH 2. maila**

## **DENBORA**

Mundua biraka dabil bere erritmora eta bizitza ere berarekin batera doa. Guk Denbora deritzon zerbait asmatu dugu bira guzti horiek kontrolatzeko. Segunduak, minutuak, orduak.... izenarekin ezagutzen ditugunen bitartez eta horrela denbora menperatzeko gai garela uste dugu. Baina mundua, bere airera doa eta gu honekin batera, denbora baita gu kontrolatzen gaituena. Jaio egiten gara, deborarekin gazteak egiten gara, eta dena dakigula uste dugu, gure gurasoen gainetik ere sarritan jartzen gara haien izen ona mespretxatzen, azkarrak garela, ederrak garela edota jakintsuak garela, uste dugu..... baina ez da horrela, izan ere ergelak, ezjakinak, tentel hutsak gara. Besteen premia dugu eta ez gara konturatzen, itsuen antzera jokatzeko dugula batez ere adin konkretu batzuetan.

Horregatik gertatzen zaizkigu gertatzen zaizkigunak, hanka barrura arte sartu eta kostata ateratzea lortzen dugunean, hurrengo putzuan oraindik barrurago

sartzen dugu eta horrela jarraitzen dugu behin eta berriro. Batzuetan lagunak direla, besteetan ikasketetako emaitzak direla, gurasoekiko harremana ere tartean izaten da... Hala ere beti altxatzeko kemena eta indarra batzen da. Egunero, eguna jaiotzen den moduan gure animoak ere egun berriarekin esnatzen dira eta horrek aurrera egiteko indarra ematen digu.

Nire amonak zorientasuna aurkitzeko esperantzak inoiz galdu ezin direla errepikatzen dit ia egunero. Eta nik amonarengan oso konfiantza handia dudanez, kasu egin izan diot beti, kasu egiten diot beti, eta aurrerantzean ere horrela izango delakoan nago.

Baina nik oraindik ez dut benetako ZORIONTASUN izeneko sentsazio famatu hori usaindu ere egin nire bizitzako urte labur hauetan. Honengatik ez bada bestearengatik da eta beste horrengatik ez bada hagatik, beti dago triste sentiarazten nauen zerbait, txarto sentiarazten nauen zerbait, errudun sentiarazten nauen zerbait, damutzen nauen zerbait ....

Denbora; aurrera egiten duena eta inoiz ez atzera. Denborak dena osatzen duela diote batzuek, nik nire zalantzak ditut. Momentu horietan nire logelan sartu eta gauzak ikusten ematen dut denbora. Argazki albumak txikitan egindako iruditxoak ... Gaur ere horrela sentitu ostean nire logelan sartu eta kuxkuxeatzen nabilela nire txikitako egunerokoa aurkitu dut. Honelaxe hasten da:

## Abenduak 7

*Kaixo eguneroko maitea, Miren naiz eta zortzi urte ditut. Gaur amatxorekin joan naiz Eroskira eta zu ikustean zurekin maitemindu naiz eta amak zu erostea baino ez du beste erremediorik izan. Oso pozik nago zurekin hemen nire penstamenduak idatzi ahal izango ditudalako. Badakit oraindik letra oso txarra dudala baina **denborarekin** hobetuko da ikusiko duzu.*

Denborarekin dena hobetzen da ala? Hori pentsatzen da behintzat. Orain ohartu naiz ez dela horrela. Honela jarraitzen du:

## Abenduak 22

*Egunak dira idazten ez dudala eguneroko maitea. Oso lanpetuta ibili gara ikastolan biderketak eta zatiketak ikasten baita nire letra hobetzen ere! Horrela politagoa izango zara. Beste egunean nire andereñoak handitan zer izan nahi dudan galdetu zidan. Ez nekien zer erantzun baina bat batean saski baloi jokalaria izan nahi nuela etorri zitzaidan burura. Kirola oso gustuko dut eta lagun guztiek esaten didate ona naizela kirolean, besteak baino hobeagoa!*

Kirolean ona izate hori urte gutxi batzuren buruan bukatu zait, DBHko 1.mailan nagoela, gorputza garatzen hasi eta akabo kirolaria izatearen ametsak. Berdin berdin ere ezin izango nuen txikitan hain gustuko nuen kirolean parte hartu, nik ahaleginak egin arren nire hankek eta gorputzak ez baitzuten erantzungo.

Egunerokoa aurkitzeak ilusio handia egin dit eta jarraitzea erabaki dut, eta hemen nago nire pena guztiak liburuzka txiki honetan idazten. Lagunen arteko harremanen berri ematen ikasketetan ditudan gorabeherak idazten... Egunerokoa idazteak lasaitu egiten nau. Eta era berean egunero gertatzen diren gauzetaz hausnarketa egiteko parada izaten dut.

Denbora: agertuz eta desagertuz, izanez eta ez izanez aldatzen diren gauzen iraupena da.

Gaztelerazko esaerak dioen bezala "*denbora urrea da*", eta ez dela alperrik galdu behar tontakerietan, denborak indar handia du eta guk alderantziz dela pentsatu arren berak gu kontrolatzen gaitu.

Gure mundu zoragarri hau denboraren menpe dago. Zer dira orduan trenen, autobusen, taxien, hegazkinen, ikastolaren, institutuaren, lanaren, eta abarren ordutegiak ba? Ordu, minutu eta segundu ordenatuak besterik ez, eta guri iruditu ez arren oso garrantzitsu eta "arriskutsuak" dira. Bizitzako tarte guztiek, denek balio dute.

Denborarekin, kontuz!!





**Maria Amezaga Velez**  
**DBH 3. maila**

*"Dantza egitea eta irakurtzea dut gustuko"*

## **EGURREZKO KAXA**

Anne Zabala, honela deitzen naiz. Oraintxe bertan, egurrezko kaxa batean sartuta nago. Nahiko eroso da barrutik. Pentsatuko duzue ea nola heldu naizen hona. Dena hasi zen urte bat eta erdi inguru...

- Anne! Jaiki! Klaseko lehen eguna!
- Banoa, ama!

Iupi... Klaseko lehen eguna... Gainera institutu berri batean... Ama eta ni Gernikatik Eibarrera joan ginen bizitzera, eta hor ez nuen lagunik ezta ezagunik. Zerotik hasi beharra nuen.

Ohetik altxatu nintzen eta gosaldu eta jantzi ostean, institutura abiatu nintzen. Orientatzaileak nire gela 3B zela esan zidan eta buru makur, bertara sartu nintzen. Gelako atzealdeko mahai batean eseri nintzen eta segituan lau neska hurbildu zitzaizkidan. Aurkeztu egin ziren eta nik berdina egin nuen. Lehenengo minututik gustuko nituen eta antza denez, ni ere eurek, telefonozenbakia eskatu zidaten eta.

- Listo! "WhatsApp"-eko taldea eginda!- esan zuen Leirek, nire lagun berriak.

Pozik geratu nintzen elkarrizketa hori eta gero, lehenengo egunetik jende atsegina ezagutzen nuelako. Asteburu horretan eurekin irten nintzen eta denbora pasa ahala, lagun onak egin ginen.

Tontoka tontoka, Gabonak heldu ziren eta klaseko azken egunean udal igerilekura joatea erabaki genuen, oporrak hasten zirela ospatzeko. Aldageletan geundela, lagunak euren gorputzei buruz hizketan hasi ziren.

- Neskak, aurtengo Gabonetan ez dut ezer jango! Begira nire sabela!- esan zuen Amaiak.
- Berdina diot! Ikusi duzue nire sabela?!- Nekanek.

Zer?! Euren gorputzez kexatzen ari ziren? Airea bezain arinak ziren eta! Momentu hartan, nire gorputza eurenarekin konparatu nuen eta desberdintasun asko ikusi nituen: sabel handiagoa, izter bikoitzak... Nire Gernikako lagunak neure moduko gorputza zuten gutxi gorabehera eta horregatik ez nuen inoiz konplexurik izan. Baina orain... Eibarreko lagunekin konparatuta... kilo batzuk kentzea ez zela gaizki egongo pentsatu nuen. Nik bai ez nuela ezer jango Gabonetan!

Iluntzean, dietak eta kirol-planak bilatzen hasi nintzen. Bakoitzetik, nahiko egokia zen bat aurkitu nuen eta gau horretan bertan hasi nintzen dietarekin.

- Ama, hemendik aurrera ekarri gutxiago afaltzeko mesedez, eta janari sanoa erosi- esan nion amari.
- Zergatik, Anne?
- Apur bat argaldu nahi dut, besterik ez.
- Laztana, nik oso ondo ikusten zaitut- esan zidan amak.
- Ez, zenbait kilo gutxiago izatea ondo etorriko zait.
- Beno, baina pare bat besterik ez, e?

Gabon bueltarako, dieta eta kirolari esker, bi kilo argaltzea lortu nuen eta nahiko pozik nengoen. Horregatik sartu nintzen irribarre batekin gelara lehenengo egunean.

- Zer Anne, norbaitekin ligatu duzu ala beste mirariren bat gertatu da?- galdetu zidan ironikoki Gorkak, klaseko mutil nekagarrienak.
- Ergel hutsa zara Gorka!- esan nion haserre.
- Isildu zaitez, lodi hori!

Hitz horiek min asko egin zidaten. Ez nuen argaldu ote? Oraindik lodi ikusten zitzaidan? Egun osoa burumakur igaro nuen eta Leirek nabaritu egin zuen.


- Anne, ez zara horrela egongo Gorkak esan duenagatik, ezta? Benetan, itzel zaude. Badaki argaldu nahi duzula eta min egiteko esan du.
- Esan badu zerbaitegatik da, Leire.
- Anne, mesedez...



Banekien Leirek esaten zidana gezurra zela, Gorkak zerbaitegatik esango zuen. Honek soluzio bakarra zeukan: janari gutxiago eta kirol gehiago. Honela lortuko nuen. Gorputz argala izango nuen.

Sei hilabete pasatu ostean, ez nuen aldaketarik nabaritzen. Nire baskulak, aldiz, hamabi kilo gehiago argaldu nintzela jartzen zuen. Zergatik ez nintzen argal ikusten? Gutxiago jan ote behar nuen? Nire amak ez zuen horrela pentsatzen.

- Anne, zurekin hitz egin behar dut.
- Zer, ama?
- Larregi argaldu zara eta oso kezkatuta nago. Ez da anorexia edo antzeko zerbait izango, ezta? Mesedez, esan ezetz...



Anorexia. Askotan entzunda nuen hitza. Buruko gaixotasun bat: argal egon eta lodi ikustea. Ez nuen inoiz pentsatuko anorexia duten pertsonetariko bat izango nintzenik, baina ba ote nintzen? Anorexia nuen? Ez, ez, hori ezinezkoa zen. Ez nuen gaixotasunik. Argaldu nahi zuen pertsona bat nintzen. Besterik ez.

Hiru hilabete geroago, gela zuri batean jaiki nintzen, oso zorabiatuta. Non nengoen? Alboetara begiratu eta jakin nuen: ospitalea zen. Momentu hartan nire ama sartu zen atetik.

- Ama, zertan ari naiz hemen?- galdetu nion.
- Bart gauean zorabiatu egin zinen, ia konortea galdu zenuen. Eta dena energia faltagatik. Ez duzu ezer jaten eta hezurretan zaude. Gogoratzen al duzu ospitalera heltzean galdera batzuk egin zizkizutela?
- Ez.
- Beno, ba galdera batzuk erantzun zenituen eta probak egin ostean, medikuek anorexia duzula esan didate.
- Zer?!- galdetu nion harrিতuta. - Ez, ni ez nago gaixo!
- Laztana, sintoma guztiak dituzu eta esan bezala, probak egin zizkizuten. Ospitaleratu egingo zaituzte.
- Ez, ama! Ez naiz hemen geratuko!

Arratsalde osoa igaro nuen ospitaletik irteten saiatzen, baina ezinezkoa zen. Egunak pasa ahala, hor geratu behar nintzela onartzen nindoan.

Sei hilabete pasatu nituen ospitalean, dieta zorrotz batekin. 15kg loditu nintzen eta 50kg pisatzen nuen. Nire lagun berriei eta familiari esker lortu nuen

dena. Pozik nengoen, denboraldi oso gogor baten ostean nire bizitza normalera bueltatzen nintzelako.

Urte bat geroago, giroa berriro bete zen tristuraz, hamabi hilabete arinago gaingitu nuen anorexiak berriro harrapatzen ninduela ikustean, nire buruak neure gorputza berriro gorrotatzen zuela nabaritzean, nire bizitzako etapa onenatariko bat izan behar zenean joan nintzela ikustean, nire amak nire gorpua egurrezko kaxa honetan sartzen zutela ikustean. Bai, oraintxe bertan nagoen kaxa. Barrutik eroso dena. Kontatu berri dizuedan istorioak ekarri dit bertara. Egurrezko kaxa honetara.



**Gaduk Alexander Yang**  
**DBH 3. maila**

## **ALTXOR SUSMAGARRIA**

Eguzki-argiak izugarrizko indarrarekin leihoa zeharkatzen zuen mutikoaren begiekin topo eginez. Bere begietako diamanteek hori jasanik, begiak zabaldu eta gosaria jatera abiatu zen. Lehioak dirdil egin zuten disdirarengatik, baina, ilundu egin ziren haien aurrean zabaltzen zen Colombiako herri kaxkarragatik. Kolorerik gabeko etxe zikinak, umeak arropa itsusiekin jolasten eta urrunago herriko merkatua ikusten ziren. Txorien kantuak ere entzuten ziren. Alex bere eginbeharrak amaituta, eserleku zaharrean eserita liburu zikin bati erreparatzen hasi zen. XV. mendekoa zirudien, irudiz eta latinezko letraz beteta zeuden haren orriak. Aitaren aurkikuntzen irudiak zeuden. Aitaren liburua zen. Gainera lekuen eta objektuen ezaugarriak idatzita zeuden. Desagertu zen unean bilatzen zegoen altxorra ere aipatzen zen.

Bere aitaren heriotza ezin izan zuen onartu. Bere objektuak Panamako etxe txiki batean aurkitu zituzten, baina, bere gorputza ez. Duela urte bat aldarrikatu zuten bere desagerpena, hile bat igarota ez zelako kanpamendura bueltatu. Baina egia al zen? Nora joan zen? Haren jakinminak bultzatuta museora abiatu zen, izan ere, bertan bere aitaren objektu bat zegoen. Egun hartan, dohainekoa zen sarrera eta une egokiena zen eraztuna lapurtzeko. Eraztun hura bere aitarena zen, baina, Alexek bere aitak liburuan aipatzen zuen altxorra aurkitzeko behar zuen. Altxorra Cristobal Colonena zen eta Panamako irla batzuetan zegoen ezkutatuta. Momentu horretan benetako abentura hasi zen.

Eskailerak igo eta bi zaintzaile ikusi zituen. Berehala eraztunaren argitasuna ikusi zuen, Alexi laguntza eskatzen ibiliko balitz bezala. Lehenengo, zaintzaile bati giltza lapurtu behar zion, atzeko poltsikoan zuen eta "kaixo" esanik eskua poltsikoan sartu eta giltza hartu zuen. Aurrera joan ahala,

eraztuna ikusi eta isilka giltza sartu eta eraztuna hartu zuen. Zaintzailea kanpora begira erretzen hasi zen. Ez zen korrikan hasi eta zaintzaleari agur esanik bere etxera abiatu zen. Etxean bere bazkaria jan, motxila prestatu, ondo jantzi eta erosi berri zuen hegazkinaren tiketarekin aireportura joan zen.

Panamako klimak ez zuen etxeakoarekin ezberdintasun handirik. Panama Colombia bezain polita zen. Urte bat bertan pasatzea erabaki zuen herrialdea ezagutzeko eta altxorra aurkitzeko. Jendea ezagutzen hasi zen, kontaktuak izateko eta behar zituen materialak erraz izateko. Urte bat geroago, Panama bere eskua bezain ezaguna zitzaionean, Colombiara bueltatzea erabaki zuen. Bere helburuak lortzeko bezain nagusi eta diruduna bilakatu nahian beste zenbait urte igaro zituen.

Zorionez, diru nahiko izan zuen altxorra aurkitzeko eta talde bat osatzeko. Taldea Galder informatikariak, Aitorrek edozein motatako garraio gidatzen zituena eta Unaik bala batekin ia- ia ehun aurkari hiltzen zituena, osatzen zuten. Behin, telebistan arkeologo batzuek Alexek museotik lapurtutako eraztuna aurkitu zutela esan zuten. Baina eraztuna ez zuten haiek aurkitu, baizik eta Alexen aitak. Alexek gizon haiek bere aitaren heriotzarekin lotura zutela suposatu zuen. Halaber, eraztun hura Alexen eskuetan zegoen eta gainera, ez ziruditen arkeologoak baizik eta mafia batekoak.

Panamako jungla batean zeuden Jeep batean eta zelan ez Aitorrek gidatzen zuen:

- Nora goaz?-galdetu zuen Unaik.
- 14 urterekin ezagutu nuen arkeologo batengana goaz; altxorra non dagoen esango digu eta baso honetako mapa emango digu -erantzun zuen Alexek.
- Urrun al dago?
- Ez baina bide honetatik jarritzen badugu arkeologoak bere etxebizitza aurkituko genuela esan zidan.

Aitorrek musika topera jarri zuen eta ia Euskaditik ere entzun ahal zen. Bidean txori ugari ikusi zituzten baina batez ere, intsektu ugari. Hori Galderrentzat arazoa zen, izan ere, alergiaz zieten.

Atea ireki eta bertan zegoen arkeologoa. Esperientzia zuen lan horretan eta baso hura ondo ezagutzen zuen. Alexek telebistan ikusitako "mafia"-ri buruz hitz egin zion. Bere ustez, talde arriskutsu bat zen. Azkenean, kafe bat hartu eta arkeologoaren aholkuak jarraituz, altxorrerantz abiatu ziren laurak.

Mapa eskuan hartuta, oihanetik oinez hasi ziren. Ate batekin aurkitu ziren. Handia eta belarrez beterik zegoen. Zaharra zirudien, "Torre Eiffel"-en antzeko altuera zuen eta ia-ia zerua ikutzen zuen. Lapurtutako eraztuna sartu behar zuen atean, bere aitaren liburuaren arabera, baina, bere lagunak eta berak ez zuten aurkitzen zuloa. Bat-batean Galderrek atearen adreilu bat sakatu zuen eta zulo bat agertu zen eta bertan sartu zuen giltza Alexek. Altxorraren aurkikuntza zailtasunez hasi zuten. Une horretan belar eta loreen artean beltzez jantzitako gizon bat zelatan zegoen.

Zenbait metro abiatuta horma bat aurkitu zuten. Baina, orain ez zuen ate baten antza, baizik eta horma arrunt bat zen:

- Eta orain zer? Nik ez dut deus ikusten.-galdetu zuen Unaik zer egin ez zekiela.

- Itxaron pixka bat, non gauden begiratuko dut -erantzun zuen Galderrek mapa hartuta.

- Hemen zer edo zer egon behar da ate hau irekitzeko edota beste bide bat aurkitu behar dugu -esan zuen Alexek.

- Alex! Hemen latinezko letrak daude! -Aitorrek.

- Aitaren liburuan aurkituko dut. Hmm... bai, hemen idatzita dago liburuan. Honek esan nahi du ezin dugula hau ireki.

- Orduan zer egingo dugu? -galdetu zuen berriz ere Unaiek.

- Basoan zehar ibiltzea baino ez dugu.

Bidea beldurgarria, naturala, iluna, berdea, zaratatsua... zen. Galder pazientzia galtzen hasi zen baina, bidearen amaieran argia ikusi zuenean arrapaladan joan zen eta ordenagailua erabilia kobazulo baten atearen goialdean zegoen irudia bilatzen hasi zen. Maya baten aurpegia zen albo batera begira. Alex bere liburuan arrastoren bat bilatzen hasi zen eta:

- Ez dakit sartu ahal garen, baina, hau ez da nire aitaren liburuan agertzen -esan zuen Alexek.

- Ordenagailuan ere ez -aipatu zuen Galderrek.

- Ni sartu egingo naiz -esan zuen Alexek.

Horrela, denak sartu ziren kobazulo horretan. Ilun-iluna zen eta saguzaharrez beterik zegoen. Zenbait minutu igarotzean gizon bat ikusi zuten urrunetik. Linterna bat zeraman eta nekatuta zegoela zirudien. Alex korrika beregana joan zen:

- Kaixo, ni Alex naiz zertan zabilta hemen?

Gizonak aurpegia mugitu eta Alexi erreparatu zion:

- Alex? Colombiakoa al zara? -galdetu zuen gizonak.

- Bai, zergatik?

- Hori nire liburua da! -esan zuen gizonak Alexek eskuen artean zuen liburuari erreparatuta.

- Nire aita zara?

- Bai!

Azkenean biak berriro aurkitu ziren. Bere aitak benetako eraztuna berak zuela esan zuen eta mutikoak zuen eraztuna ez zela baliagarria altxorra aurkitzeko. Bidean zehar hizketan ari ziren. Bere aitak kontatu zion, altxorra aurkitzea erabaki zuela dirua lortzeko, baina, arkeologoak ez zien maparik eman, orduan, galdu egin zen eta oihan horretan bizitzen ari zen.

Kobazulo hartako amaierara heldu zirenean bi eskultura handi ikusi zituzten. Antzinako mayen eskultura ziruditen eta ezpatak zeramaten eskuetan. Gela bat zirudien eta dena urrez eginda zegoen. Gero, urez inguratutako bide batetik igaro ziren eta horma handi batera heldu ziren. Latinez idatzita zegoen baina bat-batean ahots bat entzun zen:

- Zer zabilzate hemen? -galdetu zuen gizon batek.

- Nortzuk zarete -beste batek.
- Altxorraren bila etorri gara -esan zuen Alexek.
- Hori geurea da!
- Ez da! -esan zuen aitak. Bera bitartean latinez idatzitako esaldien esanahia aurkitzen hasi zen liburua erabiliz.
- Eman eraztuna eta ospa!
- Ezta pentsatu ere!

Mafiakoak jantzi beltz batekin zeuden gorbata eta guzti. Ez zuten armarik baina buruzagiak pistola bat zuen. Aurpegian nabaritzen zen "oso pozik" zeudela.

Aita zurrumurruka hasi zitzaion eta Unairi tiro egiteko esan zion. Unai entzundakoari kasurik egin gabe adreilu bati jo eta puf! horma handia jausi zen beraien muturren aurrean. Hau da, banatuta zeuden bi taldeak. Korrika hasi ziren lehengo bidetik eta kanpora joateko beste bide bat aurkitu zuten. Azkenean, irten egin ziren.

- Eta altxorra?!- esan zuen Galderrek.
- Altxorra ez da benetakoa. Colonek ez zuen altxorrik gorde irla honetan. Horma-irudi zahar horretan esaten zuen altxorra hori irakurtzea zela. Hots, egin dugun esfortzua. Lortu zuen altxorra gastatu egin zuen, baina, erregeari eta erreginari ezer esan gabe.
- Zelako pena!- esan zuen haserretuta Aitorrek.

Azkenean, ez zuten ezer lortu, baina, pozik egon ziren abenturarengatik. Eta mafiakoak? Ez zen ezer jakin egun hartatik. Alexek bere altxorrik baliotsuena aurkitu zuen, bere aita.



**Maddi Gerrikabeitia Uribarri**

**DBH 3**

*"Ezina, ekinez egina"*

## **ZER EGINGO DUT? HIL ARTE BIZI**

- *Asko daki zaharrak, erakutsi beharrak* -erran dit amonak.

Amonak munduan dauden esaera guztiak dakizki, eta nahiz eta zuk pentsatu ez dakien esaera bat esan duzula, beti nirekin batera amaitzen du esaera bera esanez.

- *Amona, nola dakizkizu esaera guztiak eta bakoitzaren esanahia?* -bost urte nituela galdetu nion lehengo aldiz, oraindik nahi gabe galdetzen dut. Ez naiz kontziente izaten galdetzen dudak bakoitzean.

Amona asko maite dut eta nire bigarren ama bezalakoa da. Beti josten dizkit jantziak, eta ba al dakizue zer? Bere garaian Sophia Lorenen diseinatzailea izan zen. Amonak esan zidan beti abesten duela josten duen bitartean, bestela oso gaizki eta motz josten du, eta nire amonak esaten duen bezala *"nahi bada jan, egin behar da lan"*.

Sophiari asko gustatzen zitzaion amonak abestea, lasaitu egiten zuen, eta askoz hobeto antzezten zuen. Amonak gauza asko kontatzen dizkit, eta kontatu zidan Sophiak oso ondo tratatzen zuela, eta ez zela beste ospetsuak bezalakoa: alferra eta harroa.

- *Amona, gaur ze abesti erakutsiko didazu?* -galdetu diot ilusio handiz.

- *Haizea, gauza bat esan behar dizut, laino grisak ere paisaiaren parte dira, ulertzen duzu?*

- *Horrekin zer esan nahi duzu, amona?* -nik, euri tanta bat dut masailean behera jausten, amonak inoiz ez dituelako horrelako esaldiak erabiltzen, horren tristeak, horren ilunak... Zerbait gertatzen ari da.

- *Horrekin esan nahi dut, buruko eta zamako minbizia dudala, nahiz eta fisikoki ondo egon. Ospitalera joan behar naiz gaur ingresatzera* -erantzun dit malkoak isuriz.

Nik besarkada handi bat eman, eta esan diot ezin dela mundu honetatik joan; dena ondo irtengo dela.

Minbizi horri buruz informazioa aurkitzen ahalegindu naiz, eta sare sozialetako munduan sartu naiz gai horri buruz dena jakiteko, baina ez dut ezer ulertzen, kausa bat tabakoa erretzea delako, eta nire amonak ez du erretzen. Nola eduki ahal du minbizia ez badu erretzen, ezta alkohola edaten? Ez nuen ezer ulertzen eta hoberena amonarengana joatea zela pentsatu nuen.

Han nago ni ospitalearen aurrean, hobeto esanda infernuaren aurrean. Eraikin horretan hainbat eta hainbat gizaki daude sufritzen, bai gaixotuta daudenak eta bai lagun edo familiakoak. Sartu naiz nire adore guztiarekin eta amonak esandako esaera bat etorri zait burura: *ohitura gaiztoa, berandu ahaztua*. Ohitura, edo hobeto esanda, amesgaizto hau berandu ahaztuko du. Han nago nire amonaren aurrean. Makinetara konektatuta dagoela ikusita bakarrik negarrez hasi naiz. Amona izartu egin da, eta beregana joateko esan dit. Bere begietara begiratzen diot, eta begi horiek tristura baino ez didate transmititzen, ez da betiko amona alaia, jostuna, abeslaria... Inondik inora, baina galdera bat egin behar diodala esan diot, oso garrantzitsua dela.

- *Amona, mesedez, izan zintzoa eta erantzun galdera honi. Zuk zergatik duzu minbizi hau inoiz erre ez baduzu, ezta edan?*

- *Haizea, nik gaztetako gauza gehienak kontatu dizkizut, baina gai hau ez da horietako bat. Ba al dakizu ze esaera esaten dudan askotan? Momentu txarretan esaten dizudana?*

- *Bai, "ohitura gaiztoa, berandu ahaztua" -negarrez hasi naiz, eta azaldu diot esaldi horietaz ospitalera sartu orduko gogoratu naizela.*

- *Amona, zer gertatu zitzaizun gaztetan?*

- *Ni gaztea nintzenean oso lotsatia nintzen, eta lagunekin ez nuen hitz egiten. Udan jaiak egoten ziren, eta ez nekien norekin ibili; horregatik, asko edaten nuen ni ez konturatzeko gauzez, bueno edo hori pentsatzen nuen. Gainera urduria nintzen, eta horregatik erre egiten nuen, eta asko gainera. Etxean arazoak izaten genituen, eta denbora guztian zarataka egoten ginen. Ni oso urduri egoten nintzen, eta arnasteko arazoak nituen lasaitu arte. Gero, jaietan edaten uzteari ekin nion, eta aitona ezagutu nuen. Aitonak asko laguntzen zidan etxeko arazoak zirela-eta. Erre ere gutxiago egiten nuen aitonari esker -gelditu egin da aitona gogora etorri zaiolako eta gero jarraitu du kontatzen-. Nik aitonagatik abesten dut, berak esaten zidalako abestuz lasaitu egingo nintzela; egunero-egunero abesten nuen berarekin. Horregatik ez diot inoiz abesteari utzi.*

- *Amona, ba al dizkizu minbizi honen ondorioak zeintzuk diren?- galdetu diot, pentsatzen, ez duela jakin ere egin nahi.*

- *Ez, baina segur aski onak ez dira izango. -Esan du barre algaraka.*

Ez diot esan nahi badakidalako ez duela ondo hartuko, baina esan egin behar diot, berak eskubideak dituelako, bere gauza preziatu bat galtzeko zorian dagoelako.

- *Amona, orain, ebaketaren ondoren, beste mota bateko bizitza izango duzu, eta zure izaera ere aldatu egingo da.*



- *Zer esan nahi duzu, ahotsa aldatuko zaidala?* -harrituta galdetu dit ez duelako sinesten.

- *Bai, probabilitate asko dituzu.*

Pena ematen dit, aitonaren gauzarik preziatuena galduko duelako. Ideia bat izan dut eta korrika nire telefonoaren bila joan naiz, nahiz eta amonak esan ez duela ezertarako balio, honetarako bai balioko du. Telefonoa hartu eta amonak aurpegi arraroa jarri du, esanez telefonoa uzteko. Bere ahotsa abesten grabatu ahal dela esan, eta begiek distira egiten diote, oraindik bere ahotsa entzun ahal izango duelako (grabazio hura aitonari dedikatzen dio). Grabazio hau emozioz beteta dago, eta nire altxorra izango da hemendik aurrera. Nire etxeko ordenagailuan, telefonoan, mp4an, nire amaren telefonoan, nire aitaren telefonoan, memoria batean... Ez dut inoiz galduko grabazio hau!

Egunero joaten naiz amona bisitatzerara, edozein momentutan hil daitekeelako. Gau honetan ni geratu naiz berarekin, eta abesten egon gara gau osoan min zuelako. Medikua niregana etorri da, eta pentsatu dut errieta egingo didala, baina ez, horrela jarraitzeko esan dit, hiru hilabete eta askozaz gehiago ez dela biziko esan dit, zaharra delako eta defentsa gutxi dituelako. Nik onartu egin behar dut hil egingo dela, nola edo hala, eta arrazoi horrengatik bakarrik, hiru hilabete horiek topera aprobetxatu behar ditudala konturatu naiz.

- *Amona, medikuak esan du etxera joan gaitzkeela, ama dago medikuarekin hitz egiten eta joan egin ahal izango dugu.*

- *Amaitu da amesgaiztoa?*

Nik baietz egin diot buruaz bera ez kezkatzeko, baina ezin dut onartu berak ez jakitea hil egingo dela.

Etxera heldu eta lehenengo gauza esan duena izan da "*Zer egingo dugu?*", eta nik "*hil arte bizi amona*" erantzun diot nire barru-barrutik. Amonak dena ulertu du esaera madarikatu horren erruz, badaki ez dela amaitu amesgaiztoa, badaki laster hilko dela, eta horrengatik egin du galdera hura: "*Zer egingo dugu?*", badakielako laster hilko dela. Berrito galdetu dit ea zer egingo dugun eta nik erantzun diot:

- *Amona, josten irakatsi behar didazu, zuk egiten dituzun bezalako arropak josi nahi ditudalako, eta zu bezalako izan nahi dudalako -amonak hasperen egin du oso harro dagoelako nitaz-. Abesti guztiak dakizkit eta orain josten ikastea falta zait.*

Heldu da hirugarren hilea, eta egunero, orduro, minuturo eta segunduro bere ondoan egoten naiz. Opari bat egin diot, eta bera hil baino arinago bukatu behar dut. Oparian, bere esaera guztiak, bere abesti guztiak eta berak diseinatutako arropa guztiak agertzen dira: album bat da.

- *Haizea, bihar hilko naiz, badakit, beraz, ondo aprobetxatu behar dugu gaurko eguna -esan dit negarrez.*

Inoiz baino min handiagoa duela esan du, eta ez dela normala, ospitalera eramán dugu eta hobeto dago, baina gaizki.

Amonari oparia eman diot, eta inoiz baino negar gehiago egin du, ez du sinesten egin dudan lan guztia. Esaera bat etorri zait burura, eta inoiz ez dit esan amonak, beraz esan egin behar diot.

- *Amona, ba al dakizu esaera hau? "Lehen hala, orain hala, gero ez jakin nola"*

- *Ez -esan dit oso harrিতuta -oso esaera ona da. Ekarri liburua. Azken orrialdean idatziko dut.*

Idatzi eta gero ezin du gehiago, begiak itxi, nik musua eman eta lo gelditu da betirako.

*"Asko daki zaharrak, erakutsi beharrak"*, egunero-egunero esaten zuen nire amonak, eta esaera hori, nire memorian gordeta daukat jada, inoiz ez ahazteko. Orain, hamabost urte ditut eta amonak esaten zituen esaera guztiak, bai euskaraz eta bai erdaraz, amona naizenean esan nahiko nituzke, nire amonaren baimenarekin.

Hemendik aurrera, aurretik gelditzen zaidan bizitza osoa biziko dut; esaera honek dioen bezala: *Zer egingo dugu? Hil arte bizi.*





**Oihane Antxustegi Aiestaran**  
**DBH 3. Maila**

*"Kapitulu txar batek ez du istorio eder bat hondatzen"*

## **HERIOTZAREN BAKEA**

Madrilgo metro sarrera baten ondoan zegoen botata, traste zahar bat balitz bezala, zakar poltsa zikinen alboan. Goizeko bederatzia bueltan ziren, eta Gran Vía kaletik lanera zihoan jendearen joan-etorriaren zalapartak iratzarri zuen loaldi sakon eta atsegin hartatik. Esnatu bezain laster, poltsikoak arakatu zituen, geratzen zitzaizkion ondasun apurrak bertan zeudela ziurtatzeko. Txanponak zenbatu eta orduak pasatzen lagunduko zion ardo botila merke bat salduko zioten supermerkatu baten bila hasi zen.

Pauso geldoak ematen zituen presaka ari zen jendearen artean. Mingarria zen hainbeste mesprezu jasotzea, bere itxura eta janzkerarengatik bakarrik. Egin esan, baldar eta narras itxura zeukan. Mengel-mengela zen, giharrik gabeko pertsona, hezur hutsez osatua. Ilea aspalditik ebaki gabe zeukan eta arropa hautsia eta zatarra zeraman soinean. Gizonezkoek sorbaldarekin bultzatzen zuten beraien bidetik kentzeko. Emakumeek aldiz, beldurturik, umeak besoetan hartu eta bidetik alendu edo beste espaloira joaten ziren, seme-alaben galderak nola erantzun jakin gabe. Nor da gizon itsusi hori? Zergatik dago hain zikin?

Galdera hauek bere buruan biraka zebiltzala, janaria eta batez ere edaria erosi ohi zituen dendara iritsi zen. Supermerkatuan sartzean, barruko aire epela nabaritu eta zeruan bezala sentitu zen. Izan ere, ez zuen aste osoan abenduko hotza besterik ezagutu, Madrilgo negu latzean.

Apaletan horrenbeste janari ikusteak hilabeteetan mantendutako gosea areagotu zion eta patata batzuk hartu zituen ardoarekin batera. Hura luxua zen berarentzat, jende bihozberak kalean emandako txanponei esker zertxobait hobeto bizi zitekeen. Ordaintzera joan zen eta kaxako neska gazteari txanponak ematen ari zela, jasangaitza egin zitzaion begirada izutu hura eta baita txanponak jasotzerakoan jarri zion nazka aurpegia ikustea.

Atea zabaltzearekin batera sentitu zuen kaleko hotza eta berriz ere, pauso geldoz, kale zaratatsuetan murgildu zen. Ez zeukan eginbeharririk ez lanik, beraz aurrera jarraitu zuen oinez, ingurua aztertuz.

Lehenengo, liburu-denda bat igaro zuen. Erakusleihen kristal distiratsuen atzean ikus zitzakeen liburu haiek guztiek erabat liluratu zuten. Gaztetan irakurtzea ikaragarri gustatzen zitzaion-eta. Denen artean, haur-ipuiri ugari biltzen zituen liburu batek erakarri zuen batez ere. Bere amak gauero irakurtzen zionaren antzekoa zen, eta horrek, berarekin igarotako une eder guztiak ekarri zizkion gogora, hainbeste faltan botatzen zituen une preziatu haiek. Bitartean, malko garden batzuk bere masailetan behera erortzen utzi zituen.

Egia esan, bere haurtzaroa ez zen hain zoriontsua izan. Etxean aita baten falta sumatzea ez da batere erraza, eta are gutxiago zure begiekin ikusten baduzu nola alkoholak eramaten duen, egun batetik bestera. Zaila egiten zitzaion onartzea, berak ere antzeko bide okerra hartua zuela, baina benetan damututa zegoen.

Aurrera jarraitu ahala, gozoki-denda baten albotik ere igaro zen. Bertako usain goxoak bere amona Felixaren oroitzapenak ekarri zizkion burura. Larunbatero eramaten zituen bera eta bere arreba txikia parkera jolastera, eta bertako gozoki dendan nahi zutena eros zezaketen. Barrura sartzean harridura geratu zen, bertako tamaina eta kolore ezberdinetako gozokiak begiratuz. Zenbat maite zuen amona! Bere heriotza izan zen bizitzan zehar bizi izan zituen une gogorrenetarikoa bat. Bere falta izugarria sumatzen zuen, hark alde zuenetik.

Arratsaldean, traje beltz dotoreekin jantzitako exekutiboak ikusi zituen lanetik irteten. Gaztetan gehiago ikasi izan balu, agian orain, beraiek bezalakoa izango zatekeen. Damututa zegoen hain alferra izateagatik eta batez ere, guraso eta irakasleek esaten ziotenari kasurik ez egiteagatik.

Ordurako, herria alde batetik bestera zeharkatuta zuen eta jada izterrak leher eginda zituen. Eguna gustura igaro zuen, baina oraindik, azken leku batera joatea geratzen zitzaion.

Patxada izugarriaz iritsi zen, hiri hartako bere lekuri gogokoenera, egurrezko eserlekuak dauden ibai ertzeko pasealeku amaigabera. Jadanik iluntzen ari zen, bertan eseri eta bere buruari galdezka hasi zen. Ezinezkoa egiten zitzaion ulertzea gaztetan hain zoriontsua izan zen mutil batek nola buka zezakeen halako egoera tamalgarrian. Bazekien, iraganean akats ugari egin zituela eta une hartan ez zegoela atzera bueltatzerik.

Orduan ulertu zuen mundu honetan eginbeharrekoak eginda zituela eta, zoritxarrez, bizitzak eskaintzen zion gauzarik ederrena heriotza izan zitekeela. Beraz, 40. urtea bete berri zuela, kaleko bizitza gogorrak zaharkitutako gorputz gazte haren bizitzari amaiera emateko erabakia hartu zuen. Aurrean zuen ibaira salto egin eta bere burua ur izoztu hartan itotzeko asmoa zeukan.

Bi aldiz pentsatu gabe, ardo botilaren azken tragoa edan ostean, ibaira salto egin zuen. Astiro-astiro uretan murgilduz, ur azaleko argia gero eta urrunago ikusten zuen. Ura irentsiz joan zen, kanpora irteteko inolako ahaleginik egin gabe. Begiak itxiz eta bihotzaren taupadak geldotzen ari zitzaizkiola, lasaitasuna bere jabe egin zen eta behingoagatik aske sentitu zen. Bere arima gorputzetik banatzen ari zen unean, gozatu egin zuen hainbeste desiratutako heriotzaren bakeaz.





**Garazi Foruria Naberan**  
**DBH 4. Maila**

*"Mundua ez da beti jai, inoiz tristea ere bai;  
baina badira mila motibo kantatzeko alai"*

## **SAM**

*"60. hamarkada aurkikuntza eta espedizio garrantzitsuen garaia izan zen; baina garai gogorak ere izan ziren hainbat pertsonentzat. Zoratu zirela esanik, psikiatrikoetan sartu eta beste guztiak bezala jokatzera behartzen zituzten, jaramonik ez egin eta zigor gogorak jazo. Baina zer lortu nahi zuten honekin? Zertarako hainbeste gorabehera horren inguruan? Eta gaurkoan Samantha Ford daukagu gurekin, banako 'berezi ' hauetako baten istorioa, gogorra da baina hainbat gauza irakasten dizkiguna eta gaur gurera etorri da kontatzera".*

Atzo bat sartu da gelan, egun eguzkitsu bateko hodeiak bezain ile zuria. Gaztetasuna galdu du baina bere ximurrek asko esaten dute non ibili den eta bere begi borobil txikiek zer ikusi duten. Irribarre ahul bat eskaini die entzuleei, hauek berotasun osoz hartu duten bere etorrera irribarre beroa bueltatuz. Aulkian eseri eta hitzaldia hasi da:

*"Ni, beste inor bezala Ameriketako Estatu Batuetako biztanlea nintzen, bertan jaioa, bertan hezia. Gurasoen gurasoek Europatik emigratu zuten bertara lan bila; garai hartako milaka lagun bezala. Azkenean denok dauzkagu antzeko sustraiak eta ez gara oso desberdinak bata bestearengandik, baina garai hartan ez zen horrela.*

*Besteek ez bezala ikusten bazenu mundua edo sozietatean onartuta ez zegoen zerbait eginez gero, zoro zeundela esan eta psikiatrikoetan edo ospitale berezietan ixten zintuzten. Inork ez zukeen honelako egoera batean egon behar, baina gertatu zen eta ez nigandik oso urrun, hauetako bat izan bainitzen."*

*Txikitatik denek desberdina nintzela esaten zieten gurasoei eta hauek asko arduratzen ziren nitaz baina, nik ez nuen ulertzen... zer egiten nuen txarto?, beste umeen berdina ikusten nuen neure burua. Baina nik zer jakingo nuen bospasei urterekin neska batek kotxeekin, kamioiekin, gerretara... jolastea txarto ikusita zegoela. Nire amak panpinak erosten zizkidan baina ez nituen ukitzen ere ez, ez zitzaizkidan gustatzen. Bat baztertzen nuen bakoitzean bere ardura aurpegia ikusten nuen. Aitak, aldiz, ez zidan ezer esaten hasieran «Txikia da, ikasiko du» esan eta aurrera. Baina denboraren poderioz bere ardura amarena baino handiago bihurtu zen. Eskolan ere sumatzen nuen andereñoek zuten ardura nigan, beti zeuden nire gainean, kontrolatzen «Egon neskekin, panpina hau oso polita da, jolastu berarekin, erabili soinekoak eta gonak, arrosa kolorea...» Ez ninduten bakean uzten. Eskolako kontuak eskolan. Baina gauzak aldatuz joan ziren nagusitzen nindoan heinean. Klaseko neskek ez zuten nitaz ezer jakin nahi eta mutilek, aldiz, ez zidaten hauekin jolasten uzten neska nintzelako. Oso galduta nengoen. Etxeko tentsioa ere nabaritzen zen, amak aitari ni bakean uzteko esan eta honek garrasika erantzuten zion «EZ! EZ! ALDATU BEHAR DU! GAIXOTASUNA DAUKA»”*

*“Herriz aldatu ginen, eta baita eskolaz, bizi berri bat hasi nahian, eskolan denak sartzen baitziren eta umeen gurasoek ez zuten nahi beraien haurrak nirekin jolastea, haienezako gaixotasuna bainean. Herri berrian gauzak ez ziren hobetu eta institutura hasterakoan berriz aldatu ginen.*

*Galdetzen egongo zarete, zerk eragin zuen hainbesteko mugimendua edo zer zegoen txarto nirekin; bada, garai hartan ez zen ondo ikusten neska batek mutilen gustu berak izatea eta are gutxiago mutil bat bezala jokatzeta eta janztea. Arazo neurotikoa bezala ezarri zen edo buru-nahaste hauetako bat bezala.”*

Atsoak lurrera begiratzen du, garai horiek gogorak izango baitziren berarentzat. Arnasa sakon hartu, eta aurrera jarraitzen du:

*“Institutuan neskek ez zuten nitaz ezer jakin nahi, nazka aurpegiekin begiratzen zidaten. Mutilak aldiz, nirekin sartzen ziren. Hasieran ahozko mehatxuak ziren baina egoera okertu egin zen eta fisikoki hasi ziren nirekin sartzen; egun batean ostikoa, beste batean zangoztraba, txistua ere botatzen zidaten. Zuzendariak nire gurasoekin hitz egin zuen neurri batzuk hartu behar zirelako nirekin. Dirudienez, klaseko neskak kexatu egin ziren ez zirelako gustura sentitzen ni haiengandik hurbil nengoenean, adibidez aldageletan hauetaz aprobetxatzen nintzela adierazi zuten. Bai, oso krudela da. Gurasoek beste batez, institutuz aldatu ninduten. «Ia oraingoan ez duzun ezer egiten, ondo portatu!» aitaren hitzak, arazoetan sartzen nintzela edo pentsaturik.”*

*“Grace High School halaxe deitzen zen zentro berria. Hasiera batean oharkabeko pasatu nintzen, mutila nintzela pentsatzen zuten denek. Baina badakizue, beti dago hauetako bat, besteak baino gehiago sentitzen dena eta denekin sartu behar dena. Eta bere listako beste biktima bat bihurtu nintzen baina ez zidan min askorik egiten. Institutu honek izan zuen gauzarik hoberena hauxe izan zen: lagun bat egin nuen, esan liteke bizitzan izan nuen lehenengoa*

izan zela. Billy zuen izena. Orain baneukan norbait nire gustuak eta ideiak konpartitzeko.”

“Arazoak ez ziren amaitu, egoerak okerrera egin zuen. Jendeak lesbiana gisa etiketatu ninduen eta hemen hasi ziren benetako arazoak. Antzinan emakume hauek txarto ikusita zeuden, ez zuten ezer jakin nahi hauekin eta gaixotasun legez zeuden ikusita. Baina gauza bat esango dizuet, nahi zutena deitu ahal ninduten, nik banekien eta nire barne barrenean norengan sentitzen nuen atrakzioa. Bada, denporaren poderioz Billygatik zerbait sentitzen hasi nintzen baina, berari nola esan? Lagun bezela ikusten ninduen, Sam bat bezala, horrela deitzen baitzidan.”

Hasperena hartzen du gure gonbidatuak. Segundu batzuk begiak itxi eta Aurrera segitu berriz:

“Gau batean Billyrekin nengoela laku baten ondoan eserita, zuhaitz batean sostengatuta, zerbeza batzuk edaten. Galdetu egin zidan ia nor gustatzen zitzaidan, ea egia zen homosexuala nintzela. Ni ixilik geratu nintzen, momentua zen berari esateko baina nola? Orduan ez dakit zer pasatu zitzaidan burutik baina musukatzea eragin zidan. Billyk atzera egin zuen «Zertan ari zara, baina... zer da hau...» Korrika egin zuen ihes. Zuhaixka bat mugitzen sumatu nuen. Norbait espiatzen ari zen eta hurrengo egunean jadanik eskola guztiak zekien gertatutakoa. Billyk ez zidan hitz bat ere esan denbora luzean. Mehatxuak, burlak, jipoiak... Astea oso gogorra izan zen. Baina bariku hartan, ez dut inoiz ahaztuko ezta barkatuko, klasetik atera ninduen zuzendariak. Aita etorri zen nire bila, medikuekin hitz egin zuela eta nirea gaixotasuna zela esanez. «Neurriak hartu behar dira, ezin duzu horrela jarraitu.» «Zure onerako da» . Nire amak ez zekien ezer honi buruz, geroago konturatu nintzen, aitaren aukera izan zen inor kontsulatu gabe egina.”

“Rehabilitazio zentro batetara eramán ninduen, homosexualentzat, “konfusoentzako” eta buru-nahastea zuten pertsonentzako psikiatriko berezia. Nire bizitzako hiru urterik txarrenak. Medikuek orga batean lotu ninduten ihes ez egiteko, gela ilun eta hotz batera eramán ninduten, soilik ohe bat eta txorrot bat zegoen barruan. Ez daukat oso memoria garbia urte hauetakoa, pilula asko ematen baitzidaten. Askok sufritu nuen. Haiek esaten zuten guztia egitera behartua nengoen: soinekoak jantzi, makilatzea, neska batek jokatu behar zuen modura jokatzeko. Kasu egin ezean, zigorra neukan eta jan barik uzten ninduten. Baina txarrena “Terapia de shock” izeneko tratamendua zen. Aulki batean jesarrarazten zintuzten eta...”

Samanthak ezinean jarraitzen du, momentu bat behar duela eta gelatik irten da. Denok ulertu dugu, oso gogorra da berarentzat garai horrek gogoratzea eta are gehiago jendaurrean kontatzea.

Minutu bat geroago berriz sartu da gelara. Bere hitzaldia amaitzeko prest dago.

“Imaginatuz ahal duzue nolakoa izan zen. Zentroan nengoela nire buruaz beste egitea pentsatu nuen, horrelako egoeran ezin nuen jasan, hil nahi nuen.



*Baina zerbaitek geldiarazi ninduen. Gau batean erizain bat sartu zen nire gelara, askatu ninduen oheko loturetatik eta gelatik irteten lagundu zidan. Ez nuen ulertzen zer ari zen gertatzen. Oso ahul nengoen eta ez nintzen gai ia oinez egoteko. Erizainak zentrotik atera ninduen eta atean norbait neukan zain. Ama eta Billy ziren. Inoiz ez dut gau hori ahaztuko, mundu honetan gehien maite nituen bi pertsonak psikiatrikotik atera ninduten. Billyk nire amari kontatu zion gertatutako eta hiru urte hauetan ni ateratzeko ahalegin guztiak egin zituen. Azkenean lortu zuen eta aita utzi zuen. Billyk barkamena eskatu zidan.”*

*“Handik urte batzuetara zentro hauek debekatu eta denak itxi zituzten. Terapian sartu nintzen, ni bezalako jendearekin eta honek asko lagundu zidan.”*


Hitzaldia amaitu da, entzuleek txalokada bero bat eman zioten, Samanthak irribarre egin zuen eta poztasun handiz galdera batzuk erantzun ditu, entzuleekin zuzenean hitz egin du. Ai zelako garai gogorrak izan ziren haiek...!



**Jon Santa Maria Amurrio Fernandez**  
**DBH 4. maila**  
*"Bizitza musikarekin gozatuz"*

## ADISKIDEA

1435 urteko maiatza, Florentziako Errepublikak, Elba uharterako Capoliveri herriaren inguruetan. Pietro lotan zegoen belar sikuz eta lastoz betetako zaku batzuen gainean. Haren ondoan beste bost anaiak lo ere, su-tokitik ez urrun. Txabolako gela bakarreko zentroan mahai luzea eta bankuak eta bazter batean ardi talde bat eguneko lehen argiekin itzarri hasia.



### Elba uhartea

Aita hurbildu zitzaion: "Alzati Piero che stà spuntando il giorno e il pescatore non aspetta". Mario Leonardiren seme nagusia zen Pietro, hogei urteko mutil sendoa. Altu samar, ile hori, begi urdin, aurpegi serio, eta ametsez betetako begirada. Txikitatik nekazari, eskasia eta pobrezia ondo ezagutzen zituen. Duela sei urte, arreba baten eta beste anaia baten heriotzek astindu zuten eta pasa den urtean ama Lucia ume bat erditzeaz zegoela hil zenean etorkizuna beste leku batean bilatuko zuela erabaki zuen. Florentzia hirian langile gazteen eskariaren berri izan du eta gaur bertara abiatuko da.

Florentziako Errepublikan 1347an izurrite beltzak ikaragarri jo zuen eta haren ondorioz populazio erdia baino gehiago galdu zuen. Oraindik ere izurritearen agerraldiren batzuk gertatzen omen direla komentatzen du jendeak. Familia aberatsek langileen premia handia dute euren negozioetarako. Halaber, ezaguna da, nahiz eta bera kargu publikoetan agertu ez, pertsonaia berezi batek, bankari aberatsak, errepublikako botere postu eta baliabideak kontrolatzen dituela. Cosimo de' Medici da itzalpeko botere eraginkorra. "Gente nuova" Florentziara ekarteko bultzatzailea da eta hainbat artistaren mezenas bilakatu da; pinturan, eskulturan eta arkitekturan obra ugari egiteko lagundu du.

Eraikin berrien obretarako zegoen langileen beharra baliatu zuen Pietrok eta hargin-maisu baten lantegian hargin-mutil edo aprendiz sartu zen. Ez zuen soldatarik, janariaren truke egiten zuen lan. Maisuaren mesedeagatik, tailerreko bazter batean ohol batzuen gainean etzanda pasatzen zuen gaua.

Santa Maria del Fiore katedralaren kupula egiten ari zen Brunelleschi eta hargin-maisuak hark agindutako harriak lantzen zituen. Pietro arduratzen zen amaitutako enkarguak garraiatzen katedralera.

Horrela Simone Tedesco ezagutu zuen. Obrara eroaten ziren harri landuak Simonek erregistratu eta biltegietan ordenatzen zituen. Gizon gazte txikia zen, aurpegiko azal beltzarana, sudur konkorra eta begi beltz distiratsuak. Irribarre gozoa eta tratu atsegina, kultura handiko pertsona zela islatzen zuen bere portaerak. Mandatuekin joan-etorrietan Pietro eta Simone lagun egin ziren.



**Filippo Brunelleschi**



**Cosimo de' Medici**



**Santa Maria del Fiore katedrala**

Jaiegunetan eraldatzen ari zen Florentzia hiria ikusten joaten ziren. Simonek Ciceronerena egiten zuen eta bere bidez Pietrok, hunkituta, Fray Angelicoren pinturak, Donatelloren eskulturak edo Michelozzo eta Ghiberti arkitektuen obrak aurkitu zituen. Uda zela, batzuetan hiriaren ingurura abiatzen ziren familia dirudunen etxeak eta lorategiak ikustera. Paisaian integratzen ziren, harmoniotsuki. Pietroren begien aurrean ezagutzen ez zuen naturarekiko beste harreman bat, estetikoa, natura gozamen gisa, agertu zitzaion. Elban natura eguneko behar eta nekea zen, sarritan sufrimendua eta etsipena. Ez zen astirik egoten paisaia kontenplatzeko.

Harrokeriarik gabeko gizon apala zen Simone eta pertsona hura apurka-apurka ezagutzeak liluratzen zuen Pietro. Matematiko, laute eta klabezin jolea, greko eta latin hiztuna, sasoiko gizon humanista zen. Baina zer edo zer misteriotsuk inguratzen zuen haren bizimodua. "Zergatik aritzen da hain lanpostu umilean? Eta zergatik saihesten du beti bere bizitokira joatea?" "Simoneren bizitza da eta berak jakingo du zer azaldu eta zer ez" erantzuten zion bere buruari Pietrok antzeko galderak berpizten zitzaizkion bakoitzean.

Arratsalde batean, lanaldia amaituta, Simoneri itxaroten zegoen Pietro Santa Maria del Fiore katedralean. Tupustean, obretako bazter batean ikusi zuen, Brunelleschiren goi mailako arduradun batekin berbetan. Baina Pietro harritu zuena euren arteko trataera izan zen. Ez zuen langile eta nagusiaren arteko erlazioa ematen, lagunaren artekoa baizik. Pietroren presentziaz konturatu zenean, Simonek laguna agurtu eta Pietrorengana hurbildu zen. "Ezagutzen duzu gizon hori Pietro?, Samuel Uzielli da, Brunelleschiren konfiantzazko arduraduna". "Ez, obran inoiz ikusi dut, soilik". Pietroren begirada sarkorra Simoneren begietan pausatu zen. "Etorri Pietro, Filippo Brunelleschik asmatu dituen makina batzuk erakutsiko dizkizut", tentsio unea desbideratu guran. Denbora bat eman zuten zenbait makina miresten, batez ere garabi bat pisu astunak kupula mailara igotzeko eta jaisteko; polea mugitzen zuen engranajeari idi pare baten indarrak eragiten zion eta idiek beti zentzu berean bira egiten zuten garabiko oinarriaren inguruan. Bisita zoragarria, baina Simonek bazekien Pietroren begiradak zeramatzan galderak erantzun barik zeudela. "Pietro, goazen ibaiaren aldetik paseo bat ematera".

Ilunabarra hasia zen. Ibaiertzetik isilik ibiltzen ziren astiro. Une batez, Arnoren ur korronteari begira geratu zen Simone. "Pietro, nire lagun mina zara eta nire barnean gordeta mantendu dudana zuk ere berdin gordeko duzula espero dut". Isilune luzea. "Familia judu batean jaio nintzen. Pisa inguruko herri batean bizi ginen. Badakizu orain dela laurogei urte edo izurrite ikaragarri bat gertatu zela. Milaka pertsona hil ziren Florentzian. Guk hainbat senide galdu genituen. Geroago ez hain larria baina gaitza agertu da berriro zenbait bider. Azkenekoa gertatu ondoren gure herrian jendetza zoratua sartu zen, makilak eta burdin barrak eskuetan, juduak hiltzaileak ginela oihukatuz, gaitzaren kausa ur putzuak pozoitzen genituela zela eta Jesus hil genuen moduan orain kristau guztiak akabatu nahi genituela. Nire bi osaba kolpez hil zituzten. Familia ihesean sakabanatu zen. Nire gurasoak eta neba-arrebak alboko herri batean ezkutatu ginen, geroago gurasoak arreba birekin Venezia aldera joan ziren eta nire anaiak Milanera. Ni hona etorri nintzen Samuel Uzielli judua eta gurasoen laguna delako. Lanpostua eman zidan Brunelleschiren obran eta bere etxean

bizi naiz". Pietro ondoan, harri eta zur, Simone besarkatu zuen eta gero haren eskua bular gainean jarriz: "Adiskide, zaude ziur, nire bizia emango nuke zure sekretua inori esan baino lehenago. Nire laguntza izango duzu beti" .

Harrezkero sarritan ibaiertzetik paseatzen egoten ziren. Florentziako gizartea, lana, hiriaren eraldaketa, bizitzaren zentzua edo erlijioa gaiak gurutzatzen ziren jatorri eta bizipen guztiz desberdinetako lagun bien solasaldietan. Simone lasai, Pietro sutsuago, baina biak elkarren entzule adeitsuak.



**Ponte Vecchio, Arno ibaia eta Vasariren korridorea**

Behin, Ponte Vecchioko sarrera batean neskato bat topatu zuten. Arropa eta aurpegia zikin, burumakur, bide bazterretan bildutako lore sortak saltzen zituen. Hamasei urte ez zuen izango eta jada nabari haurdun. Pietro hari begira gelditu zen, emozio astinketa gorputzean. Biziaren patua. "Goazen Pietro, jainkoak lagunduko dio", Simonek beso batetik tiratzen zion aurrera segitzeko. "Eskatu egiozu zure jainkoari, ni ez naizela sinestun!" Pietro asaldatuta zegoen; "begiratu zure poltsikoetan ea kobrezko txanponik daukazun, nik ez dut soldatarik".

Simonek txanpon bat aurkitu eta neskari eman zion lore sorta jaso barik eta Pietro gerritik oratuz eroan zuen aurrera. "Grazie mile signore!" Neskaren begirada harritua lepoan zutela hasi ziren urruntzen. "Non dago jainko babeslea, ona eta justua? Non egon zen nire amari erraiak lehertu zitzaizkionean ume bat erditzeaz zegoela? Heriotza izan zuen lagun bakarra oinazearekin amaitzeko". Simone isilik. "Jainkoa gizakien fantasia bat da batzuek ondo baliatzen dutena eta beste batzuek sufritzen dutena. Badakizu Simone?, nire sinesmen bakarra da ahaztutako gizakiengandik gatzela eta ahaztuak izatera bidean goazela ". "Eta pauso arinarekin" gehitu zuen Simonek.

Ez batak, ez besteak zekiten laster euren bitzta zeharo aldatuko zela.

Pietro gero eta gusturago zegoen hargintza tailerrean, ikasten ari zen eta bazituen ogibidean gorago igotzeko aukerak maisuak begi onez hartzen zuelako bere lana. Eta florentziar aberatsak dirutza inbertitzen ari ziren eraikin berriak egiteko eta zaharrak birmoldatzeko. Urtetan lana segurua zen.

Iraileko goiz lainotsua, udaren amaiera sentitzen zen. Pietro Santa Maria del Fiore obraren ondoan, gurdian jesarrita, azken mandatua deskargatuta, hurrengo eskariaren zain zegoen. Simone eta beste langile batzuek horma baten arrakala aztertzen zeuden aldamiio batean igota, hiru brazako altueran. Bat-batean, kolpe baten zarata. Simone, aldamioko oholtzan jausirik, ahoz gora, kontrol gabeko dardaretan. Bere burua plataformatik kanpo dilindan, ahotik bitsa zerion. Aldamioko Simoneren lankideak oholtzako beste puntan zeuden izututa. Pietro, birritan pentsatu barik, soka luze bat bildu eta plataformara gora egin zuen. Simonek, konortea galdua, jada ez zuen dardararik egiten. Soka hankartetik pasa eta gerrian lotuta, Pietro polea batean sokatik eskegita lurrera jaitsiarazi zuen Simone. Samuel Uzielli heldu zen orduan korrika. Bazuen gertatutakoaren berri eta Simone gurdian etxera eroateko erregutu zion Pietrori. "Nire etxeko zerbitzariak lagunduko dizute ohean sartzen".

Gau hartan, Simoneren gaixotasuna burutik kendu ezinik lokartu zen Pietro. "Itzarri denean nekatuta baina guztiz normal zegoela zirudien eta ez zen jazotakoaz ezer gogoratzen. Zelako gaixotasun arraroa!"

Biharamunean goizez Samuel harginaren lantegian azaldu zen, Pietroren bila. Aurpegi serioz, zerbait larria zenaz kezkatutik. "Etorri Pietro, zurekin berba egin behar dut momentu batean". Kanpora irten eta Samuelek zuzen eta argi: "Simonen krisia ikusi dutenen langile batzuek San Lorenzo komentura joan dira salatzen". "Baina zer?" "Simone salatu dute deabruak hartua dagoela diotelako". Pietro guztiz harrituta. "Begira Pietro, antzinako mediku grekoek epilepsia ditu zioten gaixotasun horri. Eurek beste edozein gaixotasun bezain naturala zela zioten eta hala da, edonori gerta dakioke Simonerena. Baina aspaldi hainbat kleriko kristauk, Aita Santuk eta Santuek barne, gaixotasun madarikatua, deabruak eta sorginek eragina zela zabaldu zuten eta gaur egun horrelako ustea bera dute kristau arrunt gehienek. Oraingo Aita Santu Eugenio IV. arekin nahiko bare dago Inkisizioa heretikoaren kontrako borrokan baina gogor jotzen du ustez deabru, sorgin edo kidekoen kontra. Historian zehar epileptiko asko bizirik erre egin dituzte". Isilune luzea. "Gainera, badakizunez, Simone judua da eta iheslaria. Ez zuten gupidarik izango berarekin. Lehenbailehen Florentziatik atera beharko dugu Pietro." Baina Pietro, hunkituta, ez zen gauza barbarik egiteko.




**Bastia (Corsica), Elba, Livorno, Florentzia/Firenze**



**Karraka ontzia**

Presaka Samuelek ihes egiteko plana adierazi zion: "Pentsatu dut Livornoko portura joatea eta bertan barkuren bat hartzea. Prest dauzkat zaldia, gurdia, janaria eta dirua. Ibilbidea paper batean marraztu dut. Livornora hamabost legoako distantzia dago. Gau bat bidean pasatu beharko da. Lastoz beteriko zakuak kargatu ditut gurdian, deskantsatzeko eta Simone ezkutatzeko egokiak..." Samuelek eten egin zuen. "Pietro, jakin behar duzu..., laguntzen badiozu Simoneri eta Inkisizioak harrapatzen bazaitu..., zigor latza izango duzula eta seguruen heriotza. Nik Cosimo de' Mediciren babesia daukat eta libratuko naiz."

Pietrok bere baitan bildua, inguruko egoeratik isolatua zirudien. Buruan irudi elkarren nahasiak kolpatzen zuten bere kontzientzia: ama hil zorian, Elbako familia nekazari lan gogorretan, Ponte Vecchioko neskatxa, Simone dardarka aldamiotan eta bera hargintza tailerretik urruntzen betiko. Eta halako batean: "Patu anker eta madarikatua, garaituko zaitut! Samuel, sartu Simone gurdian, bagoaz!"



### **Genoako bandera**

Hurrengo egunean Livornon zeuden. Portuan zenbait arrantza-ontzi eta karraka bi ainguraturik. Simonek hauen bandera ezagutu zuen, Genoakoak ziren. Pietrok Genoako hizkuntza ulertzen zuen, Elban sarri egoten zirelako genoarrak. Marinelekin akordioa erraz lortu zen, poltsan zeramatzen urrezko florinek erraztu zuten. Itsasora abiatzeko prest zegoen batean Corsicako Bastiara joango ziren. Ezin hobeto, Bastia Genoako Errepublikarena zelako sasoi hartan. Gurdiko zaldia askatu zuten portu inguruko baso batean eta ontziratu ziren.

Iraileko egun epela zen. Haize leunek karraka bultzatzen zuten Corsicarantz. Brankan Simone horizonteari begira. Pietrok, ababorreko banku batetik adiskidea kontenplatzen zuen:

“Guk geuk eraikiko dugu gure patua!”.





**Marina Alves Ortega**  
**DBH 4. maila**

*"Nire denbora librean, dantzatzea gustatzen zait"*

## **AMAREN ATSEKABEA**

- Maite... hitz egin behar dugu. Badakizunez, aita hil zenetik, nik bakarrik egiten dut lan eta konturatu naiz ez dudala diru askorik ekartzen etxera. Badakit, ama batek alaba bati hau eskatzea gogorra dela, baina... gustatuko litzaidake zu ere lanean hastea.

- Ama, ulertzen dut zuk bakarrik ezin duzula diru askorik ekarri, baina...

- Badakizu zure ahizpak, 5 urte dituela eta nola ez, Olentzero eguneko oparia nahi izango duela, eta hor dago arazoa. Nik ezin zaituztet janari barik utzi zure ahizpari opari bat egiteko. Horregatik eskatzen dizut mesede hori Maite...

- Ulertzen zaitut ama... baina egin esfortzu txiki bat ni ulertzeko. Ados nago. Agian, lanean hasi behar naizela baina... eta nire ikasketak? Noiz? Noiz edukiko dut nik niretzako denbora tarte bat? Eta nola ez...Mikelekin egoteko?

- Maite mesedez...Ez dezagun Mikelez hitz egin... Badakizu ez zaidala bat ere gustatzen daukazun mutil-laguna.

- Bai ama, badakit, baina nire bizitza da, ez zurea. Nire mutil-laguna da eta... niri gustatu behar zait, ez zuri. Beti gaude gauza berdinarekin...

- Bai... baina zu zara nire alaba eta ez mutiko hori. Nik badakit zer esan behar dizudan eta zer ez. Nik, ez dut nahi zuk bizitzan txarto pasatzea. Ez dizut era txarrean esaten, baina ez dakit Maite... Azken finean, zuk nahi duzuna egingo duzu.

- Beno ama, ni zure alaba izango naiz, baina mutiko hori, zuk deitzen diozun bezala, nire mutil-laguna da eta ez bazaizu gustatzen, ez da nire arazoa! -erantzun zion Maitek oihuka amari.

Ama, oso nekatuta zegoen, elkarrizketa arrunt batetik oihukatzen heldu zirelako. Amak ez zekien zer gehiago esan, alabak hitzik gabe hutsi zuelako. Amak ez zuenez ezer esaten, Maitek buelta erdi eman zuen eta bere gelara abiatu zen. Berehala kezkatzen hasi zen, bazekielako ez zuela ondo tratatu ama. Horregatik, berriz, amarengana abiatu zen, baina oraingoan barkamena eskatzeko. Amak ez zion kasurik egin, berarekin oso haserretuta zegoelako; orduan, Maite oraindik gehiago haserretu zen, bere gelara joan eta maleta egin zuen, ez zuen gehiago jasaten.

Egunak pasa ahala, amak berriz Maiterekin hitz egin nahi zuen, arduratuta baitzegoen eta ez zekielako non zegoen. Ez zuen lortzen berarekin kontaktatzerik. Behin eta berriz saiatu ondoren, azkenean lortu zuen norbaitek bere mugikorra hartzea eta hura ezustekoa; bere mutil-laguna zen. Ez zuenez beste aukerarik, berarekin hizketan hasi zen.

- Barkatu, baina hau Maiteren zenbakia da eta entzuten dudanagatik zu ez zara Maite. Nor zara?

- Mikel naiz, Maiteren mutil-laguna. Eta zu, nor zara?

- Ni Maiteren ama.

- Zer nahi duzu? Maitek orain ezin du hitz egin.

- Bakarrik jakin ia ondo dagoen eta ahal izanez gero, berarekin hitz egin.

- Ba... ondo dago eta esan dizudan bezala, ezin da jarri momentu honetan.

- Zerg...

Amak ezin izan zizkion galdera guztiak egin, Mikelek deia moztu zuen eta. Biharamunean, altxatu bezain laster, berriz saiatu zen alabari deitzen. Oraingoan lehenengoan hartu zion:

- Bai?

- Maite! Ondo ahal zaude?

- Bai, ama, ondo nago. Zerbait gehiago nahi duzu?

- Non zaude Maite?

- Horrek ez du axola, ondo nago eta kitto!

- Maite mesedez, atzo deitu nizun eta Mikelek hartu zidan.

- Badakit, utzi egin behar zaitut, agur.

Eta moztu egin zion berriz ere. Ama gero eta txarrago zegoen, ez zekien non aurkitu Maite, ez zekien ezer, bakarrik ondo zegoela. Baina amak pentsatzen zuen, hori esaten ziola bera ez kezkatzeko. Orduan, berriz deitza erabaki zuen eta oraingoan ere ez zion gauza gehiagorik atera. Moztu eta berehala negar tantak erori zitzaizkion masailetatik behera amari. Pentsatzen

egon ondoren, konturatu zen ezin zuela ezer egin, bere alabaren bizia zela. Baina ez! Ezin zuen bere alaba horrela utzi. Bazekien zerbait gertatzen zitzaiola Maiteri. Une gogorra izan arren amak ez zuen amore eman eta erabaki zuen bere koinatuari laguntza eskatzea. Behin eta berriz deitu zuen eta azkenean, mugikorra hartu zion.

- Bai, nor da?

- Kaixo Carlos, Nerea naiz, Jonen emaztea.

- A bai! Barkatu baina ez neukan zure mugikorraren zenbakia. Zelan zaude?

- Ondo, baina gauza konkretu batengatik deitzen dizut.

- Pozten naiz. Zerbait gertatu al da?

Eta Nereak Maiterekin izan zuen ika-mika guztia kontatu zion eta baita Maite eta bere mutil-lagunaren arteko erlazioaren inguruan zituen susmo txar guztiak ere. Carlosek, orduan, Maiterekin hitz egingo zuela agindu zion. Egunak pasa ahala Nereak ez zuen Carlosen deia jasotzen, baina ez zion presarik sartu, hobe zelako gauzak lasai eta astiro egitea. Eta halako batean, Carlosen deia jaso zuen eta esan zion Maiterekin hitz egin zuela eta ez ziola susmo txarrik hartzen. Nereak, kasu egin zion Carlosi baina... ez zegoen guztiz ziur. Bere bizitzarekin aurrera egiten saiatu zen, baina ezin zuen bere alabatxoa burutik kendu. Horrela, hiru-lau hilabete egin zituen gutxi gorabehera. Urtarrilak 14, goizeko 10etan, bere bizitza hankaz gora jarriko zuen dei bat jaso zuen.

- Bai?

- Barkatu, baina... zu al zara Maite Zugarraren ama?

- Bai, zergatik?-Erantzun zuen guztiz urduri jartzen zen bitartean.

- Ertzainen komisariatik deitzen dizugu esateko gaur goizean zure alaba aurkitu dugula bere etxean hilda, eta bere mutil-laguna izan dela susmatzen dugu. Nahi baduzu... komisariara etor zaitezke, eta lasaiago hitz egingo dugu.

- Zeer?! Ezin da egia izan! Eeez!

Nerea negarrez, telefonoa amatatu zuen, eta ziztu bizian jantzi zen, komisariara abiatzeko. Ez zuen ezta ordu bat behar izan komisariara heldu arte. Urduri eta amorru izugarriarekin heldu zen eta sarreran zegoen ertzainarekin hizketan hasi zen, egia guztia kontatzen, Maiterekin izan zuen ika-mikatik hasita eta bere susmo txarrak kontatzen amaituz. Orduan ertzainak dena idatzi zuen eta autopsiaren ostean, Nereak Maiteren gorpua hartu eta hilobiratu zezakeela esan zion. Nereak kotxea hartu eta etxera abiatu zen. Etxera heldu eta berehala



bere koinatuari deitu zion dena kontatzeko. Carlos ere guztiz atsekabetuta geratu zen, ez zuen espero horrelako berririk jasotzea eta are gutxiago ez zuelako ezer susmatu bere lobarekin hitz egiterakoan.

Nereak, mugikorra alde batera utzi zuen, eta bere bizitzako momenturik zailenetako bati heldu zion: nola esango zion bere alaba txikiari ez zuela Maite berriz ikusiko? Hura besarkatu eta Maite aingerutxuekin joan behar izan zueneko istorio polit bat kontatu zion eta zerura begiratzen zuen bakoitzean bertan izango zuela Maite begira, aingeruekin laino eta izar artean jolasten zuen bitartean, beraiek jagoten.

Urteak pasa ahala, Nerearen eta alaba txikiaren bizitza normaltasunera bueltatu egin zen, nahiz eta, beti gogoratzen ziren Maitez eta ez zuten sekula ahaztuko.



**Ziortza Barruetabeña Erdaide**

DBH 4. maila

*"Emakumearen irria, bizitzaren kolorea".*

## **AMONA**

Urtebete jada  
joan zinenetik,  
zugandik urrun  
nagoenetik.

Orain besarka ezina zara  
nabari ezina zara  
mutua zara,  
baina gurekin zaude.

Zure laka usaina  
zure ibili ezinaren arrastadak  
zure aholkuak:  
faltan daude.

Zure magala  
zure animoak  
zure itxaronaldiak;  
faltan daude.

Zure esperientzia  
zure bizipenak  
zure hitzak;  
faltan daude.

Zure briskako partidak  
zure kroketak  
zure familia bazkariak,  
faltan daude.

Zu! Faltan zaude  
amona.  
Zure 88 urte gogorrekin  
joan zinen.

Ez dakizu  
zenbat kostatu zitzaidan,  
betiko  
agur esatea.

Zugan  
pentsatze hutsak,  
begiak  
malkoz betetzen dizkit.

Hainbat gauzaz  
damutzen naiz,  
egindakoak eta  
egin gabekoak.

Jada nire damua  
ezereza da.  
Joan zara  
eta ez zara bueltatuko.

Orain deskantsa lasai,  
egin duzun guztia  
primeran dago  
eta zutaz oso harro nago.

AMONA maiuskulaz  
idatzi beharreko  
hitza delako;  
zuri ere: urte berri on!



**Izaskun Izagirre Urizar**

DBH 4. maila

*"Izan garena, oraindik ere bagara eta beti izango gara"*

## **IZAN GARENA BETI IZANGO GARA**

Ondozik sentitzen zen Sara astelehen goiz hartan. Azken egun haietan kexatu ez arren, denboraldi luze samarra zeraman gaixo. Baina goiz hartan, indarririk gabe esnatu zen, nekea sentitzen zuen eta bere amak bekokia ukitzean sukarra zuela jakinarazi zion. Medikua erabaki zuten, berak azter zezan Sararen egoera.

Sara Tolosako neskato gaztea zen, 17 urte bete berri zituena. Bere ile beltzarana bizkarreraino iristen zitzaion, begi marroi haiek bi kobazulo ziruditen eta bere azal leuna ukitzea kotoia laztantzea baino goxoagoa zen. Askotan bere amonak mutilekin kontuz ibiltzeko ohartarazten zion, oso neskatila ederra zela behin eta berriz errepikatuz. Neskatxa alaia izan zen txikitatik eta bere inguruko guztiei bizitasuna helarazten zien. Herri guztiak ezagutzen zuen jadanik, guztiak hitz egiten hasten baitzen, edozein gairi buruz. Bertsolari amorratua zen; hainbat sari jaso zituen euskaraz idatzitako olerki, poesia eta ipuinetan. Musikarako grina ere bazuen eta bertsolaritza zen bi kontzeptu horien nahaste bikaina. Horregatik, bertsolaritza ekitaldi guztietara joaten zen eta klaseak ere hartzen zituen denbora librean, bere iritziz nahiko ondo moldatzen zen. Bere etorkizuna ez zuen batere argi; alde batetik, idaztea ikaragarri gustatzen zitzaion eta bere inguruko guztiek esaten zioten idazle bikaina izan zitekeela; bestalde, zientzien mundua izugarri atsegin zuen eta matematiketan ere bikaina zen horregatik ikasketei buruz galdetzen zioten bakoitzean, buruan nahaspila zuela zioen. Bere inguruko guztiak harreman bikaina zuen, oso irekia baitzen eta gainera ez zen kikiltzen inoren aurrean, izaera nahiko gogorra zuen eta.

Itxarongelan ordubete baino gehiagoz egon ostean, Sarak bere izena entzun zuen eta sendagileak kontsultara pasatzeko eskatu zion. Zutuntzeko indarririk ere ez zuen gaixoak. Etxera bueltatzean, ohean sartu zen, sendagileak gripe soil bat baino ez zela esan baitzien. Egunak joan, egunak etorri, Sara gero

eta ahulago zegoen, jateko gogoia ere joan zitzaion eta gero eta zurbilago zegoen. Hori gutxi balitz, orban txiki gorriak ere atera zitzaizkion azalean. Bere amak, alabaren kexekin arduratuta, Sara ospitalera eramatea erabaki zuen. Zenbait proba egin zizkioten bertan. Egun batzuen buruan eta emaitzak aztertu ostean, jakin zuten aukeren barruan sartzen zela Sarak leuzemia izatea.

Medikuek Sararen familiari azaldu zioten neskatilaren egoera. Nahiz eta gaztearen gurasoek esperantza txiki bat izan, inoiz imajinaturiko berririk okerrera jaso zuten. Ez zioten inori ezer kontatu nahi izan, are gutxiago Sarari; ez zioten neskari adorea kendu nahi leuzemiaren aukera hura ziurtatzen ez zen bitartean. Neskak behin eta berriz galdetzen zuen zer gertatzen zitzaion baina ez zekiten zer erantzun.

Sararen amak egunak eta gauak igaro zituen gaixotasun hari buruzko informazioa bilatzen hainbat iturri desberdinetatik. Honako hau irakurri zuen leuzemiari buruz: "Leuzemia odoleko minbizia izenarekin ere ezagutzen da, hezur-muineko gaixotasun larria da. Leuzemiaren kausak ezezagunak dira, baina osagai genetiko bat gaitzaren atzean dagoela susmatzen da, zeharkako probak baitaude. Gaixotasun hau sendatzeko erabiltzen den metodoa kimioterapia da." Neskaxaren amak ordura arteko esperantza txikia ere galdu zuen informazio haren jakitun egitean eta gero eta ziurrago zegoen bere alabak gaixotasun madarikatu hura sufritzen zuela; ezin izan zien malkoei eutsi eta negar zotinka hasi zen.

Itxaronaldi hura oso luzea izan zen guztientzat eta azkenean baieztatu zen Sarak leuzemia zuela. Momentu hartan, zailena neskari berria jakinaraztea zen eta lan hura gurasoen esku zegoen. Une hartan, artega zegoen Sara eta bere egoeraren berri izatean, mundua behera erori zitzaion. Nahiz eta, latza izan sendatzeko hartu behar zuen tratamendua, bazekien bere familia, lagun eta maite zuten guztiengandik babes handia jasoko zuela eta horrek kemenaren ematen zion aurrera jarraitzeko.

Tratamenduarekin hasi ostean, Sarari kimioterapiaren ondorioak antzematen hasi zitzaizkion; haien artean ilearen erorketa. Neskak goiz eta gauak ispilu aurrean igarotzen zituen, negar egiteari utzi gabe eta klasera joateak ere lotsa ematen zion batez ere lehen egunetan bere gelakideek izango zuten erreakzioaren beldur baitzen. Burua zapi batekin estaltzen zuen, kalera irteten zen bakoitzean. Korridorean zehar zihoala zurrumurruak entzuten zituen eta bazekien berari buruz hitz egiten ari zela jendea eta horrek mindu egiten zuen.

Behin, Sara tratamendua hartzeko txandaren zain zegoelarik, begiak malkoz betetzen hasi baino ez, aurrean eserita zuen bere adin inguruko beste neskatila bat, Miren, hurbildu zitzaion laguntza eskaintzeko. Hark ere gaixotasun bat zuela begi bistan zegoen. Hitz egiten hasi ziren eta neskatxak adierazi zion gaixotasun berbera zeukala. Aste haietan, euren arteko harremana sendotu zen eta lagun handi bihurtu ziren. Miren neska zintzoa eta jatorra zen, maleziarik gabekoa eta Sararekin egin zuen bezala, inguruko edozeini laguntza emateko prest zegoen nahiz eta ez ezagutu. Sarak bere laguna miresten zuen, adore handiz hartzen baitzuen bere gaixotasuna eta indar handiz egiten baitzion



aurre bere egunerokotasunari. Mirenen ibilbidea jarraituz, Sarak bere egoera onartu behar zuela uste zuen eta baita bere itxura ere eta denboraren poderioz, helburu hori betetzen joan zen pixkanaka-pixkanaka. Edozein aukera aprobetxatzen zuten bi neskek elkar ikusteko eta harritzekoa izan arren ere, Sara gogo handiz zihoan kimioterapia hartzera Miren ikusiko zuelakoan.

Zenbait asteren buruan, Sarak hobera egin zuen, eta medikuek esandakoaren arabera, tratamendua hartzeari utzi behar izan zion. Alde batetik, albisteak poztu egin zuen, horrek adierazten zuelako sendatzen ari zela, baina beste alde batetik, ez zuen Miren ikusteari utzi nahi. Hala ere, euren artean kontaktuan mantentzeko asmoa zuten garaiko teknologia berriei esker.

Urtebete igaro ondoren, Sararen bizitzak hoberantz egin zuen, sendatuta baitzegoen jadanik, eta buruan zeraman zapia ere kendu zuen berriz ere ilea irten zitzaion eta. Hala eta guztiz ere, ez zegoen horren alai azken egun haietan Mirenek berri bat jakinarazi ziolako, operazio zail bati aurre egin behar ziola hain zuzen ere. Neskek elkar agurtu zuten, berriz ere elkar ikusiko ez balute bezala. Horrexegatik, oso urduri igaro zituen ordura arteko egunak. Azkenean, Mirenen amak deitu zion Sarari eta hitzik esan gabe, bere negarra entzutean konturatu zen ez zuela operazioa gainditu.

Momentu hartan, Sarak bere etorkizuna garbi ikusi zuen, medikuntza ikastea erabaki zuen; hainbat eta hainbat gaztek dituzten gaixotasun arraroak ikertzeko eta batez ere, Mireni gertatutakoa beste inori ez gertatzeko. Horrez gain, bertsotan murgilduta senitartekoak hunkitu zituen hildakoaren azken agurrean:

Ene adiskide maitea  
emadazu kemena  
betetzeko zure hutsunea  
izan dezadan ahalmena.

Utzi egin gaituzu  
malkoetan murgilduz,  
beti maiteko zaitugu  
zurekin oroitzuz.

Zu agurtzean  
egin genuen negarra  
beti izan baitzara  
gure argindarra.

Ezagutu zintudanetik  
miresten zaituz,  
zurelakorik inguruan  
nik ez baitut.

Lagun minak  
izan garelako  
oraindik ere bagara  
eta beti izango gara.



**Julen Diez Azkarate**  
**DBH 4. maila**

*"Bizitza biziago sentitu, sustraiak gehiago zabalduz"*

## **ATERKI BERAREN AZPIAN**

Ezer ez da berdina zu joan zinenetik. Zure maitasuna falta zait. Lehen, bihotzak mehatxatu egiten ninduen, bazterten bazintut berak baztertuko ninduela esanez. Orain, "bihozurtza" naiz. Nire oxigenoa zinen, eta orain arnas-estuka nabil; nire berokia ere bazinen, eta orain hotzak hiltzear nago... Nola arraio utzi ahal nizun joaten?

Zerua hil egin da zugatik. Argiak itzalita daude, ez da ezer ikusten. Kanean, nire taupadak bakarrik entzuten dira, baina nire buruan, berriz, oihuak. Leihotik begiratzen diodanean zero hilari, egun hartako amorruak sortu zituen atzamarkadak ikusten ditut gortinan markatuak. Egun hartaz gogoratzen naizenean, amesgaiztoak izarrik egonda ere eduki ahal direla konturatzen naiz.

Ohean etzaten naiz segidan, eta zure besarkada amigabeez, zure meloi zaporeko musuez, zure irribarre erakargarriaz, nire belarrarian aipatutako zure marmarrez, zure "agurrik" mingarrienaz... Denez oroitzen naiz, egun hartaz gehienbat, bihotzean arrastoa utzi didan egun hartaz.

Toki hartara heldu nintzen, urduri, izerditan, malkoa masailetik irristalari, beldurrak guztiz jabetuta zeukan nire gorputza. 1...2...3...5! Aurkitu zintudan azkenean. Lasaitasun hasperen bat, eta berriz ere erori nintzen beldurraren eskuetara. Zuriz jantzia zeunden, begiak itxita. Gure abestiak jo zuen une hartan irradian. Negarrari eutsiz, zugana hurbildu nintzen. Eskua ukitu nizun, eta hotz zeneukan. Ezin nuen sinetsi, amaitu zen. Zergatik? Zer egin ote nuen gaizki? Hor zeunden, nire aurrean, geldi. Nahiz eta ni indartsua izan, ahula nintzen egun hartan.

- Agur, bai – esan nizun.

“Eta orain zer?” galdetu nion nire buruari. Jada euria hasita zegoen nire bihotzean. Ez nekien nola atertu, eta euri hura txingorra bilakatu zen. Bion arteko uneak gogoratzea bururatu zitzaidan, ea horrela txingorra gelditzea lortzen nuen.

Abuztuak 7, Greziara joan ginen bi asterako, biok bakarrik. Gau haietaz oroitu nintzen, harea zuriko hondartza luze hartan, biok etzanda, besarkatzen, begirada ilargian galdua neukan, zure begiak izango balira bezala. Izar iheskor bat ikusi nuen zeru beltza zeharkatzen, ez nuen guraririk eskatu. Zertarako eskatuko nuen ba, nire guraria zentimetro batzuetara etzanda izanda?

Abenduak 14, elurra ari zuen. Aterki beraren azpian geunden biok, bata besteari helduta. Korronte bero oso atsegin bat sentitu nuen bular aldetik bat-batean. Zure eskua zen, nire artilezko jertse leuna laztantzen. Lepoa inguratu nizun besoarekin, eta zure burua nirearengana hurbildu nuen. Musu hartaz gogoratzen naiz, bi bufanda haien artan, kale erdian, elurpean. Film baten amaiera zirudien, baina zorionez, ez zen horrela izan.

Otsailak 13, inauteriak ziren. Jai handia zen herrian. Jendea maskara baten atzean ezkutatuta zebilen. Ostadarrak paper zatietan margoturik zeuden. Plaza erdian geunden, zarata haien guztien artean, koloretako hautsak ari ziren zerutik erortzen, lumez egindako desfile bat zen egun hartako protagonista. Musika atsegin bat zegoen entzungai. Egun alaia zen, baina guk nahiago genuenez toki lasai bat, herriaren kanpoaldera abiatu ginen. Ibai ertzean jesarrita geunden, mozorrotuta, zarata hartatik iheska. Bi itzalak bat egin ziren. Egunik zoriontsuena izan zen hura, egun ahaztezin bat.

Bion arteko bizipen guztiak buruan dauzkat grabatuta, nire bizitzaren laburpena baitira. Malkoez eraikitako oihu haiek guztiak nire gorputzetik kanporatu ondoren, eraikin hartatik irten nintzen. Etxerantz nindoan, begiak bustita, zukan pentsatzen.

Zu, zu zinen nire guztia, nire insomnioaren arrazoia, orduak luzatzen zizkidana, nire pozoia eta nire antidotoa, nire zerua eta nire lurra, nire beroa eta nire hotza, nire aingerua, nire arima, nire azala, nire begirada, nire erdia. Ohetik jaiki eta zure begi urdinetan pentsatuz jada eguna alaitzen zenidan. Iragan hartara bueltatu nahi dut, oraindik zapaldu gabeko iragan hartara.

Euria hasi da, oraingoan nire inguruan. Aterkia ireki dut, eta arraroa egin zait ni bakarrik egotea haren azpian. Urte bat ere ez da pasatu ezagutu ginenetik, eta jada begizta batean bihurtu gara, nahiz eta orain infinitu kilometro egon bion artean.





**Amaia Bilbao Intxausti**  
**Batxilergoa 1. maila**

*"Ametsak, bihotzak egiten dituen desirak dira"*

## **AMETSETAKO ABENTURA**

Ezin nuen sinetsi, nire bizitza aspergarria eta zentzu gabekoa izatetik, helburu bat izatera eta helburu horrek aurrera jarraitu eta egunero indartsuagoa egitera aldatu izana. Ezer ulertzen ez duzuen susmoa daukadanez, hasieratik hasiko naiz.

Brian dut izena, Estatu Batuetan jaioa naiz baina gurasoak Euskal Herrira emigratzera behartu ninduten oportetean etorri ostean ezin baitzuten burutik kendu hemen bizitzeko ideia. Inoiz ezagutu omen duzuen pertsonarik aspergarriena naiz, ez baitiot bizitzari zentzu handirik aurkitzen; jaio, familia bat sortu eta hil besterik ez baita bizitzaren zikloa. Lo sakonean nengoela aita ni izartzeko garrasika jarri zen, astelehena zen eta astelehenero bezala ikastolara joan beharra nuen, honi ere zergatia aurkitu gabe. Ikasitako gauzak ez dira benetan ikasten, azterketa egin eta ikasitakoaren gehiena ahaztu egiten baita, orduan, zergatik existitzen zen ikastola ziztrin hura? Han nengoela klase guztiak amaiezinak egiten zitzaizkidan, baina gehienbat azken orduan nuen greziara klaseak. Baina galdera da, noiz erabiliko dut nik Greziarra ez banaiz inoiz Greziara joango...? Dena dela azkenean txirrin desiratuak soinu egin eta denok irten ginen ziztu bizian. Etxera heltzean ama eta aita egongelan zeuden ni itxaroten, aurpegian susmatzen nien zirrara, zerbait esateko asmoz. Azkenean aitak esan zidan "Brian, sit down en la sofa, mesedez" ez zuen euskara ezta erdara oraindik ondo dominatzen baina nik ulertzen nion. Jesarri ostean, amak ea oportetean itsasontzizko bidaia bat egin nahi nuen galdetu zidan. Nik noski baietz esan nuen, hemendik eta hemengo nerabe nazkagarri guztietatik urruntzeagatik, edozer. Orduan, Espainia penintsula guztiari bira eman eta Italiara bidaiatuko genuela esan zidaten. Ideia horrek asko poztu ninduen, besarkada eta musu eman nizkien gurasoei, eskerrak emanez.

Heldu zen azkenean apirilaren 16a, Italiara bidaia. Portura joan ginen eta ikaragarritzko itsasontzia zegoen, luxuzkoa zirudien, piszina , tenis zelaia, arropa dendak... denetarik zituen! Ezin hobea zirudien baina amak hori ez zela gure itsasontzia esan zidan, bere ondoan zegoena baizik. Ez zen ia ikusten beste itsasontzi ikaragarriaren ondoan. Hori bai izan zela etsipena, aitak nire txokolatezko bonboi kaxa jan zuen bezalako etsipen handia. Gure itsasontzi txikira sartu eta adineko jendea besterik ez nuen ikusten, bai bidaia aspergarria izango zena!

Maletak gure logelan utzi eta bidaiari guztiak itsasontzira igo ziren. Bat batean, musika Karibetarra jarri zuten, Hawaii-ra joango bagina bezala. Zabaltzara joan ginen hirurok non jende mordoa zegoen dantzan eta edari alkoholdunak edaten, horrekin poztu eta zerbitzari gazte baten batekin ligatzeko esperantzekin, hori bai, denak 60 urtetik gorako gizon eta andreak ziren. Ni eguzkia hartzeko besaulkietan jesarri eta zerbitzariari laranja-zuko zuku bat eskatu nion, aitak ez baitzidan Gin Tonic-a eskatzen uzten. Mugikorrarekin jolasten nembilela 78 urteko gizon bat hurbildu zitzaidan "Ei mutiko! Pasatu ahal didazu liburu hori mesedez?" Hartu eta paper bat erori zitzaidan lurrera. Mapa bat zen, altxorraren bila jolasean bezalakoa! Horri buruz galdetu nion baina Antonio, edo berak esan bezala Tonik, ez zidan horri buruz ezer esan nahi. Baina gonbidatuko ninduela esan zidan eta nik horrela nire Gin Tonic desiratua lortu nuen. Ordu bat egon ginen hizketan eta konfiantza hartu genuela aprobetxatuz berriz galdetu nion mapa horri buruz. Azkenean Tonik esan zidan "Hain gogotsu baldin bazaude, bihar etorri nire kamarotera goizeko 10etan eta dena kontatuko dizut". Ni inoiz baino kitzikatuago nengoen.

Goizeko bederatziak ziren, jantzi, armosua jan eta 10etarako Toniren 429B zenbakiko kamarotearen atean nengoen. Honek ez zidan atea irekitzen; zergatia galdetzen nion nire buruari. Azkenean atea ireki eta odola ikusi nuen alfonbraren alde batean eta Toniren ahoa beronez betea. Zer gertatzen zitzaien galdetu nion baina honek gaixotasun txiki bat zela besterik ez erantzun. Orduan, maparen istorioa kontatzen hasi zitzaidan. Hau orain dela ehunka urte pasatu zen, Grezian dagoen Skorpios izeneko irla batean. Istorioak dioenez, zenbait greziarrek Italiatik alde egin nahi zuten baina hauen itsasontziak pisu gehiegi zuenez, oso geldo zihoazen, horregatik Skorpio irlara heldu zirenean beraien altxorra utzi zuten eta Italiarrak bertara ez heltzeko tranpa batzuk jarri zituzten. Itsasontzizko bidaiari aurre egin eta Italiarrak alde batera uztea lortzen zutenean, beraien altxorraren bila joateko esperantza zuten baina italiarrek hauek harrapatu eta guztiak akatu zituzten. Harrezkero, altxorra Skorpio irlan dagoenaren susmoa zabaldu zen.

Tonik bere plana azaldu zidan. Mapa eta liburuen laguntzaz Italiako bidaiari zegoen geldialdi bat Greziako irla batean egingo dugunez geldialdia, itsasontzi txiki bat alokatuko zuen eta Skorpiora joango zen. Behar zuen denbora hartu eta alokatutako itsasontzian utzi ondoren, bihotzeko batek eman ziola edo holako gezur bat esango zuen eta berriz Euskal Herrira norbaitek itzuliko zuen. Nik arrenka eskatu nion berarekin eramateko eta azkenean baietz esan zidan baina noski, ezin nien nire gurasoei ezertxo ere esan, ez zidatelako utziko.

Egunak joan ahala gero eta gogotsuago nengoen. Portugal, Peñon de Gibraltar eta azkenean Grezian egin genuen geraldia. Bazkal orduan Tonirekin geratu nintzela esan nien gurasoei eta hauek estimua ziotenez, baietza eman zidaten. Heldu zen ordua, zerbait jateko hartu genuen eta Tonik alokatutako itsasontzi txikian sartu eta Skorpio irlara abiatu ginen, 45 minutu inguru besterik ez.


Heldu ginenean irla preziatu hartara, liluratuta gelditu nintzen leku hain miresgarria ikusteaz.

Azkenean gure abentura hastear zegoen eta mapan, lehenengo (1) zenbakiaren atzetik ibili ginen ur jausi bat aurkitu arte. Inguruan aztarnaren bat topatu nahian, baina ez genuen ezer aurkitu. Orduan ur jauziaren atzealdean kobazulo antzeko bat zegoela ohartu ginen eta horra joan ginen arrokari eutsiz, uraren presio guztia gainetik. Barruan geundela "ηρέσα" jartzen zuen harri borobil bat zegoen; Tonik ez zuen ulertzen baina nik ikusi nuenean greziera zela ohartu nintzen, nire Grezierako klaseak gogorarazi nahian. Hitz hark "Sakatu!" esan nahi zuen. Tonik harri horri bultza egin eta lurra dardaran hasi zen. Bata besteari begira genbiltzan, benetan zer gertatzen zen jakin gabe. Bat batean, ur jauziko kobazuloaren atean harri puzka handi batzuk erori ziren eta hortik irtetea ezinezkoa zen. Horregatik, kobazuloaren barrualdean murgildu ginen eta 20 bat minutu ibili ostean, argi izpi bat ikusi genuen koba horren amaieran. Hari jarraitu eta kobazulotik irtetea lortu genuen. Oihan sarria zen hura, landare exotikoak nonbait eta animalia soinuak ere entzuten ziren. Alde batera begiratu nuenean mapan agertzen zen zuhaitz erraldoia zegoen, hostoak urdinak ziren!, eta ezkerrera jo genuen zergatik jakin gabe. Aurrera jarraitu eta zubi bat zegoe. Oso zaharra zirudien baina mapak (2) zenbakia markatzen zuen. Hori dela eta, harri handi bat jaurti genuen zubira ea segurua zen jakiteko. Eta bai, zubiak eutsi zezakeen, horregatik Toni lehenago eta ni atzetik igaro ginen. Geldirogeldiro ibili ginen, honen erditik geundela soka bat apurtzen ari zela ohartarazi zidan Tonik; hori dela-eta korrikan hasi ginen. Azkenean helmugara iritsi baginen ere zubia apurtu eta labarrera erori zen. Berriz ere, ez genuen atzera bueltatzeko modurik eta momentu horretan Skorpio irla hori madarikatu nuen.

Aurrera jarraitzea baino beste aukerarik ez zegoen; (3) hirugarren zenbakiaren bila jarri ginen. Ordu bat inguru ibili ondoren, labirinto moduko batera ailegatu ginen. Tonik liburua ireki eta bertan paper solte bat zegoela konturatu zen eta horren laguntzaz aurrera jarraitu genuen. Labirintoaren alde batean sartu ginen zeinean piszina zirudien alga eta arroekin. Igeri egin behar izan genuen eta bat batean Toni garrasika hasi zen, zerbaitek haginka egin ziolako. Uretan izakiren bat zegoen eta ni arroka baten gainean jarri eta Toni harrapatu nuen besotik; bera ere arroka handiaren gainean jarri nuen. Ebakidura handi bat zuen hankan, nire alkandoraren zati bat hartu eta saiatu nintzen tornikete bat egiten. Aurrera egin behar genuen, ahalik eta arinen igeri egin genuen eta heldu ginenean, lurrean (3) zenbakia zegoela ohartu ginen. Liburuak hor zuloa egin behar zela zihoenez, egur zati batekin lurrean zulo handi bat egin nuen, Tonik ezin baitzuen ia ezer egin. Zuloaren azpi azpian kutxa bat aurkitu nuen. Barruan diru mordoa eta botila bat likido urdinez beterik zegoen. Etiketari iskribu hau: "Αν πινετε αυτό το φίλτρο , θα έχετε βρει την

ἔξοδο. Αυτό το ποτό είναι λειτουργική περ όνο ένα άτο ο” Ez nuen ondo ulertu baina bueltak eta bueltak eman ostean, edari hori edaten zuenak bidaiaren irteera aurkituko zuela edo halako zerbait esan nahi zuen. Kontua da gutariko batek soilik edan behar zuela pozoia. Horrek esan nahi zuen, gutako batek bakarrik izango zuela hortik irteteko aukera eta dirua eramateko berarekin. Nik Toniri esan nion edateko, baina berak ezin izango zuela zihoen. Zaharra zela eta zauriturik ezin izango zuela bizirik irten. Nik ezetz erantzun nion, ez nuela bakarrik utziko. Tonik hankatik hartu, lurrera bota eta edaria edan arazi zidan.

Begiak ireki nituenean nire ohean nengoen eta aita nuen garrasika “Brian! It’s astelehena! Izartu!” Nola? Dena izan dela amets bat? Toni? Aitari galdetu nion Italiarako bidaiari buruz eta imajinazio handia nuela esan zidan. Behintzat greziera klaseak zerbaiterako balio zutela ohartu nintzen eta bizitzan aurrera egin behar dudala, Tonik egin zuen bezala. Baina ordenagailuan ikusi eta Skorpio irlaren istorioa aurkitu nuen eta orrialde horren idazlea Antonio Irigoien izeneko gizon bat zen. Amets bat izan omen zen abentura guzti hura ala ez?



**Beñat Bilbao Landa**  
**Batxilergoa 1. maila**

*"Bakoitzak urraturik berea, denon artean geurea".*

## **BETI BERDIN**

Ohe zikin hartan esnatu zen berriz Xabier. Nazkatuta zegoen bizi nazkagarri hartaz. Burua eztanda egin beharrean zuen. Arnasa hartu eta komunera joan zen, aurpegia garbitzeak on egingo ziolakoan. Ez zen horrela izan. Sukaldetik zereal zahar batzuk eta are zaharragoa zen esne tetrabrik bat hartu zituen. Aspaldi pasa zitzaien data, *"niri legez"* pentsatu zuen Xabierrek. Musika aparatua piztu eta laurogeigarren hamarkadako rocka entzuten jarri zen. *"...pakean utzi arte..."*

Dagoeneko 37 urte zituen Xabierrek eta nazkatuta zegoen bizi nazkagarri hartaz, bakarrik zegoen.

Bere larruzko jaka beltza jarri eta zigarro bat pizten zuen bitartean kalera abiatu zen. Zigarro zaporeak on egiten zion goizetan. Hotza zegoen eta lainoak besterik ez ziren ageri. Hingatutako bota militar beltz haien hotsa besterik ez zuen aditzen kale ilunean zehar. Bidegurutzean eskuinera hartu zuen. Eskale batekin gurutzatu zen, gero eta ohikoagoak ziren hiri petral hartan.

Bere aitonaren irudia etorri zitzaion gogora. Koadrodun alkandora eta mahoizko praka haiekin beti iruditu zitzaion Xabierri bere familiako miresgarriena. Burugogorra, aurkitzen zuen edonorekin eztabaidan ibiltzen zen beti. Gaztaro gogorra pasa zuen, gerra garaian dena galdu baitzuen. Baserritik hirira bizitzera joan eta fabrika batean hasi zen lanean. Han ezagutu zuen gerora bere hiru semeen ama izango zen Luisa. Irakurtzea gustuko zuen aitonak, batez ere filosofia. *"Bizitza bukle bat duk!"* esaten zuen sarri. Bere ustetan, bere garaitik ez zen ezer aldatu gizartean. *"Berdinean jarraitzen diagu, miseria eta Athletic"*. Duela makina bat urte hil zen laurogei urteko punkia. Faltan botatzen zuen Xabierrek.



Zirimiriak izartu zuen bere pentsamenduetatik. Supermerkatuan sartu eta tabakoa eta liburu bat erosi zuen. Europa iparraldeko eleberri haietako bat, amarentzat, bere urtebetetzea zen. Ez zeukan gogorik ezer ospatzeko, eta are gutxiago bere koinatu harroaren iruzkinak entzuteko. Ume txiki bat balitz legez tratatzen zuen eta egun hartan ez zen beste era batera izango. Amagatik joango zen eta kitto.

Burua mela-mela zuela iritsi zen ama bizi zen eraikinera. Kanpoaldean koinatuaren autoa aparkatuta ikusi zuen. Birao txiki bat bota eta txirrina jo zuen. Bigarren pisua A.

Bigarren pisua A. Gogoan zuen oraindik Xabierrek bertan bizi zen garaia. Bere arrebarekin batera konpartitzen zuen logela, aitaren izerdi usaina sukaldean, ama egongelan irakurtzen. Ez ziren garai txarrak, ez. Xabier mutiko argia eta langilea izana zen umetan. Ikastolako urteetan, inongo arazorik gabe pasa zituen ikasturteak. Esperantza pila zuen orduan, etorkizunari buruz batez ere. Guztiek esaten zien gauza bera, "*Zuk balio duzu! Gauza handiak egin ditzakezu!*". Xabierrek ez zuen gogoratzen ordea zein momentutan hustu zen esperantzen poltsa hura. Nerabezaroan izango zen agian, nagusiek esaten ziotenari aurka egin beharra sartu zitzaionean gorputzean. Gizarteak lepoa eman ziola sentitzen zuen, mundua bere aurka zegoela.

- *Bai?* –lainoetatik jaitsi zuen arrebaren ahotsak.
- *Ni.*

Eskailerak korrika igo zituen, igogailuak ez zitzaizkion gustatzen. Arreba agurtu eta amarengana joan zen. Koinatuari ez zion begietara begiratu ere egin. Ama zoriondu eta oparia eman zion.

- *Ze kasualitatea! Karlosek ere opari berdina egin ez dit ba! Eskerrik asko hala ere. Zein argal zauden ezta seme?*

Hori ere gaizki irten behar Xabierri. Koinatuak beti aurrea hartzen zion. Mahaian eseri ziren laurak, bazkaltzeko. Aitak utzi zituenetik etxea handiagoa zela zirudien. Ama ere zaharrago ikusi zuen Xabierrek.

Karlosek hitz egiten zuen soilik mahai hartan. Bere enpresa ze ondo zebilen, ze auto bizkorra zeukaten, ze etxe handia zuten... Handiustea. Institutuan ere horrelakoa izan zen, Xabierren gela berdinean zegoenean. Xabierrek uste zuen garai hartatik zetorkiola berarenganako ezinikusia. Beti ibiltzen zen bere nota onez, familia itzelaz eta abar hizketan. Munduak bere inguruan birak emango balitu legez. Gainera, mundu guztiari gaizki begiratzen zion, bere mailakoei kenduta noski. Gorroto zuen Xabierrek horrelako jendea. Ez zezakeen ulertu nolatan egon zitekeen bere arreba tipo harekin.

- *...eta Xabier, hik zer egin behar duk?* – bazirudien bakarrizketa amaitu zela, Xabierren zoritxarrerako.
- *Bada, ez zakiat oraindik.*

- *Nahi baduk nire enpresa toki bat egin niezaake.*
- *Ez, ez lasai.* – burges harro nazkagarri haren hankapera jaitsi? Ja! Inoiz ez.
- *Baina Xabier, inoiz baino zurbilago hago, ez duk ia dirurik, txabola zikin nimiño batean bizi haiz, pentsa ezak ondo.*
- *Nik jakingo diat zertan ari naizen.*- bota zion hotz.

Isiltasun deseroso bat nagusitu zen jangelan, batzen ziren bakoitzean izaten zutena. Xabierrek bazekien zer pentsatzen zuen mundu guztiak berataz. Bazekien bere bizkarrera zenbat gauza esaten zituzten. Bazekien berriz erori zenetik esperantza galdu zutela guztiak beregan. Bazekien batzuek maite zutela eta beragatik malkoak isuri zituztela. Hilabete lehenago lanetik egotzi izan ez balute... Nazka. Nazka sentitzen zuen. Ez zitzaion axola. Ez zitzaion axola lotsagabe ezjakin haiek zer pentsatzen zuten. Nazka. Eta nazka gehiago. Nazka koinatuak. Nazka gizarteak. Nazka munduak. Nazka, nazka eta nazka. Hainbeste nazka artean berak ere nazkagarri bat izan behar, beraz.

Xabier zutitu eta amari muxu bat emanaz, alde egin zuen. Atea itxi aurretik senti zezakeen ama eta arrebaren tristura. Karlosek ere zerbait esateko izango zuen, ziur.

Eskailerak igo zituen bezain bizkor jaitsi zituen. Kaleko haize hotzak bete-betea jo zion aurpegian. Behintzat ateri zegoen. Negua izanik argi gutxi zegoen kalean, etxerantz zuzendu zen. Azkura zuen besoetan. Azkura handia. Geroz eta sarriago sentitzen zuen azkura hura. Beste zigarro bat sartu zuen ahoan.

Lehenagoko kale bazterrean ez zegoen eskalearen arrastorik. Egia esan, kalean ez zegoen inor. Xabier eta bere itzala besterik ez. "*Berriro ere gu biok bakarrik*" esan zuen berekiko.

Beti berdin. Bazekien zer zetorren. Azkura gehiago zuen. Ezinegona ere. Etxera iritsi nahi zuen. Berriro ere nahi zuen. Erori zenez geroztik, erori besterik ez zen egiten. Etxera igo eta atea itxi zuen kisketaz. Sofan eseri zen. Kaxoi batetik atera zuen orduan. Xiringa hura.

Harengatik erori zen duela hilabete batzuk. Xiringak ematen zion bizia, heriotza ere. Xiringa hark. Hotza zegoen xiringa bero hark. Ez zuen ezer sentitu nahi Xabierrek, baina dena sentitu nahi zuen. Ahaztu nahi zuen, nazka, koinatua, bizia. Ahaztu. Bizi nahi zuen, baina bizitzaz nazkatuta zegoen. Bere buruaz ere. Ez zion axola. Xiringa zen dena. Gorroto zuen, baina nahi zuen. Zirt eta zart. Malko bat zihoakion masailean behera. Bazekien ez zela bere errua. Aitona etorri zitzaion gogora, ama, arreba. Berdin zion. Beti berdin. Azalean sentitu zuen eta, kitto.

Ohe zikin hartan esnatu zen berriz Xabier. Nazkatuta zegoen bizi nazkagarri hartaz. Bakarrik zegoen.



**Xabier Zarrabeitia de la Fuente**  
**Batxilergoa 1. maila**

*"Pausoz pauso bizitzan aurrera noa, baina beti konfiantza izaten saiatzen naiz nigan, egoera dena-delakoa izan arren"*

## **IKASKETEN GORABEHERAK**

Ikasturte hartan zeharo aldatu zitzaidan ordura arteko nire egunerokotasuna. Aurten askoz goizago altxatu beharra. Inoiz baino lanpetuago nengoen eta ikasketen exigentzia maila inoiz baino handiagoa. Eragina zeukan nigan eta nabaria zen nire ingurukoentzat, batez ere, nire amarentzat, berak ezagutzen bainau ondoen.

Urriko bigarren astelehena zen. Goiz hartan berriz ere goiz-goiz altxatu beharra izan nuen sei ordu ziztrin lo egin ostean. Asteburu gogorra izan nuen ikasten eta sekulako nagitasuna neukan nire barnean. Hain nekatuta nengoen ezin nuela neure gorputza kontrolatu ezta ibiltzeko ere. Ohetik altxatu eta etxeke zapatilak jantzeko ahaleginak egiten saiatu nintzen; bi minutu ostean lortu eta eskatzerantz abiatu nintzen. Ama zegoen bertan eta egun onak eman nizkion aharrasika:

- Egun on!
- Baita zuri ere! Garbitu al duzu aurpegia? –galdetu zidan begirada sinesgaitzez.
- Bai... –era monotonoan erantzunez.
- A bai? Ba lo ikusten zaitudanez joan zaitetz berriro komunera gosaldutik aurretik.
- Baina... egin dut... –gezurra sinesteko ahaleginez.

- Berdin zait! Ezin zara eskolara joan horrelako itxurarekin! Zer esango dizute ba lagunek edo irakasleek? Nagi aurpegi hori kendu arte ez duzu gosalduko etxe honetan gutxienez!

Amak pixka bat haserre hitz egin zidan gezurra esan niola sumatzen baitzuen.

- Hobe zenuke dutxatzea espabilatzeko!! –esan zidan berriro amak
- Ongi da, ongi da! Bustiko dut aurpegia eta kenduko ditut pistak, baina ez daukat dutxatzeko asmorik. Arratsaldean entrenatu ostean dutxatuko naiz. –amorruez adierazi nion.

Hasieran txorrota irekitzean ez zen urik atera, baina bat-batean itzelezko ur-emaria izan zen eta txorrota zarratzeko ahaleginak egin nituen. Ez dakit nola konpondu nintzen komun guztia ez hondatzeko. Oraindik erdi lo nengoen, baina txorrotaren indarra moteltzea lortu nuen. Ostean, bisaia garbitu eta gosaltzera joan nintzen, oraingoan inolako problemarik gabe.

Gosaltzen nengoela, buruan neukan ideia bakarra egun hartako azterketa zen eta arrapaladan hartu nuen gosaria azken birpasatze egiteko denbora izateko. Bitartean amak berbetan zebilen nirekin:

- Trankildu zaitetz seme, ondo egingo duzu eta. Ez zara hainbeste arduratu behar azterketa bat baina ez da eta. Zu zaren ikasle onarekin nolatan suspendituko duzu azterketa bat ba? –beti bezala ni konbentzitu nahian.
- Badakit ama, baina azterketa oso potoloa da eta urduri nago... –neure buruarengan konfiantza handirik erakutsi gabe.
- Zuk badakizu egin dezakezula. Beraz egin iezaiozu aurre beldurrari eta joan zaitetz trankil azterketa egitera. Hori da hoberena zuretzat.
- Bai, badakit ama...

Amaren diskurtsoa ni motibatzeko eta lasaitzeko zen. Asmo ona baina ez ninduen konbentzitzen. Armosua amaitu eta logelara joan nintzen ohea egitera eta janztera. Dena arrapaladan egin eta ia motxila etxean utzi nuen liburu guztiekin. Ez zen lehen aldia izango. Dena dela, motxila demontrea hartu eta autobusa hartzera atera nintzen etxetik, amari musu pare bat eman eta gero. Kanean erlojua ikusi eta korrika hasi nintzen berandu helduko nintzela pentsatuz, azkenean bost minutu lehenago heltzeko. Autobusean galde egin zidan lagun batek azterketari buruz:

- Igor ba al dakizu zer den testu hau? –gutxi zekiela zirudien.

- Ba zera, hor jakin beharrekoa da nolako filosofia zuen Descartesez eta zer defendatzen zuen... –dena azaldu nion eta harrিতuta geratu zen nire azalpenarekin.

Eskolara heltzean autobus gidaria agurtu eta klasera jo genuen. Eskailerak igo eta egunero bezala irakaslea heldu arte itxaron genuen gela ondoko egurrezko banku bernizatuetan. Bitartean, apunteak hartu eta irakurtzen hasi nintzen birpasatzeko.

Azterketa ordua heltzeaz zegoen eta nik oso urduri jarraitzen nuen. Orduantxe, andereñoa etorri eta atea ireki zigun gure gauzak uzteko eta azterketa egitera joateko. Gelakide guztiak ziztu bizian zebiltzan kontrola egiteko nahi zuten eserlekuak hartzeko; zer asmo izan zezaketen ba hori egiteko...

Jada azterketa banatzen hasia zen irakaslea eta denok geunden lasaitu ezinik, ni batez ere, eta azterketa ematerakoan izena jarri eta idazten hasi nintzen. Momentu batez eskumuturra erlaxatzeko idazten gelditu nintzen eta lipar hartan kolpe bat entzun zen teilatuan. Ez genion garrantzi askorik eman eta azterketan zentratu ginen, baina handik minutu batera, "dron" bat erori zen teilatutik metro bateko diametroko zuloa eginez.

Denok ikaratu ginen baina irakasleak bezalako sustoa ez zuen inork hartu. Konortea galdu zuen eta ondorioz lurrera erori. Bertan behera utzi genuen denok azterketa, irakasleari lagundu nahian eta zuzendaria deitu genuen gertatutakoaz abisatzeko. Sinestezina zen gertatzen ari zena eta denok geunden beldurtuta berriro berdina pasatu zitekeela uste genuelako. Horregatik eskola osoko jendea atera behar izan zen sute batean bezalaxe. Gure andereñoarentzat ambulanzia bat eskatu zuten eta bost minututan bertan zen.

Oraindik ez genekien dronaren nondik norakoak eta iskanbilaren zergatia. Horregatik, eta apur bat erlaxatzeko, Barrutiko ermitara joan ginen belardian deskantsatzera eta han artzain bat topatu genuen arduratuta eta zera galdetu zigun:

- Epa egun on gazteok! Ikusi al duzue hemendik dronen bat edo? Hura erabiltzen nabil galdutako ardi bat topatzeko eta lehen aldia denez...
- Zer??!! Zurea al da gure gelako teilatuan zuloa egin duena? –harrিতuta erantzun genion, apur bat haserre.
- Ba... Seguruenik bai... Kontrola galdu dut eta ez nekien nondik zebilen... Barkatu benetan... –atsekabetuta barkamena eskatu zigun.
- Beno berdin dio. Ez da gure arazoa eta gainera azterketa batez libratu gara! –erantzun zion han geundenetako batek artzaina lasaitzeko.
- Horrela bada trankilago nago eta eskerrik asko barkatzeagatik. –zioen lasaiago oraingoan.

- Eta zer bada artzain bat hemendik? –galdetu genion.
- Izan ere egunero ibiltzen naiz hemen ingurutik. Normalean mendira joaten naiz eta gaurkoan errepidetik ibiltzea erabaki dut; eta kasualitatez arazo hau... –oraindik damututa zioen.
- Trankil konponduko da eta! –ez genion garrantzirik eman nahi gertatutakoari.

Hitz egiten ari ginela gizonarekin institutuko ikasle guztiak deitu zituzten bueltatzeko klasera, baina ezin genuen azterketarekin jarraitu, irakaslea falta baitzen. Orduan, besteak klasera zihoazela, nik artzainarekin gelditzea erabaki nuen. Jakin mina bainuen bere eguneroko bizimodu eta kontuez.

- Eta zuk zer egiten al duzu? –galdetu nion jakin minez.
- Beno, ba suposatuko duzu artzain batek zer egiten duen; goizean izartu eta gosaria egin ostean nire soro maitera joaten naiz lurra lantzen pixka bat, aitari lagunduz; amaitzerakoan, ardiak hartu eta paseatu egiten ditut baserri ingurutik. Jatorduan bueltatu eta amari laguntzen diot janaria egiten eta mahaia jartzen; Arratsaldean berriz ere ardiekin eta gaez ohera beste egun bat hasteko.
- Jope! Hori da bizitza, hori! –erantzun nion inbidiaz.
- Nik ikasketak arinago utzi nituen etxean laguntza behar baitzen. Ama eta aita zahartzen doaz eta... –komentatu zidan burumakur.
- Ba ez pentsa nire bizitza errazagoa denik. Beti nabil lan eta lan, ikasi eta ikasi gelditu gabe. –nioen erresuminez.– Zuk egiten duzuna egiteko aukera banu...
- Ba gurekin bazatoz, primeran. Artzain bat gehiago hobeto. Lana ere errazagoa izango litzateke guretzat, laguntza beti baitator ondo. –onartu zidan artzainak.
- Gogoak bai, baina... –pentsatzen aritu nintzen momentu batez.
- Gugatik itzel! Baina zuk egin ezazu nahi duzuna.
- Hor konpon ikasketak! Zurekin egingo dut lan! Estresarekin kokoteraino nago eta! –bat-batean barruko amorru guztia askatuz esan nion.
- Ba itzel! Bihar bertan has zintezke hona etortzen! –pozarren zegoen, seguruenik horrela norbait izango zuelako denbora pasatzeko, lehen ez bezala.
- Eta zer ordutan etorri beharko nintzateke?

- Ba goizeko zortzietan egon zaitez bertan ermitan eta ni joango naiz zure bila.
- Ongi da! –ordua entzutean harritu egin nintzen baina berdin zitzaidan ez bainuen izango eskolara joan beharrik.
- Ba beno, bihar arte! –agurtu zidan artzainak.
- Bai, berdin! –buelatu nion agurra eskuinarekin.

Artzaina joanda ni eskolara abiatu nintzen, motxila eta liburuak hartu eta etxera joango nintzela esan nien kideei eta irakasleei. Oraindik ez zeuden klasean jolastokian baizik, baina ni klasera joan, gauzak arin hartu eta sabaia erori orduko irten nintzen, zuloa oraindik berdin baitzegoen. Baina hala ere kideak harrituta nituen eta zertan nenbilen galdetu zidaten, edo nora nindoan. Nik esan nien amak deitu zidala eta beste eskola batera eramango nindutela hiriz aldatuko genuelako. Denak agurtu ninduten banan-banan eta zorte ona izatea opa zidaten. Ez nuen espero hain erraza izatea gezur horrekin alde egitea. Dena dela etxera joan nintzen eta han zegoen ama:

- Zertan zabilta hemen goizeko hamaiketan? Zerbait gertatu al da? – galdetu zidan ustekabeen harrapatuta.
- Ba beno, arazo bat egon da azterketan dron batekin eta eskolatik irten gara. Deskantsatzen geundela bere jabea zen artzainarekin topo egin dugu eta berarekin berba egin ondoren ikasketak uztea erabaki dut eta hari laguntzea artzain lanetan. Gero eskolara joan, nireak direnak hartu eta alde egin dut. –gezurrik bota gabe laburtu nion goiz erdia.
- Baina zer diozu? – zioen harrituta amak.
- Kokoteraino nago ikasketez eta hori erabaki dut! Gainera jada esan dut ez noala gehiago institutura, beste hiri batera bizitzera goazelako esanda. –aitortu nion beldurrik gabe.
- Benetan esan al duzu hori? –ez zuen sinisten.
- Bai! –ziur-ziur esanda.
- Ba ez deritzot ongi hori! Baina hobeto pentsatuz, ez litzateke hain ideia txarra izango zuk lan egitea eta ikasketak utzi, lar urduri ibiltzen baitzara. –hasi zen pentsatzen.
- Bihar bertan geratu naiz joateko eta berdin zait zer diozun! –neure erabakiaz harro nengoela erakutsi nion.
- Ba egizu! Beti zabilta azterketak gora eta behera eta gelditu gabe lanekin! – ez nuen sinesten amak niri aurrez aurre esandakoa.

- Ba esan dizut. Bihar hasiko naiz. –esan nion harridura disimulatuz.

Egun hartan denbora guztia egon nintzen pentsatzen eta imajinatzen nolakoa izan zitekeen nire hasiera artzain haren laguntzaile bezala eta irrikatan nengoen joateko. Arratsaldean etxean geratu nintzen eta hurrengo egunean goizean altxatutakoan gosalduta eta bizikletaz joan nintzen. Han zegoen artzaina jada nire zain:

- Egun on! Susmo txiki bat izan dut ez zinela etorriko baina erratuta ibili naiz, hemen zaude! –ez zuela espero zirudien.
- Bai noski hemen nagoela! Nik esaten dudana egiten dut! –argi utzi nion hori.
- Beno utz dezagun hori alde batera... Joan gaitezen baserrira.

Baserrirantz abiatu ginen. Bidea nahiko luzea iruditu zitzaidan eta esan nion:

- Asko falta al da?
- Ez pare bat kilometro bakarrik. –esan zidan tonu trankilean.

Momentu hartan nekatuta nengoen baina ezin ginen gelditu berandu baikenbiltzan. Baserrira heltzean segituan hasi ginen soroa lantzen. Gelditu ere ez bi ordutan! Orduan deskantsua eskatu nion artzainari:

- Mesedez deskantsu txikia har dezaket? –arnasestuka.
- Deskantsatu! Hasi baino ez gara egin eta! Gero deskantsatuko dugu!

Ez zidan utzi ezer gehiago esaten eta beste ordu batez ibili ginen han jo ta ke. Amaitzean esan bezala ardiak hartu eta basorantz abiatu ginen. Orain ere 5 kilometro ibili ginen eta gero egin genuen atsedena. Momentu hartan esan nion artzainari:

- Ez nuen espero hain gogorra izatea artzain lana... –neke aurpegia ezkutatu.
- Ni ohituta nago, baina normala da trankil. Ohituko zara zu ere! –zioen pozarren.
- Bai, espero dut. –nioen nik neure burua motibatzen saiatuz.

Beste pare bat orduz ibili ginen handik eta orduan bazkaltzera joan ginen. Artzainaren amak bere maitasun osoz egin zuen janaria, baina porrusalda ez zen nire gustukoa. Horregatik, ez nuen ia ezer ere jan. Jarraian, deskantsu laburra egin eta arratsaldeko buelta eman genuen ardiekin. Oraingoan 15 kilometro. hiruretatik zazpiak arte! Hilda nengoen hau amaituta eta ezin nuen neure buruarekin ere. Baserrian artzaina eta haren familia agurtu eta bizikleta hartu nuen ziztu bizian etxera joateko deskantsatzera. Bidean



estropezu egin nuen eta erori eta bat-batean nire aurpegian sekulako armiarma bat agertu zen zera esaten ahots beldurgarriz:

- Izartu zaitetz Igor. Izartu, izartu! Berandu da eta!

Atoan izartu eta ohean agertu nintzen nire betiko pijamarekin etxean. Amets hutsa izan zen gertatutako guztia. Berriro nengoen ametseko hasierako lekuan!! Amak ni izartu nahian. Hori bai, oraingoan oso pozik nengoen. Konturatu nintzen ikasle izatea gogorra dela, baina badaude egoera latzagoak. Nik zortea nuen baina ez nintzen konturatzen. Handik aurrera ikasketei aurre egin nien konfiantzaz eta lasaiago.

Orain 22 urte ditut eta unibertsitatean nago. Ez nuen espero ametsa izan aurretik egiten nagoena egitea inondik ere. Ingeniaritza genetikoa! Baina konturatu nintzen norberak esfortzua eginez eta konfiantza izanez bizitzan helburuak lor ditzakeela.



**Maddalen Omaetxebarria Landa**  
**Batxilergoa 2. maila**

*"Aski zait maite ditudanen alboan izatea, elkarren ondoan nahikoa dela baieztatzea. Bizimodua lagunarekin dastatzea."*  
(Ruper Ordorika)

## **FIKZIO KONPARTITUA**

Ispiluan bilatzen naiz  
eta ez naiz aurkitzen,  
ispiluan bilatzen naiz  
eta ez naiz ikusten,  
ispiluan bilatzen naiz  
eta ez naiz islatzen.

### **ISLADATU**

Igogailuan behera noa  
ispiluari begira  
pentsakor  
amak aurrekoan esandakoari bueltaka.  
"Ispiluaren aurrean margotzen zaren bakoitzean  
ez dakit nor zaren",  
ispiluko isla margotu hori  
nor den  
igarri nahiko balu bezala.  
Ispiluak eta  
pinturazko katamaloak:  
errealitatea itxuraldatzeko konplizeak.  
Ispilu gabe  
ezin katamalorik margotu;  
eta katamalorik margotu ezean

ispiluak soberan  
(ea nork duen gustuko  
benetakoa den errealitatea).

Baina zer da, bada  
errealitatea?  
"Fikzio konpartitua".

## **IKUSI**

Eskaparate batean  
ikusi naiz  
eta ikusi dut manikia.  
Begiratu dut  
eta begiratu naiz.  
Ze disparate!  
Begi mehatxariak  
erreparatu dizkiot  
katamalo xume horren azpian.  
Postura egingo nuke  
begiratu nauela,  
isladaz (edo agian, nitaz)  
ikaratu guran.

Aurpegi zurbildun katamalo batek,  
"háblame en cristiano".  
Egunkaria erosteko ere  
ezin nire ama hizkuntza erabili.  
Eta ama  
alaba gabe,  
hizkuntza gabe;  
eta haren katamaloa bere tristura ezkutatzen.

Lehen orrialdea:  
«Bortxaketa baten biktima adingabea  
ospitaletik atera berri da».  
Biktima.  
Berba hotza.  
Biktima omen da  
bizitza bortxatu diotenean  
bizirauten duena,  
bizitzari gogor eusten diona;  
katamalo azpian ezkutatu beharrean.  
Biktima, ala  
*superbibiente*?  
*Super-bibiente*.

Alboko kalean  
katamalo belzdun pare bat morroik  
bera den etxetik  
bizilekutik  
bota dute atso bat.  
Eta katamalo zuridun mikrofonodunek  
grabatu aurretik,  
antzerkiarekin hasi aurretik  
katamalo bat eman diote etxegabeari.

Irakurketari berriz ekitean  
abeslari famatu baten argazkia.  
Neska ederra  
ezpain gorri ederrekin.  
Testuan,  
"munduari haginka egitean  
nire markaz lorrintzeko irrikatsu"  
baina, ez da onartzera ausartu  
gorri hori  
lorrindutako eta markaz jositako ezpainen  
katamaloa baino ez dela;  
gorri horrek  
ez diola uzten salatzen  
festa ez dela festa  
baten bat menpeko bada.

Elizako atean  
eskale bat  
kanpokoei eskatzen,  
barrura sartu beharrean.  
Alboan kartel bat,  
katamalo bat,  
sinestunen kartel bat;  
inorengan sinisten ez duen  
Jainko bati laguntza eskatuz.

## AURKITU

Gorroto ditut  
katamaloa janzten duten pertsonak.  
Batez ere  
katamalorik ez daramatenean.

Oraingoan igogailua gora doa  
eta ni erori egiten naiz,  
gorantz erori.  
Eta katamaloa apurtu zait  
eta ispilua apurtu da,  
konplize fidel bezala.

Amarengandik ezkutatu  
nauen ispiluaren zati bat  
galduta dago;  
ez daki zer egin  
katamalorik islatu ezean.  
Eta neska bat ikusi  
eta islatu du:  
errealitate mordoa oka  
egiten dabilen neska bat.

---

Behin irakurri nuen  
elefante itsuek zapaldutako herria garela.  
Nik uste  
gu geu ere  
zirkuko pailazo itsuak garela  
pinturazko katamaloen azpian  
ezkutatuz,  
elefanteekin batera guztia zapaltzen dabiltzanak.

“Katamalo soka labur  
katamalo soka estu,  
baina nork ez du amestu  
tiraka-tiraka  
litekeela apur?”



**Itsaso Gabiola Foruria**  
**Batxilergoa 2. maila**

*"Ez egin lo atsedean hartzeko, amets egiteko baizik"*

## **BARNE GOGOETAK**

Ez naiz ohean etzan bezain laster lokartzen den horietakoa. Pentsamendu ugari etortzen dira nire burura eta lo geratzea kostatu ohi zait. Dirudienez, burmuinak lan gehiago egiten du gauean eta hori izan liteke nire loezinaren arrazoia. Baditu bere alde onak (egoera ezberdinak imajinatzea, momentu batzuk berriro bizitzea...) eta baita alde txarrak ere (atseden gutxiago hartzea, ideiak burutik kendu ezin izatea...). Orduak eman ditzaket egunean zehar egindakoaz hausnartzen edo kasu hipotetikoak irudikatzen. Edozein gairi buruz egin dezaket gogoeta: irakurri dudan liburua, ikusi berri dudan pelikula, bizitzako momentu zoriontsu nahiz tristenak... Zergatik gertatu ote da hau? Hau egin beharrean bestea egin izan banu? Zer egingo nuke egoera horretan? Mila galdera bueltaka. Hurrengo orrialdeetan azken aldian egin ditudan hausnarketa batzuk azalduko ditut, itzarrik amets egitera eramaten nautenak.

### **Zer gertatuko litzateke bihar, esnatu eta itsu nagoela jabetuko banintz?**

Bihar goizean itsu esnatuko banintz, ez nuke zer egin jakingo. Ez nuke ulertuko zergatik gertatzen zaidan hori, zergatik ez dudan ezer ikusten. Atzo kolore guztien bizitasuna eta forma desberdinen edertasuna begizatzen nuen eta gaur, dena beltza da, ez da argitasun izpirik ere nabaritzen, kobazulo baten barruan nagoela sentitzen dut. Bizi arte zer den ez dakizun sentsazio horietakoa dela esango nuke, deskribaezina, imajinaezina.

Begiak zabaltzean iluntasuna nagusituko balitz, ametsetan nagoela pentsatuko nuke. Begiak behin eta berriz igurtziko nituzke, zerbait ikusteko itxaropenarekin. Ziurrenik, zarataka hasiko nintzateke, gurasoei deika. Oso urduri jarriko nintzateke eta kezka ugari sortu. Zer gertatzen zait? Zergatik? Nola konpon nezake arazoa? Betirako egongo al naiz horrela? Ideiak buruan

bueltaka ibiliko litzaidake eta beldurraren eraginez, negar malkoei eustea kostatuko litzaidake.

Espezialista batengana joko nuke, arazoaren zergatia eta konponbide posibleak ezagutzeko. Sendabide edo ebakuntzaren baten bidez egoera hobetu ahalko banu, ez nuke bi aldiz pentsatuko, baina zereginik izango ez balitz, horrela bizitzen ikasi beharko nuke, egoera berrira ohituz.

Faltan botako nuke nire familiako kideen edo lagunaren aurpegiak berriro ikustea. Pena emango lidake goizeko eguzkiaz eta gaueko ilargiaz ez disfrutatzeak, izarrei begira egon ezin izateak, gehiago ez irakurtzeak, kolore gehiago ez ikusteak... Orokorrean, munduaren xarmantasunaz gozatu ezin izanak tristatuko ninduke. Ez nituzke egunsentiak, amaierarik gabeko ozeanoa, itsasoko olatuak, lore koloretsuak... ahaztu nahiko. Bizitza independentea egiteko gai ez izateak kezkatuko ninduke. Kaletik noala norbaitek zerbait egiteak, lapurtzeak, etxera bidean galtzeak... beldurra sorraraziko lidake. Ezingo nuke jasan nire seme edo alabaren aurpegia ez ikustea, nire antzekoa den ez jakitea, bere begietara begiratu ezin izatea edo bere lehen pausuez gozatu ezin izana.

Oso burugogorra naiz eta egoera berria onartzea kostatuko litzaidake. Hala ere, pertsona baikorra naiz eta beti saiatzen naiz guztiari alde positibo aurkitzen. Nahiz eta itsua izan, bizirik jarraitzen dudala pentsatuko nuke eta bizitza berrira ohitzen saiatu. Ikasteko abagunea izan liteke, beste zentzumenak garatzeko eta nire buruan proban jartzeko aukera. Gabezia honetatik onuraren bat ateratzea izango litzateke nire helburua. Beste ikuspuntu batekin begiratu beharko nuke bizitza. Gauza fisikoak ikusi ez arren, gizarteko arazoaren aurrean itsu ez izatea da zailena. Hori izango litzateke nire erronka.

### **Zer egingo nuke loteria tokatuko balitzait?**

Milioika jenderen artean bati tokatzen zaio loteria. Izugarritzko oparia izango litzateke, nire bizitzan aldaketa ekarriko lukeena. Hasiera batean, ez nuke sinistuko, txantxaren bat dela pentsatuko nuke edo ametsetan ari naizela.

Lehenik eta behin, ikasketak ordaintzeko erabiliko nuke eta nire nebari ere sos batzuk emango nizkioke, berak ere unibertsitatea ordain dezan. Horrez gain, langabezian dauden familiako kideei laguntzea gustatuko litzaidake.

Gobernuz kanpoko erakunderen bati ere diru kantitate bat utziko nioke. Eskuzabalak izan behar gara, gu baino egoera okerragoan daudenei lagunduz. Besteengan ere pentsatu behar da eta beraien lekuan jarri. Enpatia izan behar dugu eta ahal duguna egin besteengatik. Beraiek ziurrenik, guk baino gehiago eskertuko lukete diru laguntza hori.

Hala ere, ez nuke diru guztia besteengan inbertituko. Bidaia luze bat egingo nuke munduan zehar, kultura eta bizitzeko modu ezberdinak ezagutzeko. Honen zain bizitza osoa eman ondoren, ez nuke aukera ezin hobe hau galduko.

Bestalde, ez nuke bizitzan bat-bateko aldaketarik egingo. Betiko errutinarekin jarraituko nuke eta arreta handiz zaindu irabazitakoa. Ziur aski, probetxua atera nahi dutenak ere ibiliko lirateke nire inguruan eta erne aritu beharko nintzateke hauek iruzurrik ez egiteko. Aberastasunak segurtasunik eza nabaritzera eraman gaitzake, norbaitek lapurtzeko edo engainatzeko beldurra sentitzera edo benetako lagunak zeintzuk diren ez jakitera.

Azkenik, sariaren zatirik handiena aurreztu egingo nuke. Nork daki zer geratuko den etorkizunean? Esaerak dioen bezala, zauria sendatzea baino, ez egitea hobe. Diru pixka bat gordetzea ideia ona litzateke, urte batzuk igarotzean, beharrezko guztia izateko. Beraz, ez nuke dudan guztia gastatuko, bizitza honetan, zuhurrak izan behar baikara. Edonola ere, gutziaren bat erosiko nuke, denok merezi baitugu opariren bat.

### **Zer egingo nuke mundua aldatzeko gai izango banintz?**

Mundua toki zoragarria izan arren, egia da gauza batzuk aldatuz gero, oraindik ere lurralde zoriontsuagoa izango litzatekeela. Nik aldaketak egiteko gaitasuna izango banu, hurrengo egingo nuke.

Lehenbizi, munduko gosearekin amaitzea erabakiko nuke, jan ezagatik jende gehiago hiltzen baita malaria, hiesa eta tuberkulosiagatik baino. Honek osasunarentzako arrisku handia dela argi uzten du. Horrez gain, guztiek ur edangarria eskura izatea ere garrantzitsua da, ur kutsatua edateak gaixotasun ugari sor baititzake.

Horrez gain, etxebizitza bat eskainiko nioke biztanle bakoitzari, bizitza duin bat izateko beharrezko dela baiteritzot. Ezin genezake onartu, familiak kale gorrian bizitzen egotea. Gainera, ume guztiei ikasteko aukera emango nieke, guztiok merezi baitugu aukera bat eskolara joan, ikasi eta lan on bat izateko. Uste dut orain arte ikasteko aukera izan ez dutenen artean, jende oso argia aurki daitekeela eta hauei esker aurkikuntza asko egin genitzakeela, baina adimen ugari galdu ditugula sentitzen dut. Ez da bidezkoa ikasteko aukera gutxi batzuek soilik izatea eta aukera hau aldaketa nabarmena izango litzatekeela esango nuke, denontzako onura.

Umeen eta emakumeen egoera ere hobe daitekeen zerbait dela uste dut. Lurralde askotan, ez dira beraien eskubideak errespetatzen eta gutxietsiak izaten dira. Honekin bukatzea gustatuko litzaidake, guztiok eskubide berberak izanez eta berdintasunez tratatuz. Adibidez, debekatu egingo nuke hamasei urtetik beherako gazteek lan egitea. Lanaren inguruan ari garela, soldata minimoa eta gehienezko lanordua ezarriko nituzke, berdinak guztiontzat. Sufragio unibertsala ere ezarriko nuke, herrialde askotan, emakumeen iritzia ez baita kontuan hartzen eta gizonaren menpe bizi baitira.

Beraz, orain arte aipatutako guztia hitz batean azpimarra genezake: **BERDINTASUNA**. Gizaki guztiok era berean tratatuak izan beharko ginateke,



aukera eta eskubide berberak ditugarik. Berdin dio adinak, arrazak, sexuak, erlijioak, gustuek... Espezie berekoak gara eta ez da justua hainbeste bereizketa egitea.

Helburu nagusi honetaz gain, beste xede batzuk ere izango nituzke. Ekologia arloan lan egingo nuke: birziklatu, berrerabili eta murriztu. Mundua zaindu behar dugu, hau baita gure etxea. Ezin dugu hau deuseztatu. Etorkizunean pentsatu behar dugu, gure seme-alaben nahiz biloben bizilekuan. Horregatik kutsadura gutxitzeari eta natura zaintzeari ekingo nioke.

Bestalde, medikuntzan aurrerakuntzak egiteari garrantzia emango nioke, bizi-itxaropena handitzeko eta gaixotasunen sendagaiak aurkitzeko. Askotan pentsatu dut superheroien botereetako bat aukeratu ahal izango banu, zein hautatuko nukeen: ikusezintasuna, hegan egitea, jendearen pentsamenduak ezagutzea, etorkizuna iragartzea... Baina, denen artean sendatzeko gaitasuna aukeratuko nuke, gaixotasun guztientzako sendabidea izatea. Eritasunek sufrimendua dakarte eta honekin amaitzea zoragarria izango litzateke. Hortaz, beharrezko dakusat, aurrerakuntza hauek egitea sendatzeko, botere hori ezinezko amets soila baita.

Hauek dira nire gogoetetako batzuk. Badaude gehiago, egunero otutzen zait hausnarketa berriren bat baina hauek beste noizbaiterako uzten ditut. Zuek ere imajinazioaren munduan murgiltzera gonbidatzen zaituztet, egoera berriak irudikatzen, esna amets egitera. Baina, hala ere, ez dut gomendatzen gau osoa pentsatzen igarotzea, gutxienez zortzi ordu lo egitea komeni da.



**Igor Makazaga Conde**  
**Batxilergoa 2. maila**

*“Idaztean musika jotzean bezain libre sentitzen naiz”*

## **DENA HASTEN DA BERRIRO**

Haserre egoten naiz  
uda amaitzean,  
zure ondoan egoteko  
denbora gutxiago dudalako.

Haserre egoten naiz  
egunek gris kolorea hartzean,  
zure begi urdinak ikusi beharrean  
laino ilunak ikusten ditudalako.

Haserre egoten naiz  
mintzen nauzunean.

Triste egoten naiz  
zeruan ilargia ez ikustean,  
zure irribarre alaia  
bera bezain zuria delako.

Triste egoten naiz  
itsasoaren hotsa ez entzutean,  
zure kantuen doinuek  
bizitzan laguntzen ez nautelako.

Triste egoten naiz  
mintzen nauzunean.

Kezkatuta egoten naiz  
euriak nire leihoan jotzean,  
zure malkoen irudia  
burura etortzen zaidalako.

Kezkatuta egoten naiz  
haizeak gogor jotzean,  
zure hitz goxoen musika  
zarata hutsa bihurtzen delako.

Kezkatuta egoten naiz  
mintzen nauzunean.

Urduri egoten naiz  
elurra mara-mara erortzean,  
zure esku bero eta finak  
zuri eta hotz bilakatzen direlako.

Urduri egoten naiz  
eguzkia ez ikustean,  
zure ile laburrean  
izpiak islatzen ez direlako.

Urduri egoten naiz  
mintzen nauzunean.

Dena amaitzen denean  
dena hasten da berriro.  
Horregatik hemen nago  
etxe berean,  
kale berean,  
herri berean,  
mundu berean,  
batzuetan haserre,  
batzuetan triste,  
batzuetan kezkatuta,  
batzuetan urduri,  
batzuetan zurekin,  
batzuetan zu gabe

Baina, gaur, pozik nago  
nahiz eta uda amaitu  
eta egunek gris kolorea hartu,  
nahiz eta zeruan ilargia ez ikusi  
eta itsasoaren hotsa ez entzun,  
nahiz eta euriak eta haizeak  
nire leihoan gogor jo,

nahiz eta elurra mara-mara erori  
eta eguzkia ez ikusi.

Baina, gaur, pozik nago  
mintzen ez nauzulako.

Eta alai egoten naiz  
ausart sentitzen naizelako,  
oztopoei aurre egiteko gai naizelako,  
maite nauen familia bat daukadalako  
eta betiko lagunak nirekin daudelako.

Alai egoten naiz  
zuk maite nauzulako.

Eta, orain, zoriontsua naiz  
zure ondoan nagoelako.  
zure begi urdinak ikusten ditudalako,  
zure irribarre alaia eta  
zure kantuen doinuak entzuten ditudalako,  
zure esku bero eta finak  
nire eskuetan daudelako.

Eta, orain, zoriontsua naiz  
nik maite zaitudalako.



**Iranzu Barandika Urrutia**  
**Batxilergoa 2. maila**

*"Euskara hizkuntza minorizatua bada ere, badauka hizkuntza nagusiagoek ez daukaten zerbait: euskaldunok hiztun izateaz gain, hizkuntzaren maitale ere bagarela"*

## **BURDINAK**

Ez dirudit orain dela hiru aste nintzen emakume berdina. Ahaztu egin dut zer diren ilusioa, urduritasuna eta poztasunak dakarren begietako dirdira. Hala ere, hemen ez da dena ahazten; ikasi ere egiten da. Nekea, gosea, beldurra eta mina zer diren ikasi ditut. Behin esan nuen ikastea positiboa zela ikasgaia edozein delarik ere, denetarik ezagutu behar dela, bizipenek aberasten gaituztela. Gaur, edonork galdetuko balit erantzuna bestelakoa izango litzateke. Bizipen batzuek aberastu beharrean itzali egiten gaituzte. Horregatik ez dut beldurrik jasaten ari naizen egoera honi bizipen deitzeko; bizipenak beti dira ezagutza berriak baina ez dute zertan positiboak izan.

Duela hiru aste, uztailaren 10ean, goizeko ordu txikitan izartu ginen Ander eta biok. Egia esan, ez nuen gau osoan lorik egin urduritasuna zela eta. Zortzietan genuen Mexikorako hegazkina. Guztia prestatuta geneukan arren, lauretan iratzargailuak jo zuen. Barre algaraka geunden nahiz eta orduak ez zuten halakorik eskatzen eta auzokoei esnatu izanagatik barkamena eskatzeko opari bat ekarriko geniola zin egin genuen. Bostak aldera kotxean sartu eta gure eztei bidaia hasi zen.

Aireportura heldu eta hegazkina hartu arteko denbora luzea izan bazen, hegazkina Mexikon lurreratu arte pasatu zen denbora ia amaigabea izan zen. Gosari bat gaizki prestatzea zaila bada ere, hegazkinekoek ia guztiok ezer jan gabe gelditzea lortu zuten. Gure ondoko eserlekuan zegoen gizon lodi batek bukatu zuen gosaria, baina bazkalorduan edozer jateko gai zela erakutsi zuen inor dastatzera ausartu ez zen bazkaria ere amaitu zuelako. Lurreratzen geundela azaldu ziguten eta Mexiko aukeratu izanaz damutuko ez ginela jakin nuen une hartan.

Lurreratu, gure ekipajea hartu eta lehenengo egin genuena komunera joatea izan zen. Andrazkoen komunean sartu eta emakume atsegin mexikar batek txokolatea eskaini zidan. Ez naiz txokolate zalea baina hala ere onartu eta esku zorroan gorde nuen. Pena eman zidan emakume zahartxoak, txokolatinak edozeini eskaintzen egotea ez da seinale ona. Bakarrik zirudien. Irribarre atsegin batez onartu eta alde egin nuen.

Irteeratik gertu geundela polizia txakurrak gerturatu eta zaunka hasi zitzaizkidan. Ofizialek nire zorroa arakatzeko beharra zeukatela azaldu zidaten eta arazorik ez neukala adierazi nien. Esku zorroa arakatu eta txokolatina zabaltzean 15 gramo kokaina aurkitu zituzten. Aho batetik bestera informazioa dantzan zebilen baina begirada guztiak finko zeuden, denak niri begira. Ofizial batzuek gogor eutsi zidaten eta birritan pentsatu gabe eraman ninduten.

Aireportuko amets gaizto hartatik bi egunera eraman ninduten kartzelara. Garrasiak. Arima urratzeraino garrasika zeuden emakumeak entzun zitezkeen. Denbora labur honetan ulertu izan dut espetxeratuak zaren unean bertan arima alde batera uzten duzula. Gorpua baino ez zaizu geratzen eta bizitza burdinetatik at geratzen zaizun ezezaguna baino ez da. Begirada altxatzera ausartu eta berehala damutu nintzen.

Dirua izateak edo ez izateak desberdintasun nabarmena dakar bizimoduan. Jateko, ura edateko, dutxatzeko, komuna erabili ahal izateko eta lo egiteko ordaindu egin behar da. 45 metro karratu dituen logela batean hirurogeita hamar emakumeek egin behar dugu lo eta beroa jasanezina da. Jendeak etzanda lo egiteko tokirik ere ez du aurkitzen eta asko eta asko ez dira gauean altxatzen komunera joateko. Kiratsa nazkagarria izaten da eta lo egitea ia ezinezkoa. Ezer hoberik egiteko ez dudanez gero, hainbeste eta hainbeste ordu ematen ditut pentsatzen. Kartzela honetan infernua mailakatuta dago eta maila batetik bestera pasatzeko tresna bakarra dirua da. Dena den, espetxe hau munduko egoeraren metaforatzat hartu dut zenbaitetan. Izan ere, dirua ez da ba daukagun gizartearen oinarria? Munduko gauzarik baliotsuenak ez dira gauzak izaten, ez dira ordaintzen, ez dira neurtzen. Hala ere, dirurik gabeko bizimoduak egoera latzak bizitzera behartzen gaitu eta aberastasuna diruz neurtzen dugu. Gaur oraindik, mundua mailakatuta dago eta tristeza da mundu mailan ere dirua izatea mailatik mailara pasatzea baliatzen digun tresna bakarra.

Aberastasun eskasiak osasun arazoak ekarri dizkit baina duintasuna galdu izanak kaltetzen nau gehien eta ez du diru kontuekin zerikusirik. Munduan sufrimendua ikustea gustuko duen jendea dagoela ikasi dut. Gainontzekoak zapaltzeak norberaren poztasuna ekarriko balu bezala, besteen sufrimenduak indartuko balie bezala. Nik sufrimenduaren ikasgaia azterketa mediko bat egitea ezinbestekoa zela esan zidaten egunean ikasi nuen. Aurpegian irudikatu zitzairen irribarre erdiagatik atsegina izango ez zela ulertu nuen. Hortik hamar minutura, Mendez medikua bezala aurkeztu zen gizon zahar bat sartu zen gelara. Leku hartan pozik zirudien bakarra zen. Bere hortzak esku bakarreko atzamarrekin zenbatu zitezkeen eta haren begietan egin zitezkeen azterketa ez zen atsegina. Ahots sakona zeukan eta nolabait haren hitzak memoriaz ikasten dituzun horietakoak ziruditen. Astiro hitz egiten zuen, momentu hark betirako irautea

nahi izango balu bezala. Gelan eserleku eroso bat eta mahai bat baino ez zeuden. Eserlekua gela erdian jarri, bertan eseri eta biluz nendin agindu zidan. Nigandik hogeï zentimetro eskasera zegoen, bere begiak nire gerriaren parean. Izoztuta gelditu nintzen. Mutu, mila ideia burutik pasatzen zitzaizkidalarik, belarrietan mina, hanketan dardara, birikietan arnas falta eta begietan erortzear zegoen malkoa nituela. Izotza su handi batek urtzen duen bezain erraz urtu nintzen lehenengo oihura. Biluz nendin oihukatu zidan, ez zeukala denbora galtzeko gogorik. Ondoren, irribarre nazkagarri batez denbora galtzeko gogorik ez zeukan arren goiz osoa nirekin pasatu behar bazuen pasatuko zuela esan zidan. Biluzten hasi nintzen eta bere begietan azaltzen zen goseaz ez ohartzen saiatu nintzen. Arropa guztiak erantsita nituela bere begietako suak guztiz urtu ninduela ulertu nuen. Indarrrik gabeko ur putzu baliogabe bat bilakatu nintzen gela haren erdian.

Bost minutu amaigabez begiratu ninduen. Goitik behera; behetik gora. Altxatu eta nigana hurbildu zen. Bere arnasa senti nezakeen eta bat-batean esku handi baten ukimena sentitu nuen. Bularretan ahaztu nahi ditudan igurtziak. Gero pixkanaka beherantz mugitu zuen esku bat besteak ezkerreko bularrean jarraitzen zuelarik. Eskua zenbat eta beherago orduan eta zorabio handiagoa sentitzen nuen eta gehiago ezin nuela ikusirik oihu egin nuen, ozen. Garrasia amaitzerik ez nuen izan esku batek aurpegian gogor eman ez isildu ninduelako. Beste eskua ezkerreko bularrean, oraindik. Barre egin zuen eta osasun arazorik ez nuela esan zidan, baina azterketa medikoak behintzat hilabetetik hilabetera egingo zizkidala. Osasuna denaren gaintetik zegoela. Irribarre azken aldiz. Bakarrik gelditu ahala oka egin nuen.

\*\*\*

Atzo Ander etorri zitzaidan bisitan. Atzora arte bisitarik egiten uzten ez ziotela azaldu zidan, baina entzun ditudan kontuengatik berriro hemendik ez agertzeko eskatu diot. Izan ere, bisitan datozenei zenbait presok mehatxu egiten die dirua eman diezaien eta aldean ezer ez izanez gero utzi dute jendea hiltzorian inoiz. Ofizialek ez ikusiarena egiten dute edo beraiek hartzen dute parte mehatxuan. Hala ere, Ander ezagututa badakit bisitan etorriko zaidala. Hemendik aterako ninduela zin egin zidan eta esperantza hitza hogeï bat aldiz errepikatu zidan gure 15 minutuko bisitan. Dena den, badakit berak ere itxaropena antzina galdu zuela. Triste zegoen, ni bezain itzalita beharbada. Horrek mintzen nau gehien. Lo egiten ez zuela esan zidaten bere begiek, ez zuela ia ezer jaten bere eskuetako hezurrek, baina bere ahotik ez zen egiarik atera. Nik bera ezagutzen dudan bezain ondo ezagutzen nau berak. Ez nion esan ez nuela jaten, ez nuela lorik egiten, negarrez ematen nituela gau eta egunak, kolpeak jasaten nituela, arnasa hartzea zer den ahaztu dudala. Ez zen beharrik egon. Kartzeletako gauzarik txarrenak ez direla burdinak izaten baino ez nion esan. Isiltasuna. Burdinen artean begiradak.

Agurtu ginenean beldurra sentitu nuen. Hamabost minutu horietan babesa sentitu nuen aspaldiko partez. Gauza askorengatik beldurtu gaitzke, baina maite duzun horretatik bananduta egoteak benetan izutzen gaitu. Ander nire babesa izan da luzaroan eta ni berea. Hitzak haizeak eramaten dituela uste dugu biok eta ekintzetan oinarrizten gara elkar maite dugula adierazteko.

Haserretuta ere behar izanez gero elkarren ondoan egongo garenaren ziurtasuna geneukan orain arte. Indartu egiten ninduen, edertu, hobetu. Ez dut inor behar osatu nadin, banaiz ni bakarrik ere. Baina zaila da azaltzea osotasun horretan izan dituzun akatsak, txikiak zein handiak, ulertzen eta maitatzen dituen norbait ezagutzen duzunean gelditzen zaizun sentsazioa. Txikitasunetik handitasunera bakarrik pasatu bazara ere, handia izan beharrean norbaitentzat erraldoia zarela jakitea. Handitasuna erraldoi bilakatzea da maitemintzearen sekretua.

Dena den, espetxean, bizitzea da jakingaia. Nola bizi orain arte maite izan ditudan gauzetatik urrun. Bizitzan pertsona batekin bakarrik maitemindu beharrean erraldoitasuna beste muga batzuetan bilatu behar da. Lagunekin maitemindu behar da, etxekoekin, ikastetxearekin, udako oporrekin, gosariekin eta dutxekin, lo orduekin, ondo amaitzen diren haserreekin, kantuekin, euriarekin eta egun beroekin, lotsarekin, negarrarekin ... Pozik mantentzen zaituen errealitatearekin maitemintzea da helburua. Urrun dituzunean faltan botako zenituzkeen guztiekin gozatzea.

Egia esan, ez dakit komunean aurkitu nuen andreak zergatik eskaini zidan txokolatina. Ziurrenik norbaitek ordaindua izango zen, gu kartzelan sartzeko asmoarekin eta honela eroskeriaz dirua lortu ahal izateko. Dena dela, horrelako jendeak pena ematen dit. Ez dute ikasi bizitzaz maitemintzen eta hori da duten arazorik handiena. Txikitasunean diraute, aberastasun materialetan zorientasuna aurkituko dutelakoan.

\*\*\*

Ez dut luzaroan hemen iraungo. Goseagatik, minagatik, osasun faltagatik ez bada itxaropen faltak itzaliko nau. Karratu honetako lau hormetan dauden urradura, pintada guztiak buruz dakizkit jada. Hainbat eta hainbat presoren memoriek gogoratzen dituzten airerik birziklatzen ez den lau horma hauek, betiko gogoratuko ditudala pentsatzen hasia naiz. Hauek nire memoriaren parte handi bat beteko badute, nire herria, maite ditudan ahaztuko ditudan galdetzen diot gaur nire buruari. Haizea ahaztuko dut, amaren aurpegia, euskara, koloreak eta nire sustraiak. Hemendik aterako naiz eta hilda ez bada guztiz itzalita bai behintzat. Badakizuenez, kartzeletako gauzarik txarrenak ez dira burdinak izaten.





**Xabier Ojanguren**  
**Batxilergoa 2. maila**

*"Beldur eta iritzien gainerik, eman zure ametsei hegoak, zoriontasun bihur daitezten"*

## **IZARREK ERE HEGAN EGITEN DUTE**

Beti pentsa izan dut, izarrek tinko eta geldi egoten baino ez dakitela, hango goiko beste izarrekin batera, milaka argi urtetara nigandik.

Beti pentsa izan dut, oinak geldi dituenak ez duela inoiz hegan egiterik lortuko. Ametsak; esango dute askok ametsak direla hutsune erraldoi horretan zehar jauzi eginez hegoak lortzeko bidea. Baina, behin bizi garen ipuin faltsu honetaz ohartzean, ametsen iruzurra ezagututa, sustriak errotzen zaizkigu lurzoru likatsu honetan.

Nik behin, irudiz aldatzea lortu nuen, behera begira egoteari utziz, ortziari irri egiteko adorea lortu nuen. Beno, nik lortu baino, ortzi horretan zegoen inoiz ezagutu dudan izarrik distiratsuenak lortu zuen, nire atsekaberako.

Gogoan dut, jada berriz burua makurtzera eraman nauen bizitzak berak, kolorea hartu zuen egun hura. Egun hartatik aurrera, bizitzaren mihiseak, gero eta kolore biziagoak hartu baino ez zuen egiten, margolari apetatsu batek margoturiko lan amaigabea bailitzan. Eta momentu batzuetan, jada gehiago koloretzea ezinezkoa zela ematen zuen arren, inoren irudimenaren gainerik, bizipozak oraindik gehiago betetzea lortzen zuen nire bihotza. Ordutik aurrera ... gaur arte.

Ez ditut inoiz ahaztuko, etxera bidean nengoela, betiko umeen parkean, hutsik zegoen horretan, nire begi grisetan arrakala argitsu bat eragin zuen musika doinuaren, eta batez ere, biolin hura jotzen zebilen aingeruaren aurpegia. Hasiera batean ez nintzen kontziente benetan, nire barnean piztu zen itxaropenezko bonba horren deiaz.

Baina dena denbora kontua izan zen. Handik gutxira gure ikasgelan kide berri bati ongietorria eman baikenion. Nire alboko eserlekuan eseri, eta bihotzak beste bultzada bat eman zion nire gorputzari. Oraindik, zer zen ere imajina ezin nezakeen zerbait zen hura.

Udaberria zen jada, eta zuhaitzak loratzen hasiak zeuden. Gogoan dut hori, neska hura etxerako bide, ordura arte luzean, baina handik aurrera geroz eta laburragoa egiten zitzaidan horretan, nirekin etortzen baitzen. Eta beti irribarre egiten zuen gereziondoen azpitik pasatzen ginenean. Barrez lehertzekoa izan behar zen edonorentzat, bikote atipiko hura egunero, etxerantza batera ikusten zuenean. Izar argitsu batek ez baitzuen zentzurik mutiko burumakur eta gris baten alboan. Nire aurpegi eta irri huts eta goibelak, bere irri betearen alboan egoteak, kontraste deigarria eragiten zuelakoan nago.

Ez zen baina, luzaroan hutsik egongo irri goibel hura. Nire bakardadearen hiltzaile egin baitzen aingerua. Zortea? Halabeharra? Edota agian, miraria? Hasiera batean hala ez bazen ere, gerora, neure buruari askotan galde egingo nion, ea, hain egoera jasanezin eta lasaitasun gabekora eramaten ninduen izaki hori, behin eta berriro nire bizitzaren matazan agertu eta korapilatzea kasualitate hutsa bazen. Izan ere, lehenengoa ikasgelan agertzea izan zen. Baina horren ostean etorri zirenak kontuan izanik, edonork, ume galdu eta ilun baten bila lurrera jaitzitako ongiaren argi-izpitzat hartuko luke neskatoa.

Ez zen bada nire logelako leihoaren parean dagoen eraikinera etxez aldatu? Ez zen aitzitik nirekin etortzen eskolatik egunero? Ez zen izatez, eskolako proiektu ia guztietan nirekin suertatzen? Eta zer esan hurbiltasunari dagokionez, heldu eta gutxira nire lagunik onenaren neska lagun egin zenetik?

Goizero eta arratsaldero, nire bizitza lasai baina zentzu-gabea kolorez bustitzeko, ez neukan leihotik begiratzea baino. Ni lanak egiten nengoela, bere logelatik zetorren biolin-doinu goxo eta hunkigarria iristen zitzaidan. Zapatu goizetan, ohe gainean musika entzuten zegoela eleberriak irakurtzen ikus nezakeen. Nork egin zekioken hain izaki zintzo eta eder bati minik? Ez zen behin soilik izan, ametsetan murgilduta, bere aurpegi alaiaren marrazki bat egin nuena. Betidanik marraztea gustatu arren, ez zitzaidan beste munduko ezer iruditzen. Neska hura bai ordea.

Ni beti nota onak ateratzen dutenetakoa izanda, askotan etortzen zen Eki, nire laguna etxera ikasten. Eta hara! Nola diren gauzak, nahigabe ere, nigandik hurbil bukatzen zuela beti neska hark. Gero eta sarriago ikusten nituen biak nire etxean, hirurok lanak egiten genituela. Ez bainuen izan besterik, neskatoa, Ekiren neskalguna eta nire auzokoa zenez geroztik. Hala ere, alboratuta sentitzen nintzen beti. Lagunaren itzal hutsa izango banintz moduan. Hain zoriontsu ikus nitzakeen biak, han goian distiratsu eta urrun ...

Nire zoritxarrerako baina, neskak ez zuen egiten beraganako nituenURREUSTE eta irudiak gainditzea baino. Hain zintzoa eta baikorra zen une guztietan ... nire bakardadeak oihuka eskatzen zuen eskua zen bera.

Gogoan dut ere, nola ez, asteazken arratsalde hura. Nire amonaren azken eguna. Eskolatik irten eta etxera bidean geundela, udaberri amaiera izan arren, ilun zegoen egun hura negar betean hasi zen. Aterpe batean itxoiten gelditu ginen pixka batean, atertzera itxoiten, eta une hartan amak deitu zidan, lanetik irten behar izan zuela ospitalera joateko, amona oso larri baitzegoen. Bihotza dardaraka nuela ospitalerako bideari ekin nion. Nola ez, nirekin zetorren arima garbi hura. Eta blai eginda korrika ari bagina ere, eta nire amona hilzorian bazegoen ere, nire barrenik sakonenean, poz edo esperantza, edo alaitasun, edo sentsazio ez ohiko bat sumatu nuen. Bai, banekien norbait nirekin zegoela. Ez nengoela bakarrik.

Amonaren azken hitzak denok entzun genituen: "Zeri begira ari zarete denok? –esan zuen- Nik jada bizi dut behar nuena, eta ongi bizi ere. Orain zuen txanda da ibai honen urlasterretan barrena olatuak hartuz zorientasunari habia egiteko. –eta begietara begiratu ninduen; eta segidan neskari, eta gero denoi- Zer zabilzate negar egiten ni bezalako atso baten azken uneengatik? Garrantzitsua ez da atzera begira bizitzea, har itzazue hegoak eta igo izarrengana, irribarre baten distiraz izan garenon lanaz gozatzeraz, geuk ere hala egiten jakin baitugu!" Harrigarria, eta negargarria benetan, hilzorian zegoen emakume haren begiek, nireek baino distira sutsu eta biziagoa igortzea. Eta hala hil zen amona, begietako sua itzali gabe, olatuaren gainean. Amak etxera joateko agindu zidan. Eta hala egin genuen neskak eta biok. Orain ez zen ortzia, negarrez ari zen bakarra. Nire barrua, hutsik zegoela ohartu baitzen. Baina, orduan, beso batzuen beroak malkoen jariora eten egin zuen, euriak geure buruen gainean erortzen jarraitzen bazuen ere. Eta momentu honetan gogoratzen ez ditudan, baina nire barruan beste erloju bat piztu zuten hitz batzuk irten ziren, ni besarkatzen ari zen, eta begian malko bat zuen neskaren ahotik. Eta berriro, nire barrenik sakonenean, argi lotsati bat piztu zen. Tximeletatxo bat jaio zen. Pozik nengoen? Ez. Agian lasaituta? Ezta ere. Nola deitzen zen sentimendu hau? Udaberriaren deia?

Ordutik aurrera, aingeru jainkotiarra miretsi baino ezin nuen egin. Bere alboan egoteak, nire barruan ezinegon izugarri bat eragiten zuen. Zerbait esateko premia nabaritzen nuen. Eta lotsak nire barrenak dantzan jartzen bazituen ere, beldurra izaten nuen. Beldur nintzen beragandik urruntzeko. Nire desiorik handiena, berarekin nengoen momentuak denboran gelditu eta betirako irautea zen. Zer demontre zen bada sentimendu hori?

Eta udaberriaren haizeak, aurre eman zion udari. Azken azterketa gartsu horiek, nahi izan baditut ere, ezin ahaztu, bitartean neskarekin emandako ikasketa orduak gogoan izanik. Eta aitak harriturik esan bazidan ere, nire barruarentzako izugarritzako ezustekoa izan zen irribarre egin nuela konturatzea.

Haiek barre algarak, ikasturte bukaerako afarikoak! Algara sinestezinak niretzat. Sinestezinak baina lasai eta pozgarriak aldi berean. Beste norbait ematen nuen. Edo ez. Ni neu nintzen baina eraldatzen ari nintzen. Eta ezin nuen besterik egin, neskaren alaitasunari atxikitzea baino. Nire heroia, idoloa bera.

Eta guztia hoberantz baino ez zihoan. Nire lagunak neskarekin uztekotan zegoela esan zidanean, ezin nuen nire barneko garrasia baretu. Lehertzeko gai ikusten nuen neure burua. Zoriontasunez lehertzeke nengoen.

Hala geundela, udako arratsalde batean, Ekiren etxean mahai jokotan, neskaren beste lagun batekin, zeinekin ere sarri egoten ginen, nire heroi miretsiak mendi irteera batera gonbidatu gintuen, gau bat pasatzera, bere gurasoekin.

Ezin nire zirrarari eutsi, Ekik ezin izango zuela joan esaten entzun eta hala ere ni gonbidatu egin ninduenean. Nabari zen, nire betiko laguna, neskaren lagunarekin erabat erotuta zegoela, baina ez zela ausartzen egia esatera.

Eta hala, ez dut inoiz ahaztuko, iluntzean, aintziraren ertzean eserita, nire heroiak, beste neskak eta nik bota genituen barreak. Eta horrela, gau erdia iristeko zegoela, gurasoak lo eta gu etzanda izarrei begira sutondoan, aintziraren ertzean, beste neskak lo egitera joatea erabaki zuenean, eta nire miretsiak arren eskatu zidanean ni oraindik joan ez nendin, batera izar uso bat ikusi arte.

Nire bihotza milioika taupadaka segundoko ari zen. Nire barneko bonba lehertzeaz zegoen, eta bazirudien, momentu horrek betirako iraungo zuela. Banekien zerbait esan behar niola. Nire barruan gatibu zeuden bi hitz askatu behar nituela. Baina ezin. Bere arnasa entzun nezakeen. Lasaia baina pixka bat urduria. Eta hitzak askatzeko zeudela, bere ahotik irten ziren beste hitz batzuek, gauaren isiltasun baketsuarekin bat etorri ziren: "Naia gustatzen al zaizu?" Esan zidan gora begira jarraitzen zuelarik, bere lagunagatik galdezka. Baina nik ezetza emateko denbora izan aurretik, nire eskuari heldu zion, eta bere bularraren gainean jarri zuen. Bihotza aztoratuta zeukan. Ezinezkoa, nire egoera berean al zegoen? Eta bere ahotik irten zenak arnasa gabe utzi eta bihotzaren eztanda eragin zuen nigan: "Badakizu zer? Ez dut benetan Eki gustuko. Nik ... zu maite zaitut." Eta bere bihotzaren taupadek abiada izugarria hartu zuten. Nirearen tankera. Hitzik gabe nengoen. Ezin erabaki zer esan. Ezin sinetsi, han goian zegoen izar distiratsu hark, ni bezalako harri goibel baten beharra zuenik. Zer zen nire barnean sentitzen nuen danborrada gupidagabe hori? Nola deitzen zen? Ah bai. Orain bai: maitasuna da. Ia nik nahi izan gabe, nire ahotik lau hitz lotsati irten ziren, oraindik biok gora begira jarraitzen genuelarik: "Nik ere maite zaitut". Neskak jarraian oihu egin zuen, oraindik nire eskua eusten zuelarik, gauaren isiltasuna errotik zatituz: "Izar uso bat!!!" Gora begiratu, eta nire bizitzan lehen aldiz, izar hegalari bat ikusi nuen. Ortziaren alde batetik, beste muturreraino zeharkatu zuen gaua. Baina, nire bizitzan lehenengo aldiz al zen benetan, izar bat hegan egiten ikusi nuena? Une bat lehenago ikusi edo sentitu nuenaren *deja vu-a* neukan. Hortaz, izarrak ez dira beti hor goian, geldi eta heldu ezina den urruntasunean dauden argi distiratsuak. Momentu horretan konturatu nintzen, izarrek ere, hegoak dituztela, eta hala, arrokek, haien bidez soilik bada ere, hegoak lor ditzaketela, hegan egin eta distiraz gainezka etorkizunari irri egin eta zoriontsu izateko. Tik!

Baina une horretan bertan, zoriontasunez gainezka nengoela, neskari begiratu, eta haren begitik negar-malkoak erortzen ari zirela nabaritu nuen. Irribarrez ari zen, eta begiak, amonarenak bezala, sugarrez gainezka zeuden. Baina negarren atzean banekien zerbait bazela. Eta orduan, nire buruari heldu zion, eta belarrira esan zidan, goxo-goxo, baina, gauaren hotzak baino hotzikara nabariagoa eragin zidalarik:

“Ba al dakizu zergatik etorri nintzen zure hirira? Nire herrian ez zegoen ganorazko ospitalerik. Bai. Gaixo nago. Oso gaixo, eta ez dakit honetatik irteterik izango dudan. Bihar bertan, nire bizitza jokoan jarriko duen operazio bat daukat. Eskerrik asko benetan, oparitu dizkidazun momentuengatik, eta eskerrik asko bizitzen jarraitzeko beharrezko indarra emateagatik. Barkatu iruzur egin badizut inoiz, baina ez nuen besterik zuregana hurbiltzeko. Baina ez zaitez nigatik arduratu mesedez. Gehiago ikusteko aukera izango baitugu, ametsen mundu ederrean. Ametsen mundua baita, hegan egiteko aukera ematen digun miraria. Miraria. Zu bezalakoa.”

Irribarre zintzo eta alai batekin begiratu, eta muxu luze eta zoriontsu batean murgildu ginen, lo geratu aurretik.


Egun oso bat pasatu da ordutik. Eta nire esperantzek aspaldi lurra jo dute. Amonak esandako olatua pasatzen utzi ote nuen, hartu ahal izan nuenean? Benetan al dira izarrak, nik pentsa bezala, betirako dirauten argiak? Argia. Nire leihotik begiratuta ikusi ezin dudana. Bere gelako pertsiana erdi itxita eta argia itzalita dago. Ez dut esperantzaren iturririk. Iturria orain, nire bihotzean dagoen ekaitz euritsua omen delako.

Ah! Eta nola deitzen zen neska?:

*Hegoa.*

Guxtiz egokia. Bai. Hala bedi. Zeruraino igoko den hegoa.

Itxoin! Zer da hori?! Argia piztu da bere logelan! Ametsetan ari al naiz jada? Ez. Benetan da. Pertsianak igo dira. Eta nire begietara izar uso hegalaria baten dirdaia iristen da!



**Julen Oleaga Azketa**  
**Batxilergoa 2. maila**

*"Egiten dugun bideak egiten gaitu gu."*

## HAN URRUNEAN

Disko gogor zaharraren antzerako zerbait gertatu zitzaion amama Klarari. Aspaldian, oso aspaldian, barruan gordetako informazio guztia hantxe zeukan nonbait, baina informazio berririk ez zitzaion kabitzen. Bazekien Gernika nork bonbardatu zuen 1936an, bazekien zer eraman zion aitonari otzaran kartzelan zegoela, bazekien zein egunetan jaio ziren bere seme-alabak, bazekien zein egunetan hil ziren bere nebak, bazekien nor izan zuen bere maistra, bazekien esneak zein prezio izan zuen azken hogeita bost urteetan; baina ez zekien zer bazkaldu zuen ordu erdi lehenago.

Diruak zertarako balio zuen ahaztu zitzaion lehenengo. Akaso zertarako balio zuen jakingo zuen, baina karteran zituen billeteek zenbat balio zuten kalkulatzeko ez zen gai. Gernikako azokan erregateoan trebatutako emakume hark, ez zekien billete batekin zenbat erosi zezakeen. Gure aurpegiak bereizteari utzi zion gero. Ahiztoa eta koilara zertarako ziren galdetzen zigun begiekin, ondoren; eta, goiz batean, hitz egiten ahaztu zitzaizola konturatu ginen. Goizeroko moduan jaiki zen ohetik, baina ez zuen ezer esaten: ez onerako, ez txarrerako. Mututasun hura, zentzurik gabeko hitzen kate luzea baino okerragoa zen.

Ze, amama Klarak barre asko egiten zuen. Ez zuen esaten geniona ulertzen, ez zigun elkarrizketaren haririk eramaten, baina barre egiten zuen. Esaten ziguten Alzheimer izeneko alemaniar baten erruz beste mundu batean bizi zela, baina ez; gure amama hemen bizi zen, eta gure elkarrizketaren bideetan galtzen zenean barre egiten zuen. Barre, lotsatu egiten zelako galdu egin zela onartzen, eta barre, gure munduan bizi zelako; eta guk nahiago genuelako berak barre egin zezan negar baino. Eta mututasun hura iritsi

zenean, barre egiteari utzi zion, eta goiz hartatik aurrera, ez zigun barre egin urre gorritzko haginak erakutsi arte. Orduan hasi ginen ulertzen, amamaren disko gogorra gero eta beteago zegoela. Gainezka egiteko zorian.

Izan ere, amama Klarak poz eta min gehiegi zeukan disko gogorrean. 1936ko apirilaren 26an Muxikatik ikusi zuen Gernika nola errausten zuten. Artean, sei bat hilabete lehenago jaiotako umea zeukan besoetan. Senarra frontera joana zen, eta aita zaharra eta biak ari ziren nola edo hala baserria aurrera ateratzen. Apirileko gau hartan etxe osterara joan ziren aita-alabak umea lo utzita, eta ez zuten farolik behar izan jostorrazaren begian haria sartzeko. Gernikako suak egiten zien argi, eta isilik, isil-isilik, elkarri ezer esan gabe egon ziren gau osoan hantxe, geldi. Hurrengo hiru egunetan ere, etxe ostetik Gernikako suaren kea ikusten omen zuten. La Voz de España irakurri zuten gorriek erre zutela Gernikan, eta gorrietako bat etxean falta zuten guztien moduan isil-isilik eutsi zioten minari.

Frankoren aldekoak Marokon gora igo ahala, etxetik alde egin zuten amama Klarak eta bere aitak. Ume txikia besoetan, senarra frontean, esku bana aurrean eta atzean zutela heldu ziren bueltan Muxikara. Baserri zaharra lehengo lekuan topatu zuten, baina barruan ez zegoen ezer. Aitona arotza izan zen gerra aurretik, eta amamak eta berak lo egiten zuten ohea berak egina zen. Ezer ez zeukaten, eta lehen egunetan lurrean lo egin ostean, hil hurren zen emakume bati errosarioa errezatzera joan zen amama Klara. Zer aurkituko auzoan, eta bere ohea, senarrak bien inzialekin egindako ohe burua! Isil-isilik, zaratarik atera gabe, eraman zuen ohe hori etxera, eta gauetan, isilean, negar egiten jarraituko zuen seguruenetik. Baina orain, behintzat, ohean egingo zuen negar.

Agian horregatik, isil-isilik gordetako min guzti horrek eraginda edo, disko gogorra bete zitzaionean, izenak esaten hasi zen amama Klara. Bat batean esaten zigun: "umeak, zuek ez sekula txaketarik aldatu". Ez genekien zergatik esaten zigun, baina berak esan egiten zuen: "hango baserriko ha, edo beste baserriko hori, gerra ostean txapel urdina eta borla gorria jantzita ibiltzen ziren". Borla gorria? Amama zer da borla gorria? "Karlistema umea, Karlistema!".

Eta txakurrak baten bat iritsi den abisurik eman ez gero "shhhhhhh" egiten zigun, atzamarra ezpainen gainean jarrita. "Ez fidatu inorekin umeak, ez fidatu inorekin!".

Jakina, guretzat zentzurik apenas zeukan erretolika hori guztia, askoz interesanteagoa zen gero etorri zen isiltasuna baino. Begirada han nonbait, eskuekin amantalari eragin eta eragin, hankekin inork ez zekien erritmoa markatuz, isilik. Beti isilik. Berba egiten genion zerbait esan zezan, baina ezagutuko ez bagintu legez begiratzen zigun. Eta orduan konturatu ginen disko gogorrak betirako krak egin ziola: ez zuen informazio berririk ateratzen, baina lehen gordetako informazioa erakusteari ere utzi egin zion.

Astelehenetako bendajeak amaitu ziren. "Begira amama zelako tomateak!", baina inoiz bakar bat ikusiko ez balu bezala begiratzen zigun. Guk bagenekien asko ikusi zituela bere bizitzan, eta egosi, eta ozpinetan jarri, eta

saldu, eta erein, eta sartu, eta ura egin, eta sufrea bota. Indabak garantzen genituenean ondoan esertzen genuen, baina ez zigun begiratu ere egiten. Hara urrunera begiratzen zuen zertan ari ginen jakin nahi izango ez balu bezala, eta horrela, egun batean bera bakarra jesarri eta altxatzen ere ahaztu zitzaion, eta komunerako bidean galtzen hasi zen, eta eskuekin amantala astintzeari utzi zion, eta gau batean, isiltasun gehiegizkoak harritu gintuen. Hankekin erritmoa markatzeari utzi zion.

Orduan, amama Klara presentzia isil bilakatu zen. Gerra ostean bezain isilik, bere minak eta pozak barruan gordeta, iraun egiten zuen. Guk bagenekien zenbat lan egin zuen umeak hazteko, zenbat indar egin zuen ilobek euskaraz egin zezaten, zenbat ordu egin zituen artajorran, zenbat aldiz etorri zen Gernikako azokatik haserre, zelan gustatzen zitzaion ileapaindegira joatea, zenbat disfrutatzen zuen meza ostean bere lagunekin. Berari, ordea, den-dena ahaztu zitzaion. Abadea etortzen zenean ere, ez zion kasurik egiten. Abadeak Agur Maria errezatzen zuen bere aurrean jarrita, eta berak, umetan errezatzen irakatsi zigun emakume hark, begirada han urrunean jartzen zuen isil-isilik. Beti hain urrun. Zenbat aldiz galdetu ote nion neure buruari zeri begira egongo ote zen amama Klara.

Baina egun batean, betiko moduan hizketan ari nintzaiola, begirada Muxikara ekarri zuen. Ez dakit nola, zergatik eta non, baina nire begiak aurkitu zituen eta begira-begira gelditu zitzaidan. Ez zuen ezer esan, baina irudipena dut nire barruan zerbait aurkitu zuela, begiradarekin arakatu egin ninduela, eta zerbaiten esaten ari zitzaidala ulertu nuen. Zerbait esan nahi zidan bere begirada sarkor harekin, baina ez nekien zer, eta ezin nion galdetu, aspaldi erabakia baitzuen isilik eustea, eta esaten nion, "amama zeri begira zaude?", baina ez zidan ezer erantzuten, eta begira jarraitzen zuen, eta isiltasun hark hain urduri jartzen ninduen...

Handik egun gutxitara begiak itxi zituen amama Klarak. Badirudi, oinarrizko zenbait gauza ezin direla nahita ere disko gogorretik kendu, eta asmatu zuen nola deskantsua hartu. Isil-isilik, ia inor konturatu gabe begiak itxi zituen, eta abadeek zerua deitzen dioten lekura joan zen. Disko gogorrean oraindik ere gauza asko zituen gordeta, baina ordenagailu zaharrarena gertatu zitzaion: informazioa berreskuratu ezin denean Garbigunera botatzen ditugu eta kito. Amama Klara ez genuen bota. Deskantsua hartzea erabaki zuen, eta guk goxo-goxo utzi genuen betiko loan. Batzuek esango dute Alzheimerrak eraman zuela, beste batzuek Jainkoak deitu ziola, askorentzat bizitzaren legea izango da, baina nik badakit, ziur-ziur jakin ere gainera, begira-begira egoten zen urrun hartan dagoela.





**Irati RAMOS ETXEANDIA**  
**Batxilergoa 2. maila**

*"Literaturatik gehien disfrutatzen duguna  
hura irakurtzean gure buruan imajinatzen ditugun uneak dira"*

## **UDABERRIA HELDU ARTE**

Ureztatu gabeko mitxoleta zelaia da zure ahotsa.  
Mendeetan zehar ur tantarik jaso gabe ere  
zure melodiaren akorde soil batekin aski da ene buruan,  
bidegurutzean zehar noala,  
aski da zure ahotsaren petalo bat  
mundu grisa hori distiratsuz margotzeko.  
Ureztatzerik behar ez duen mitxoleta zara.

Zaindu gabeko arrosa zelaia da zure azala.  
Arrisku koloreko gorritz tindatu arren,  
segurtasun gutxieneko egoeretan  
larrialdietan, amesgaiztoetan, amildegietan barne  
zugana tiratzen duen arantzaz jositako soka.  
Toxikoa, eta aldi berean mendekotasun-sortzailea.  
Arrosa pozoitsua zara.

Aurkitu gabeko urrelili zelaia da zure begirada.  
Zer bilatzen ari den ez dakienak  
atsedenik hartu gabe eta amorerik eman gabe  
aurkitu ezineko hori bilatzen duenean bezala  
nik zure begirada bilatzen jarraitzen dut  
noizbait aurkituko dudalakoan.  
Urrelili aurkiezina zara.

Margotu gabeko magnolia zelaia da zure eguna.  
Izotza,  
olatuen bitsa,  
elurra bezain zuri manten daiteke,  
munduko gauzarik zailena erraz bihurtuz  
edo gutxienez horren itxura emanaz.  
Magnolia lasaia zara.

Jaio gabeko heriotzorria da zure ausardia.  
Ziurgabetasuna, erronka, zirrara  
zugana naraman edozer  
egitera ausart zintezke  
erakarpinak beldurra gaitutuko balu,  
zure adorea nirea balitz.  
Heriotzorri zuhurra zara.

Lehortu gabeko krabelin zelaia da zure ukimena.  
Goizeko ordu txikietan  
gandua lausotzen hastean,  
ihintzak zure hostoak blai-blai eginda  
aski da laztan leun bat  
zutaz blaitzeko.  
Goizaldeko krabelina zara.

Usainik gabeko azafrai zelaia da zure esentzia.  
Urrunetik erakartzen duen lurrina  
baina, lurrin sendoa izan arren,  
zugana hurbiltzean,  
nabari ezin daitekeen usaina  
bat batean desagertzen dena.  
Bere usaina galtzen duen azafraia zara.

Ulertu gabeko musuluze zelaia da zure irudimena.  
Batek daki, iluna bezain argitsua  
desordenatua bezain zehatza  
koloretsua bezain zuribeltzekoa  
den zure adimen horretan  
zer ideia liluragarri pasatzen ari den.  
Musuluze arrotza zara.

Konkistatu gabeko ira-belar zelaia da zure isla.  
Harribitxi batek adinako distira izanagatik  
ispiluaren aurrean begiratzean  
duela mende pare bat legez  
itsasoz eskuratu beharreko irla dirudizu,  
ezin baituzu zeure kabuz zure lilura nabari.  
Jaberik gabeko ira-belarra zara.

Ezagutu gabeko nartziso zelaia da zure izaera.  
Zeren, ezagutuko bazenu,  
zeure burua nik beste estimatuko zenuke  
irribarre egitean, lokartzean  
eguzkia oheratu eta zure petaloak  
banan-banan zarratzen hastean.  
Bere burua gustuko ez duen nartzisoa zara.

Musika-notarik gabeko orkidea zelaia da zure doinua.  
Haizeak noizean behin  
promes-egileen hitzak daramatzen eran  
zure hitzek  
musika tresnetatik irtendako notak dirudite,  
hilezkorrak balira bezala.  
Sinfoniarik goxoeneko orkidea zara.

Jaio gabeko bizia da gure lorea  
Eta, udaberria gugana heldu arte,  
auskalo zer izango garen.

**BABESLEAK:**

